Erronkarierazko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa

RICARDO GÓMEZ
(EHU, Gasteiz)

0. Atarikoa*

0.1. Gure diputazioetako artxiboetan ia itzaldurik gordetzen diren eskuizkribu anitzetarik bat ematen dut lan honetan argitara: Nafarroako Artxibo Orokorreko «Fondo Bonaparte» delakoan B-118 signatura daraman *Doctrina Uscaraz* (aurrerantzean *DU*), erronkarieraz idatzitako dotrina osagabea[1]. Testu honen edizioa paratzeaz gain, irazkina ere eransten dut, hala testuko puntu ilunak hobeki ulertarazteko nola kontu askotan hain bitxi gertatzen zaigun erronkarieraren ezagupenerako aurrerapausu txiki bat egin asmoz[2].

0.2. Eskuizkribuak zazpi orri ditu, 21,5 x 15 zm.-takoak eta, lehenbizikoa izan ezik, bi aldeetan eta tinta beltzez idatziak; testua bi zutabetan banaturik dago. Orriak josita daude koaderno bat osatuz. Letra aski txukuna da eta ia zirriborrorik gabea; idazkeran aldaketa txikiren batzu badaude ere, esan daiteke ia ziurtasun osoz egile bakar batek idatzia dela.

Edukiari dagokionean, koadernoak dotrinaren zati batzu soilik biltzen ditu: galde--erantzunen hasiera, hots, *kristau* izenari eta gurutze santuari buruzkoa (1-70. lerroak); zeinatzearen otoitza (71-83); Aitagurea (84-105); Agur Maria (106-123); Kredoa (124-183); Salbea (184-224); Hamar Mandamenduak (225-283); Artikulo Fedezkoak (284-369); Elizaren Mandamenduak (370-397); Obra Miserikordiazkoak (398-446); Sakramentuak (447-465); *Ni hecataria* (466-517) eta *Aylatu dela* (518-528). Azken otoitz hau ez da sartzen, nik dakidala, ezagutzen diren euskarazko kateximetan, baina gazteleraz behintzat oraintsu arte erabilia izan da liturgian («Bendito sea, alabado sea...»)[3].

Azken otoitzaren arroztasunak eta galde-erantzunen eta gainerako otoitzen zenbait berezitasunek piztuta, pentsatzen hasi nintzen testu honek ez ote zuen izango

*Egileak Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker burutu ahal izan du lan hau.

(1) Ik. Izengabea (1913: 191), Bonaparteren nafar eskuizkribuen katalogoa, ziurrenik Arturo Campiónek prestatua; ik., halaber, González Echegaray (1984: 97). Aurrerantzean, besterik aipatzen ez badut, Nafarroako Artxiboaren «Fondo Bonaparte»-ko eskuizkribuez jardungo dut.

(2) Diodan, bidenabar, artikulu hau Erronkariko euskalkiaz dagoeneko abian dagoen lan handiago baten zati bat dela. Bertan E-ko testu guztien edizio kritikoa eta euskalki beronen gramatika burutu nahi ditut.

(3) Datu hau J. Apezetxeari zor diot; bihoa hemendik ene esker ona.

Asteteren dotrina ez zen beste jatorririk. Izan ere, begi bistan dago ez dela Asteteren hitzez- -hitzezko itzulpen osoa. Bilaketak, baina, ez du fruiturik izan eta, gainera, susma daiteke —eta uste dut hauxe dela hipotesirik onargarriena— eskuizkribu honen idazleak egindakoa herrian erabiltzen ziren otoitzak biltzen dituen moldaketa edo laburpena besterik ez dela. Honelako prozeduraren adibiderik ez da falta gure artean; Bonaparteren bilduma bera begiratzerik baino ez dago[4].

0.3. Eskuizkribuaren azkenaurreko orrialdean Bonaparte printzeak *DU*-n *-t(z)e*-erako adizki ez-jokatuen biluzketa egin zuen. Bonapartek liburuetan ezezik biltzen zituen eskuizkribuetan bertan ere oharrak idazteko eta interesatzen zitzaizkion datuen biluzketa egiteko aztura arbuiagarria zuen. Dena den, eraskin gisa sartu ditut oharrok testuaren ondoan, nahiz eta irazkinean eta hiztegian kontutan hartu ez.

1. *Doctrina Uscaraz*-en testu arazoak

1.1. Eskuizkribuak, damurik, ez dakar datarik ez idazlearen izenik. Orobat, egileak ez du inon ere adierazten zein herritan edota zein hizkeraz idatzia izan den. Nolanahi ere izanik, eskumenean ditugun datu bakanek eta testuaren hizkuntzak berak eskaintzen dizkigunek hipotesi batzu eratzeko aukera ematen digute. Halere, ene eritziz, oraino ez da arazooi behin betiko irtenbidea ematerik.

Datari dagokionean, bi hautabide daude, izkribua Bonaparteren bilduman dagoela kontutan hartzen baldin badugu. Izan ere, Bonapartek bi motatako eskuizkribuak bildu baitzituen. Batetik, Euskal Herrira egindako bidaietan jaso zitzakeen edo geroago bere laguntzaileek Londresa bidaliko zizkioten testu zaharrak ditugu, bereziki XVIII eta XIXkoak; bestaldetik, bere laguntzaileei —edo berauen bitartez beste pertsonaren bati— agindutako itzulpenak, dotrina eta ebanjelioarenak batez ere[5].

Bonapartek jasotako testu zahar horietarikoa izatekotan, aski zaila litzateke gutxi gorabeherako datazioa proposatzea; horretarako letraren, ortografi-sistemaren, tintaren, paper motaren eta abar luze baten miaketa sakona egin beharko bailitzateke. Zorigaiztoz, eginkizun hori ene trebetasunetatik kanpo geratzen da eta, hein handi batean, Euskal Herriko egoerari bagagozkio behinik behin, oinarrizko lanak ere peitu dira. Zernahi gisaz, gibelera gehien jota ere *DU* XVIII. mendean idatziko zen, ez dirudi zaharragoa[6].

(4) González Echegarayren katalogoan (1984: 57-108) sarritan irakur daitezke «incompleto», «algunas oraciones» eta antzeko adierazpideak; bestetan ere, guztiak ikusterik izan ez dudan arren, zenbait eskuizkriburen orri koputu urriak dotrina osagabeak direla pentsatzera narama. Cf. orain Camino (1989), non erakusten baita dotrina osagabe hauetarik bat (González Echegarayren 126.a) katalogoko bertako beste baten (131.aren) jarraipena dela.

(5) Bonapartek bost bidaia edo txango («excursions linguistiques», berak deitzen zien bezala) egin zituen Euskal Herrira: 1856., 1857., 1866., 1867. eta 1869. urteetan, hain zuzen. Bidaia hauen zertzeladez eta printzearen metodoaz ik., besteak beste, Arana Martija (1984: 35-41), Riezu (1958: 154-159), Rodríguez Ferrer (1873) eta Villalonga (1953-57: 52-63). Villalongaren ustez, seigarren bidaia bat egingo zuen 1867an, baina argi dago ez zuela asmoa paperetik jalgi, Arana Martijak (1984: 40-41) ongi adierazi duenez. Bonaparteren laguntzaileen zerrendarako, ik. aipatuez gain Urquijo (1910: 216).

(6) Kontsultatu diedan lagun guztiak arazo horretaz behintzat bat etorri dira, gauza zehatzagorik ziurtatu ezinik.

Aldiz, nahiz eta izkribu hau Bonaparteren eskutara noiz heldu zen ere zehatz-mehatz ezin jakin, zerbait idoki dezakegu printzeak idatzi gutunetatik, besterik ezean. Horrela, Bruno Echenique laguntzaileari bidalitako gutun batean (1863ko urtarrilaren 11koan) besteak beste Erronkariko kateximaren zain dagoela diotso: «Quant aux catéchismes de Burunda, Ulzama, Roncal, Salazar, Aezcoa et Orba j'attendrai tout le temps qui sera nécessaire» (*apud* Urquijo, 1910: 258). Honen antzeko adierazpena egiten dio berriz ere hiru hilabete beranduago, apirilaren 9an: «Je ne désespère pas de posséder un jour les cinq autres [catéchismes], c'est-à-dire: 4° Burunda; 5° Orba; 6° Aezcoa; 7° Salazar; 8° Roncal» (260. or.). Baina gutun horretan bertan argibide haboro ematen du Erronkariko eta Zaraitzuko kateximez:

> Je possède à dire vrai en manuscrit deux catéchismes en basque du Val de Salazar; l'un dans celui d'Ochagavia[7] où l'on m'en a fait cadeau à mon passage et l'autre dans celui d'Oronz, localité du même Val, qui m'a été donné aussi par un prêtre de ce pays pendant mon séjour à Ochagavia [...] En outre on vient de m'ecrire que le traducteur du catéchisme d'Ochagavia [Juan Marco Juanco, Otsagiko eskola-maisua] ne désespère pas de m'envoyer une traduction dans l'une des variétés de la Vallée de Roncal. (265-266. or.)

Hurrengo aipamenean, urte bereko abuztuaren 24ekoan, zaraitzuerazko bi kateximа horien berri ematen dio berriz Echeniqueri, arestian idatzitakoaz otoituko ez balitz bezala, nonbait. Gisa berean, Otsagiko jendea erronkarierara itzulitako kateximа bat lortzen saiatzen ari dela errepikatzen dio:

> ...tous ces messieurs d'Ochagavia m'ont assuré en même temps que l'on pourrait me procurer le catéchisme dans le basque du Roncal, soit de la localité même appelée Roncal, soit de toute autre localité de cette vallée. (269. or.)

Oraino Erronkariko kateximaren zain zegoela frogatzen digu 1864eko urtarrilaren 24eko gutunak ere; bertan, Zaraitzuz eta Erronkariz diharduelarik, honako hau idazten dio Echeniqueri:

> En outre dans le catéchisme d'Ochagavia je trouve toujours les syllabes *tza*, *tze* ou *tce*, *tci* ou *tzi*, etc. remplacées par *za*, *ze*, *zi*, etc. Si le *t* ne se fait pas sentir dans ces syllabes il n'y a rien à changer; mais si elles se prononcent comme dans tout le pays basque pourquoi alors écrire *za*, lorsqu'on doit prononcer *tza* ? (273. or.)

Beraz, gutun horretan Bonaparte Otsagiko kateximaren grafiaz —txistukari igurzkarien eta afrikatuen grafia ez bereizteaz, zehazki— kezkatzen bada eta bereizkuntzarik eza harrigarri suertatzen bazaio, aise pentsa daiteke grafi-ezaugarri berdina duen *DU* (ik. § 4.1.4.) gutunak dakarren datarako gutxienez ez zuela eskuartean izango. Halaber, aurreko aipuetan Otsagiko eta Oronzeko kateximekin egin bezala, erronkarierazkorik bat izan balu, bere kolaboratzaile nafarrari gaztigatuko ziokeen; are gehiago honelako grafia bitxi hauek aurkituz gero. Ziurrenik grafi-arazook oharterazirik, otsailaren 8an falta diren kateximetarako arau zehatzak eman nahi ditu < tz > eta < z > nahas ez daitezen:

(7) 1857ko bidaiaz ari da, aurrekoan bezalaxe (cf. Arana Martija 1984: 38). Otsagiko dotrina B-16 signatura duena da eta Oronzekoa, ziurrenik, B-14 duena (cf. González Echegaray 1984: 70).

> Quant aux difficultés du *tz* et du *z* pour les catéchismes de Garralda, Salazar, Roncal, Echarri-Aranaz etc. *j'attendrai avec patience la réponse de Monsieur Juanco* et le temps nécéssaire pour le tout soit réglé. (276. or.)

Bigarren hautabideari atxikitzen bagagozkio, Bonapartek agindutako itzulpena izateari alegia, datatzeko arazo bertsuak ditugu; kasu honetan, baina, testuaren eskuratze data eta idazketa data hurbilago leudeke, jakina. Dakusagun zein berri gehiago kausi daitezkeen Bonaparteren gutunerian. Erronkarierazko eta zaraitzuerazko kateximaren itzulpenen zain jarraitzen zuen 1864eko martxoaren 7ko eta irailaren 17ko gutunetan. Alabaina, azaroaren 7koan adierazten duenez, Otsagikoa abian zegoen eta erronkarierazkoak —dirudienez— badu itzulpena beregain hartuko duenik bederen:

> Je vois que Monsieur Juanco a commencé à travailler à la version d'Ochagavia. Je vous prie de le remercier de ma part et de l'encourager à continuer. Quant à la version roncalaise, je suis très-content de donner *los veinte duros* au maître de Roncal; mais il faudrait lui bien recommander de traduire, non pas en bon basque grammatical, mais en basque de Roncal, absolument tel qu'on le parle; car mon but est de savoir ce que l'on fait à Roncal. (280-281. or.)

Azkeneko esaldiek, alegia, erronkarierazko itzulpena ordurako abiatzeke zegoela pentsarazten didate, eta Erronkariko maisuak itzulpena egiteko aginduagatik aldez aurretik jasoko zituela *los veinte duros*[8]. Baina, zein da Erronkariko maisuak burutuko zuen lana? Inoiz burutzekotan, ez dut uste *DU* izan zenik. Alde batetik, itzultzailea (edo moldatzailea) ez dirudi printzeak aukeratuko zituenetakoa denik, berak herri bateko hizkera huts-hutsean, inolako kutsadurarik —ez aldameneko hizkerenik, ez literatur hizkerarenik— gabe isladatzeko gauza zirenak eskatzen baitzituen, gutun horretan adierazten duenez. Batik bat apaizak eta maisuak erabili zituen eginkizun horretan. Aitzitik, *DU*-ren hizkera aztertzerakoan antzemango zaionez, erregulartasunik eza eta nahastura dira argi eta garbi bere bereizgarririk nabarmenenak. Bestaldetik, eskuizkribuak erakusten duena ez da Bonapartek agindutako itzulpenetan eredu bezala erabiltzea nahi zuen «el Astete añadido por Luarca» delakoa[9]. Erronkarieraz, Luarcak eraldatutako *Astete*-ren bertsio bakarra iritsi zaigu, Bidankozeko hizkeraz idatzia eta Prudencio Hualde Mayok itzulia; dakigunez, Bonapartek 1866ko bidaian ezagutu zuen Hualde Mayo eta beroni itzulpena agindu ere (Arana Martija 1984: 39-40). Urte berean jaso zuen printzeak Hualde Mayoren *Astete*-a, Otaegiri idatziriko gutun batean irakur daitekeenez:

> He recibido los catecismos de *Uriz, Vidangoz, Jaurrieta, Garralda* [...] Acabo de escribir yo mismo á los señores curas de *Jaurrieta* y de *Vindagoz* [sic] para darles mis gracias y decirles que Vd. se ha servido encargarse de hacerles pasar la retribución debida por los catecismos (*apud* Rodríguez Ferrer 1873: 75)

(8) Ez nator bat, beraz, Gabilondo et alii-k (1985: 890) proposatu datazioarekin, iradokitzen baitute Erronkariko maisuaren katexima hau gutun honen datarako Bonaparteren eskura iritsiko zela, hots, 1864eko irailaren 17 eta azaroaren 7a bitartean burutu zela.

(9) Testu horrekiko zuen hobespena B. Echeniqueri adierazi zion 1862ko urtarrilaren 2ko gutun batean: "Peut-être les traducteurs navarrais préféreraient-ils traduire de l'Espagnol. Je ne verrai pas d'inconvénient à cela, pourvu que le texte espagnol soit exactement le même que celui qui a servi au Curé de Salinas, c'est-à-dire "El Astete añadido por Luarca"» (*apud* Urquijo 1910: 234).

Nolanahi izanik, Bonapartek Erronkari herriko dotrina ez zuen jasoko 1866 arte gutxienez. Izan ere, 1866ko urtarrilaren 31ean Angelutik igorritako gutun batean, urte hartako bidaia hasiberria baitu, informazio zehatzagoa ematen du artean erronkarierari buruz dituen datuez:

> Si l'écclésiastique qui à Ochagavia m'a fait cadeau du catéchisme d'Oronz en Salazar, pouvait se trouver à Roncal quand nous y serons, je crois qu'il pourrait nous être fort utile, car c'est bien lui qui à Ochagavia, avec l'aide de deux paysans du Roncal, m'a donné *le peu de renseignements que je possède sur ce basque*[10].

Hortaz, baiezta daiteke 1866ko bidaiaren aurretik Bonapartek ez zuela erronkarierazko dotrinarik eskuratu. Eta ene ustez, zehazki frogatzerik ez badago ere —tamalez, ondorengo gutunek ez baitute berri gehiagorik eskaintzen—, bidaia hartan bertan lort zitzakeen lehenak, haien artean *DU* beharbada.

1.2. DU-k isladatzen duen hizkeraz oso datu gutxi ditugu. Eskuizkribuaren izenburuaren ezkerraldean Bonapartek *Urzainqui* hitza idatzi zuen. Bigarrenik, testuaren amaieran ondoko hitzok idatzi zituen: «Mélange d'Urzainqui et de Vidangoz: / donc / Roncal / (consoleta)»[11]. Hau da, printzearen ustez testuaren hizkera Urzainkiko eta Bidankozeko hizkeren ezaugarrien nahasketa da edo, bestela esanda, tartean dagoen hizkera da. Bonapartek hizkera hori Erronkari herrikoa dela deritzo. Antza denez, *consoleta*-ren erako hitzak Erronkariko hizkeraren berezitasuntzat jotzen baititu Bonapartek[12]. Jakina, bi oharrok kontraesanean daude, bata edo bestea oker legoke.

Bestalde, Bonapartek *DU* honen bi kopia egin zituen. Lehenbizikoak —A deitu dudanak[13]— *Urzainki* dakar tatxaturik eta *Roncal* ondoan idatzia. Bigarrenean —B kopian[14]—, ordea, *Garde* eta *Roncal* irakur daitezke, eta azken honen azpian *Urzainki*, lehenago tatxaturik.

RIEV-eko aurkibidean (1913: 191) *DU*-ren jatorrizko eskuizkribua «dialecto de Urzainqui» bezala katalogatu zen; A eta B kopiak, ordea, «dialecto de Roncal» bezala, haranaz edo herriaz ari zen zehaztu gabe, baina ziurrenik Bonaparteren oharretan oinarriturik. González Echegarayk (1984: 97), bere aldetik, 1913ko sailkapena mantentzen du, testuon arteko erlazioaz ohartzeke. Azkenik, Bonapartek bere bildumako beste eskuizkribu baten buruan ere idatzi zuen *Roncal* hitza, B-110 signatura duen kateximan (cf. González Echegaray 1984: 95), goraxeago aipatutako Erronkari herri-

(10) Azpimarkatua nirea da.

(11) Honelako esaldiak ugari dira Bonaparteren bildumako eskuizkribuetan, testu baten euskalkia edo hizkera zein den aditzera emateko. Eskuizkribu guztion gorabeherak hobeki ezagutu beharko lirateke, baina susmoa dut hauexek ez ote diren, besteak beste, Bonaparteren aginduz ez egindakoak. Honek azalduko lituzke, hain zuzen, printzearen zalantzak eta zirriborroak.

(12) *Consoleta* eta antzeko aditz izenez, ik. irazkinean (§ 4.3.3.) esaten direnak.

(13) B-111 signatura dauka; ik. González Echegaray (1984: 95). Kopia honek jatorrizko eskuizkribuko lehen 123 lerroak jasotzen ditu.

(14) B-112 signatura dauka; González Echegarayk (1984) ez dakar. Egia esan, kopia honek bi eskuizkribu jasotzen ditu. Lehenbiziko idaztaldian Gardeko hizkeraz idatzitako dotrinaren zenbait zati biltzen dituen koadernotxo bat —B-109 signaturaduna— kopiatzen du. González Echegarayk (1984: 108) «Dialectos sin identificar» atalean eta *Recopilación de diversas oraciones en vascuence* izenburupean katalogatzen du Gardeko izkribu hau. Lehenbiziko idaztaldi honen gainean Bonapartek *DU*-k erakusten dituen aldaerak eta Gardeko bertsioak ez dakarren *Aylatu dela* otoitza eransten ditu. Izan ere, oso erlazio estua erakusten dute bi eskuizkribuok (ik. beherago § 1.4.).

ko maisuak itzulia datekeen hartan hain zuzen. Alabaina, beronen kopian, B-119 signaturadun eskuizkribuan alegia, azalean *Roncal* agertzen bada ere, hurrengo orrian printzeak *Urzainqui* idatzi zuen, gero tatxatu eta ondoan *Roncal* ezarri. Katalogoek Erronkarikotzat hartzen dituzte hala jatorrizkoa nola Bonaparteren kopia. Berauek eta argitara ematen dudan dotrinak isladaturiko hizkerei gainbegiratu bat egitea aski da herri berekoak ez direla ohartzeko. Azken katexima hau egiazki Erronkari herriko euskaraz idatzita dagoela onartzen baldin badugu —eta horretaz Bonapartek ez du zalantzarik azaltzen— *DU*-ko hizkera Urzainkikoa izan liteke[15]. Zernahi gisaz, errealitatea askoz ere konplexuagoa izan daiteke eta, areago, hizkera hauetaz idatzitako testu ezagun bakarrak direnez gero, oso zaila izango da bi hizkerok erabat bereiztea[16]. Nola edo hala, irazkinean bi testuon arteko ezberditasunak zehazten saiatu naizelarik, hipotesi moduan B-110 signaturaduna Erronkarikotzat eta B-118 signaturadun *DU* Urzainkikotzat hartzen ditut.

1.3. Datu nahaste honen aurrean, ia ezinezkoa da egileari buruzko informazio fidagarririk eskuratzea. Data zehatzik ez dakigu; egilea Erronkarikoa edo —ziurrago dirudiena— Urzainkikoa izan zitekeen. Damurik, 1988ko abuztuan Erronkarira egin nuen bidaian ez nuen bertako udaletxeko artxiboa ikusteko abagadunerik izan. Nolanahi ere den, haraneko udaletxeetako eta elizetako artxiboak miatu orduko, aukera zabalegia dugu eta zorioneko aipamenen bat kausituko ez balitz, ez dut uste —eta barka bekit ezkortasuna— ezer probetxuzkorik lor litekeenik.

1.4. Atal honi bukarera emateko, lerrootan zehar aipatu diren zenbait testuren arteko erlazioaz zertxobait gehiago esan gura nuke. Gorago adierazi bezala (ik. 14. oharra), *DU*-k oso erlazio estua du Gardeko otoitz bildumarekin. Dakusagun zertan datzan erlazio hori. Hauexek dira Gardeko bertsioaren zatiak: Kredoa, Salbea, Hamar Mandamenduak, Artikulo Fedezkoak, Elizaren Mandamenduak, Sakramentuak, Obra Miserikordiazkoak, *Ni becataria* eta Akto Fedezkoa[17]. Bistan denez, A kopian sartzen ez diren *DU*-ko zati berberak dira (*Aylatu dela* otoitza izan ezik eta gaztelerazko *Acto de fe* gehituz) eta ordena bertsuan. Diferentzia bakarra sakramentuek eta obra miserikordiazkoek hartzen duten lekuan datza. Baina, garrantzitsuagoa dena, bi bertsioon itzulpenak ia hitzez hitz berdinak dira, tokian tokiko aldaera dialektalak alde batera utzirik, jakina[18]. Ziuraski, Bonaparte antzekotasun honetaz ohartu zen eta B kopiaren helburua aldaera hauen berri ematea izango zen. Halaber, *DU*-ko adizki

(15) Arazo honen argudiaketa osoago bat ikus daiteke in Gabilondo et alii (1985: 891-897). Ondorio berberera iristen badira ere, *DU* eta Er*Dot* hizkera ezberdinetan idatzirik daudela frogatzeko erabiltzen dituzten zenbait argudio ez daude, ene ustez, ongi neurturik: horrela, *DU*-n *-o + a > -ua*, *-e + a > -ea* eta *-u + en > -ion* bilakabideak nagusi direlakoa ez da batere zehatza (ik. § 4.2.1.5.); orobat, Er*Dot garren* / *DU -garna:* izan ere, *-garna* forma *-garren + a* izateaz gain, *DU*-n *irurgarren* (155) kausitzen dugu. Aldiz, baliagarriagoak deritzet ondoko hauei: Er*Dot -truc* / *DU -turic*, Er*Dot -tia* (*santiguatia*) / *DU -eta* (*santigueta*) eta Er*Dot virez* / DU *bidez*. Bi testuen arteko bereizgarri haboro irazkineko oinoharretatik atera daitezke.

(16) Oroit bedi Bonapartek 1869. urtean burutu zuen euskalkien sailkapenean Erronkariko eta Urzainkiko hizkerek erronkariera azpieuskalkiaren barneko hizkera mota («varieté») bat osatzen dutela.

(17) Azken zati hau gazteleraz dago, ziurrenik —Gabilondo et alii-k (1985: 273) ere uste bezala— egileak otoitz hori euskaraz ez zekielako edo oroitzen ez zelako. Bada Gardeko hizkeraz idatzitiko *Akto fedezko* bat, beste zenbait otoitzekin batera, Bonaparteren bilduman B-116 signatura duen eskuizkribuan (ik. González Echegaray 1984: 96); agi denez —eta testu hauen arazoetatik gain-azaletik igaroaz—, Gardeko bi eskuizkribu hauen egileak senideak ziren (cf. Gabilondo et alii, 1985: 272, 303).

(18) Irakurleak ikus dezake irazkinean Gar0-tik ateratako aipuek eta adibideek *DU*-koekin erakusten duten antzekotasuna, bereziki sintaxiari eskainitako atalean.

biluzketari Gardeko otoitz bildumakoa erantsi zion, *Prières* izenburupean agertzen direnak hain zuzen (29E-50E), bi zerrendak erkatzeko asmotan.

Hortaz, bi erlazio mota bereiz ditzakegu:

a.- Jatorrizko eskuizkribuen artekoa: ziur nago bi itzulpen hauen antzekotasun ia hitzez-hitzezko hau kasualitateari baino zerbait gehiagori zor zaiola. Azterketa kritiko sakonago baten zain gaudelarik, bi irtenbide bila dakioke auzi honi: bat bestearen oinarri edota eredu izatea, edo bien iturburua original galdu bat izatea[19].

b.- Bonaparteren kopien artekoa: ene eritziz, B kopia zaharragoa litzateke eta Bonapartek A kopia bestean sartzen ez ziren zatiak jasotzeko asmotan abiaraziko zuen. Hipotesi honi jarraituz, B-ren amaieran agertzen den *Aylatu dela* hirugarren idaztaldi bati legokioke eta *DU*-ren kopia osoa burutzeko helburua izango zuen, bere zatien ordenaketa mantendu nahiz.

2. Edizio honetako erizpideak

2.1. Oinarritzat *DU*-ren jatorrizko eskuizkribua —hots, B-118 signaturaduna— hartu dut (aurrerantzean O). Bonapartek testuan bertan egindako oharrak kendu egin ditut, baina, esan bezala, azkenaurreko orriko adizkien zerrenda eraskin gisa ematen dut, *E* letraz hasitako zenbakikuntza ezberdinez bereizirik. Zerrenda hau, *DU*-ko zenbait hitzen biluzketa (eta beraz errepikapena, ortografia aldaturik) baino ez denez gero, ez dut irazkinean kontutan hartu.

2.2. O-ko ortografia mantendu da aldaketa txiki eta ohizko batzutan izan ezik: letra larrien erabilera gaurkoturik dago eta, egileak jarraitzen bide dion usadioa aintzat harturik, letra larriak lerro hasiera orotara hedatu dira. Orobat, O-ko < Y > eta < V >, hots bokalikoak adierazten dituztenetan, < I > eta < U > transkribatu ditut.

Bonaparteren A eta B kopiek grafi-sistema ezberdin bati jarraitzen diote. Ortografi aldaketak sistematikoak direnean, ez ditut testu-oharretan jasotzen. Ondoko taula honetan laburtzen ditut:

O	A eta B
< c ^{a,o,u} >, < qu >, < ch- >	< k >
< gu ^{e,i} >	< g ^{e,i} >
< g ^{e,i} >	< j ^{e,i} >
< c ^{e,i} >, < z >, < ç >	< z >
< y >[20]	< i >
< nn >	< n >

Haatik, korrespondentzia hauetatik urruntzen diren grafi aldaketei, hau da, nolabaiteko hots aldaketa bat agertzen bide dutenei, leku egin zaie testu-oharretan.

(19) Orobat, Sarasolaren (1983: 122) hitz hauek kontutan hartzekoak dira: «De todas formas parece absolutamente razonable pensar que las diversas versiones de este tipo de oraciones tan comunes no estarían libres de influencias mutuas, y que, por otra parte, mantendrían fórmulas heredadas de versiones anteriores y correspondientes a estados más antiguos de la lengua...».

(20) Bokal artean dagoenean.

2.3. Puntuazioa ere gaurkotu egin dut eta galdera markak falta diren lekuetan jarri ere. Puntuazioa ezartzerakoan, Bonaparteren kopiena kontutan hartu dut.

Hitzak gaurko moduan bildu eta bereizi ditut. O-n gehienetan *aditz nagusi + aditz laguntzaile* multzoa itsatsirik azaltzen da. Horrelakoetan, aldaketa fonetikorik gertatu ezik, besterik gabe banatu ditut eta ez da testu-oharretan ezer adierazi; bai, ordea, bestelako hitz bilketak-bereizketak egin ditudanetan.

2.4. O-ko orrialde eraketa (a = aitzinaldea, g = gibelaldea) dagoen dagoenean utzi da, orobat lerroketa galde-erantzunen atalean izan ezik; izan ere, eskuizkribuko lerro motz horiek arrazoi izkuturik edo ez hain izkuturik izan bailezakete (otoitzaren erritmoa datorkit burura). Galdera baten zein erantzun baten hasiera lerro berri batean kokatu da beti. Lerroketa O-tik aldentzen denetan testu-oharretan adierazi da.

3. Testua

[2a] DOCTRINA USCARAZ

P. Christiain zraya?
R. Baigeina, Juangueico
Jeinaren graciaz.
[5] P. Christiayaren nombre cori,
nontic ecun zunien?
R. Gore Jesu Ch[r]isto Jeinaganic.
P. Cer erranaidu cristiaya?
[10] R. Christoren guizona.
P. Cer erranaidu Cristoren
guizona?
R. Gore Jesu Christo Jeinaren fedia dyona, zoin bai-
[15] tago Bautismo Saintian
confesaturic, aren cerbuchu
saintiaren empleetra.
P. Zoin da christiayaren señalea?
[20] R. Cruche Saintia.
P. Cerengatic?
R. Ceren
bayta Christo crucificatiaren figura eta berar-
[25] tan redimitu baygutien.
P. Zombat guisas biar dugu
icasi ceñetan?
R. Bidez, geina.
P. Zoin drade?
[30] R. Ceñeta eta
santigueta.
P. Cer da ceñeta?
R. Irur crucheren eguitea.
P. Nola?
[35] R. Leina borontean,
bigarna aoan, irorgarna
burarretan, mincetan grelaric

1-2. O-n, bi lerroon artean, lapitzez eta idazkera ezberdinez *Urzainqui.* Bonapartek idatzia bide da. Testu honetako hizkeraz, ik. § 1.2. A *Urzainqui* tatxatua, eta *Roncal* gero ondoan erantsia. Ik. halaber 51E-54E.

3. A *Bai Jeina* // O *Juangueico-*.

5. *Christiayaren*: O *-y- -n-* baten gainean // O *nombrecori*: A *nombre kori.*

7. A *Jesukristo*; orobat 13; cf., halaber, 132.

7-8. O *Jeina / ganic*: A *Jeina ganik*; cf. 144.

13. A *Jesukristo*; ik. 7.

14. *dyona*: O *-y-* zerbaiten gainean (*-o-*?).

16. O *Cerbuchu-*.

18. O *Zoinda*: A *Zoin da.*

19-20. O-n bi lerro hauek bakar bat osatzen dute; ik. § 2.4. Orobat 21-22, 27-28, 29-30, 31-32, 34-35, 49-50, 54-55 eta 58-59.

21. O *Ceren gatic*: A *Zerengatik*; ik. 486. Baina cf. 43, 48 eta 53, non O *Cerengatic.* Cf., halaber, 40, 73, 120 eta 496.

23. O *Christo Christo,* bigarrena tatxatua.

26. A *gisaz, gizaz*-en gainean zuzendua.

29. O *Zoindrade*: A *Zoin drade.*

32. O *Cerda*: A *Zer da;* orobat 59.

37. O *gleraric*: A *glerarik*; cf., halere, 65.

37-38. O-n bi lerroon artean hitz zirriborratu bat dago (*saihatea?*).

gore Jein eta Juangoico Jeinarequi, erraiten dugularic: Cru-
[40] che Saintiaren señaleagatic,
gore esayetatic libra guizazu,
Joangoico gorea.
P. Cerengatic ceñetan gra borontean?
[2g] [45] R. Joangueico Geinnac guarda eta libra guizan pensamentu gaisto gucietaric.
P. Cerengatic ceñetan gra aoan?
[50] R. Joangueico Geinnac
guarda eta libra guizan iz
gaisto gucietaric.
P. Cerengatic ceñetan gra burarretan?
[55] R. Joangueico Gein-
nac guarda eta libra guizan
obra eta deseo gaisto gucietaric.
P. Cer da santigueta?
[60] R. Cruche andi baten eguitea.
P. Nola?
R. Borontetic bioceara, biocetic ezquerreco soin-
neara, ezquerrecotic escoin-
[65] necoara, mincetan grelaric
Trinitate Saintu Jeinnarequi,
erraiten dugularic: Aytaren
icenean, eta Semearnean,
eta Espiritu Saintu Jeinne-
[70] arnan. Amen. Jesus.

[3a] ORACIONAC US[C]ARAZ

Cruche Saintiaren
Señaleagatic,
Gore
[75] Esayetatic
Libra guizazu,
Joangoyco gorea.
Aytaren icenean,
Semearnian,
[80] Espiritu
Saintu
Geinarnian.
Amen. Jesus.
Ayta gorea,
[85] Ceurietan zaudiana,
Santifica bedi
Zore icena;
Sin bequigu
Zore reynoa
[90] Goregana;
Cumpli bedi
Zore borontatia,
Nola ceurian
Cala lurrean;
[95] Zuc iguzu
Gore egunozco oguia;
Zuc parca diazcuzu
Guri gore zorrac,
Guc nola parquetan baitugu
[100] Guri zor daicuguner;
Ez guizazula eiz
Tentacionian erortra,
Baici libra guizazu
Gach gucietaric.

39-40. O *cru- / chesaintiaren*: A *Kruche Saintiaren.*

40. A *señalea gatik*; orobat 73. Cf. 21, 120 eta 496.

54. O-n lehenbiziko *-a- -r-* baten gainean.

59. O *Cerda*: A *Zer da*; ik. 32.

60. O *andibaten*: A *andi baten.*

71. A-k ere zuzentzen du: *uskaraz.*

73. A *señalea gatik*; ik. 40.

77. O *Joan goyco*: A *Joangoiko*; ik. 126 eta 228.

90. O *Gore gana*: A *gore gana*; cf. 7-8, 21, 120, 144 eta 496.

100. *Guri*: O *-r- -c-* baten gainean.

101. O *Ezguizazula*: A *ez gizazula.*

107. O *Joan gueico*: A *Joangeiko*; orobat 118. Ik. 185 // A-k ere zuzentzen du: *zizala.*

[105] Amen. Jesus.
ABE MARIA

Joangueico Jeynac salba ciza[la],
Maria,
Graci andiz betea,
[110] Jeyna duzu Zorequi,
Zuc benedicatia duzu
Emazte gucien artean,
Eta benedicatea duzu
Zore sabel birginaleco
[115] Frutia,
Jesus.
Santa Maria,
Joangueico Jeinaren Ama,
Zuc otoy eguin zazu
[120] Gu becatariengatic,
Oray eta
Gore ilordian.
Amen. Jesus.

[3g] CREDOA

[125] Sinestan dud
Joangoicuatan
Ayta gueiza gucietan
Poder dionaren,
Ceuriaren
[130] Lurraren
Criazale;
Eta Jesu Christo
Aren Seme
Gore Jein
[135] Bacocha,
Zoin
Izan beicen
Concebituric
Espiritu
[140] Saintu
Geinaren
Obraz,
Sortu
Ama Berginaganic,
[145] Padecitu
Poncio
Pilatosen
Potrearen
Pean,
[150] Crucificaturic,
Il eta orci,
Sausci cela
Limbuetra,
Cantic
[155] Irurgarren
Egunean
Resucitatu cela
Ilen artetic,
Igan cela ceurietra,
[160] Can dagola
Jasseriric
Bere Ayta
Poderosaren
Altescoyecualtian,
[165] Cantic
Siñen dela
Juicioco egunian
Ilen
Eta bicien

113. A *benedikatia*; ik. 111. Garbi irakurtzen den *benedicatea* mantentzea hobetsi dut, salbuespenez eta zalantzaz josia baitago testua, bistan denez (ik. § 4.2.1.5. eta 4.4.2.); cf. esaterako 432 *emoytea* / 435 *emoytia*.

118. O *Joan gueico*; ik. 107.

120. O *becatarien gatic*: A *bekatarien gatik*; cf. 21 eta 496.

122. A *il ordian*; ik. 516.

123. Hemen bukatzen da A kopiak jasotzen duena eta hurrengo lerroan B-k jasotakoa hasten.

126. O *Joan goicuatan*: B *Joangoikuatan*; orobat 228; ik. 77.

127. O *gueizagucietan*: B *geiza guzietan*.

132. B *Jesukristo*; orobat 222 eta 316; ik., halaber, 7.

137. O *beincen*: B *beinzen*; cf. *beycen* (524).

144. O *bergina ganic*: B *Berjina ganik*; orobat 325; cf. 7-8 eta 90.

161. B *jaseririk*; cf. 350.

162. *Bere*: O *-e- -a-* baten gainean.

164. O *-ltian* gero erantsia, lehengo *-n* baten gainean *-lt-* idatziz. B. *alteskoyeku altian*.

[170] Juzguetra.
Cala sinestian diezu
Espiritu Saintu,
Elizama Sainta
Catolican,
[175] Santien
Comunionian,
Becatioaren
Parcamentioan,
Araguiaren
[180] Resurreccionian,
Bicicen
Fin gabean.
Amen. Jesus.

[4a] SALBEA

[185] Joangueico Jeynac salba cizala
Reyna,
Ama
Misericordiazcoa,
Bicice dulcea,
[190] Esperanza gorea,
Joangueico Jeynac salba cizala.
Zuri gaudezu
Deyez
Ebaren
[195] Ume
Desterratu cuec,
Ayenez,
Nejarrez,
Erri
[200] Nejarrezco contan.
Ea bada,
Gore Abogada,
Uzul dazcuzu
Zore begui
[205] Misericordiazco coric;
Destierro cau
Igariz guero,
Erasucu diazcuzu
Zore sabel
[210] Birginaleco
Frutia:
Jesus.
O Clementissima,
O Piadosa,
[215] O Dulce
Siempre Birgen Maria;
Santa Maria,
Juangueico Jeynaren
Ama,
[220] Zuc otoy eguin zazu,
Gu izan guitiain digno
Gore Jesu Christo Jeynaren
Promesa saintietan.
Amen. Jesus.

[225] MANDAMENTIAC

Amar drade
Mandamentioac
Joangoyco Jeynaren
Leguezcoac.
[230] Leyn irorac
Joangueyco Jeynari
Onriari
Cobenietan denac;
Berce zazpiac,
[235] Guiauren christiain lagunar[i]
Probechoari.

177. O-n bigarren *-a- -r-* baten gainean.

178. O *-ti- -a-* baten gainean.

180. B *resurrezionian*.

181. O *bici cen*: B *bizizen*.

185. O *Joan gueico*: B *Joangeiko*; orobat 191, 231, 238, 295 eta 469; ik., halaber, 107.

191. O *Joan gueico*; ik. 185.

196. O *desterratucuec*: B *desterratu kuek*.

200. O *Nejarrezcocontan*: B *nejarrezko kontan*.

205. O *Misericordiazcocoriz*: B *miserikordiazko koriz*.

207. O *Igarizguero*: B *igariz gero*.

213. B *klementisima*.

218. O *Juan gueico*: B *Juangeiko*.

221. B *gitian*.

222. B *Jesukristo*; ik. 132.

228. O *Joan Goyco*; ik. 126.

230. B *Lei*.

231. O *Joan Gueyco*; ik. 185.

233. *Cobenietan denac*: *drenac* (edo Bid *zazka*-ren ordaina) espero genuke, ik. § 4.4.1.

235. O-ko lerroa osatzen dut, B-k *lagunar* mantendu arren; cf. 231.

Leyna,
Joangueyco Jeinna
Gaiza guciez gaynetic
[240] Oneresi eta estima dezagula;
Bigarna,
Aren icen saintian
Juramento falsoric
Eguin eztezagula;
[245] Irorgarna,
Seyac eta iganteac
Guarda dezagula;
Laugarna,
Ayta eta ama
[250] Onrra dezagula;
[4g] Borzgarna,
Ñor il eztezagula;
Seygarna,
Lujuriazco becaturic
[255] Eguin eztezagula;
Zazpigarna,
Bercen gayzaric
Ebas eztezagula;
Zorcigarna,
[260] Ñori ere
Falso testimonioric
Gora eztezagula,
Eztare guezurric erran;
Bedrazugarna,
[265] Bercen guizonac
Bercen emazteac
Desea eztezagula;
Amargarna,
Bercen ontarzunic
[270] Desea eztezagula.
Amar Mandamentu Sain-
tu cuec
Zerretan drade
Bitan:
[275] Leyna,
Juangoyco Jeyna
Gaiza guciez gaynetic
Oneresi eta estima dezagu[l]a;
Bigarna,
[280] Guiaureren prosimo laguna
Guiauren buria bicala
Oneresi eta estima dezagu[l]a.
Amen. Jesus.

ARTICULOAC

[285] Amalau drade
Articulo Fedezcuac:
Leyn zazpiac
Dibinidade Saintiarnac
Berce zazpiac
[290] Umanidade Saintiarnac.
Dibinidadieren
Zaspietaco leyna,
Sines
Dugula
[295] Joang[u]eyco bat
Berdaderoric;

238. O *Joan Gueyco;* ik. 185.
239. *guciez gaynetic*: O-n zuzenketa burutugabe bat bide dago; lehenbizikoz *gucietatic* idatzi eta gero *-tic*-en gainean *Gaynetic* erantsi da, *guciet*a*Gaynetic* irakurtzen delarik. B *guziez gainetik*, letroaren gainean *eta*, gero tatxatua. Neure zuzenketa B-ren irakurketan eta 277. lerroko egituran oinarritu dut.
244. B *ez iezagula*, gero *z-* luzatuz bi hitzak loturik; orobat 252.
245. O *Yror garna*. O-n *garna* loturik zein berezirik agertzen da; berezirik ondoko lerrootan ere: 248, 251, 253, 256, 259, 264, 305, 308, 310, 332, 340, 345, 385 eta 433. B-n beti loturik.
250. B *onra*.
252. O *Nõr*: B *ñor;* orobatsu 260 // B *ez tezagula*, gero *z-* luzatuz bi hitzak loturik; ik. 244.
260. O *Nõriere*: B *noriere;* ik. 252.
267. *eztezagula*: O-n bigarren *-e-* zirriborrotsu agertzen da; zail da bereizten *e* ala *a* den; cf., halere, 244, 252, 255, 258, 262, 270 eta B *eztezagula*.
269. B *berberzen*.
271-272. O *Sain- / tucuec*: B *saintu kuek*.
276. O *Juan Goyco*: B *Joangoiko*.
278. B *dezagula;* orobat 282.
281. B *bika*.
282. O *esta*, ondorengo *estima*-ren eraginez: B *eta* // B *dezagula;* ik. 278.
285. O *Amalaudrade*: B *Amalau drade*.
292. B *zazpietaco*.
295. O *Joan geycobat*: B *Joangeiko bat*; ik. 185.

Bigarna,
Sines dela Ayta;
Irurgarna,
[300] Sines
Dela Semea;
Laugarna,
Sines
Dela Espirytu Saintu Jeyna;
[305] Borzgarna,
Sines
Dela Criazale;
Seygarna,
Sines dela Salbazale;
[310] Zazpigarna.
Sines
Dela Gloria Emoyle.
Umanidadieren
Zazpietaco leyna,
[5a] [315] Sines
Gore Jesu Cristo Jeyna,
G[u]izon dena bequinbatez,
Izan cela concebituric
Espiritu Saintu
[320] Jeynaren
Obraz;
Bigarna,
Sines
Sortu cela
[325] Ama Berginaganic,
Ura baretan celaric
Virgen
Erdiz leyn,
Erdietan,
[330] Erdiz guero,
Betiere Virgen;
Irurgarna,
Sines
Sausi cela
[335] Linbuetra,
Cantic
Idoqui ztiela
Patriaraquen
Arimac;
[340] Laugarna,
Sines
Cantic
Irurgarren egunean
Resucitatu cela;
[345] Seygarna,
Sines
Igan cela
Ceurietra,
Can dagola
[350] Saceriric
Bere Ayta
Poderosoaren
Altescoyecualen altean;
Zazpigarna,
[355] Sines
Sinen dela
Juicioco egunian
Juzguetra;
Oner emonen dyela
[360] Paradisoco gloria,
Ceren guardatu beycien
Aren Mandamentu Santiac;

296. O *b- v-* baten gainean.
298. O *de la*: B *dela;* orobat 301, 304, 307, 309 eta 312.
301. Ik. 298.
304. Ik. 298.
307. Ik. 298.
309. Ik. 298.
312. Ik. 298.
316. B *Jesukristo;* ik. 132.
317. O *bequin batez*: B *bikimbatez*.
318. O *Yzalcela*: B *izal zela*.
325. *Berginaganic*: O-n zail da bereizten *v-* ala *b-* den; cf. 144 eta 522.
326. O *baretancelarit*: B *baretan zelarik*.
330. O *Erdizguero*: B *erdiz gero*.
338. O *Patriara quen*: B *Patriaraken*.
343. B-k ez dakar pasarte hau (*omissio ex homoioteleuto*).
345. Bosgarren artikulua falta da.
349. O *Candagola*: B *kan dagola*.
350. B *jaseririk;* cf. 161.
352. B *podorosoaren*.
359. *dyela*: O *-y-* zerbaiten gainean (*-e-*?).

Eta gastoer
Eburnico penac,
[365] Ceren
Ezpaycien
Guardatu
Aren Mandamentu Santiac.
Amen. Jesus.

[370] ELIZACO MANDAMENTIAC

Borz drade
Elizama Saynta
Catolicaren
Mandamentu Sayntiac:
[375] Leyna,
Igante eta sey oroz
Meza enteroric
Enzun dezagula;
[5g] Bigarna,
[380] Alomenos
Urtean beyn
Confesa guiteala,
Edo leynago
Biarric balimadigu;
[385] Irurgarna,
Bazcua
Resurrezcuetan
Achiça guitiala;
Laugarna,
[390] Elizac
Manetan tien egunac
Barur dezagula;
Borzgarna,
Decuma eta primiciac
[395] Enteroric
Eguin dezagula.
Amen. Jesus.

OBRA MISERICORDIAZCOAC

Amalau drade
[400] Obra Misericordiazcoac:
Leyn zazpiac
Espiritualac;
Berce zazpiac
Corporalac.
[405] Espiritualetaco leyna,
Eztaquienari
Erasuquitia;
Bigarna,
Consejo biar dionari
[410] Consejo emoytia;
Irurgarna,
Gaztigu biar dionari
Corregitia;
Laugarna,
[415] Injurien parqueta;
Borzgarna,
Tristearen consoleta;
Seygarna,
Guiauren prosimo laguna
[420] Aflegidadez
Eta flaquezas
Pacienciaz eramaytea;
Sazpigarna,
Joayngoyco Geynari
[425] Ilez eta biciez
Otoy eguitea.

374. O *Sanytiac*: B *Santiak.*
387. B *Resurezkuetan.*
389. B *Largarna,* hots, lerroan *au* azpimarkatu eta lerroaren gainean *ar* idatzi, testu honetako aldaera dela adierazteko; B kopiaren berezitasunez, ik. 14. oharra.
391. *Manetan*: O-n zail da bereizten *-e-* ala *-a-* den, baina B *manetan;* cf., halaber, 16E. // *egunac*: solezismoa, ik. § 4.3.1.
405. *Espiritualetaco*: O-n lehenbizi *Espirituaieco* idatzi, gero *-co*-ren gainean *-taco* erantsiz.
412. B *gastigu.*
419. *laguna*: *lagunaren* espero genuke, ik. § 4.4.2.
420. *Aflegidadez*: erdal bertsioaren interferentzia dago eta gero *-s* / *-z* nahastea gertatu da; ik. § 4.4.2. B *aflegidades* esanahiarekin adosago.
421. *flaquezas*: idem.
422. B *pazienzian.*
423. B *Zazpigarna.*
424. O *Joan goyco*: B *Joangoiko.*

Corporaletaco leyna,
Erier eta encarcelatier
Bisiteta;
[430] Bigarna,
Gose dionari
Satra emoytea;
Irurgarna,
Egarri dionari
[435] Edatra emoytia;
Laugarna,
Cautibuen
Rescateta;
[6a] Borzgarna,
[440] Beleycien beztitia;
Seygarna,
Peregrinuer
Ostatu emoytea;
Zazpigarna,
[445] Ilen orntia.
Amen. Jesus.

SACRAMENTIAC

Zazpi drade
Sacramentu Saintiac:
[450] Leyna,
Bautismoa;
Bigarna,
Confirmaciona;
Irurgarna,
[455] Confesiona;
Laugarna,
Achicionia;
Borzgarna,
Oliacionia;
[460] Seygarna,
Orden Sacerdotal,
Ordenamentu Saintiac;
Zazpigarna,
Matrimonia.
[465] Amen. Jesus.

NI BECATARIA

Ni becataria
Confesetan nuzu
Joang[u]eyco Jeinari,
[470] Andre Dona Maria
Betiere Virginary,
En Done Micle
Arcanguari,
En Done Juane
[475] Bautistari,
En Done Petro
San Pedro,
San Pablo,
Apostol gucier
[480] Eta paradisucu
Sayntu
Eta santa
Gucier,
Eta gore ayta
[485] Espirituala,
Cerengatic
Eguin baytugu
Becatuac
Andiqui

436. B *Lurgarna,* hots, lerroan *au* azpimarkatu eta lerroaren gainean *ur* idatzi; ik. 389.
445. *orntia*: *onrtia* espero genuke, < n >-k *o*-ren sudurkaritasuna adierazten baitu, ik. § 4.2.2.4. B-k ere *orntia* mantentzen du; cf., halere, 27E.
448. O *Zazpidrade*: B *Zazpi drade.*
456. B *Lurgarna:* ik. 436.
469. O *Joan geyco*; ik. 185.
470. O *Andre Donamaria*: B *Andredona Maria*; orobat 498.
472. B *Endone;* orobat 474, 476, 500, 502 eta 504.
474. B *Endone;* ik. 472.
476. B *Endone;* ik. 472.
477. B *Sampedro;* orobat 505.
478. B *Sampablo;* orobat 506.
480. B *paradisuku;* orobat 508; cf., halere, 360.
485. *Espirituala*: *Espiritualari* espero genuke, *gucier*-ekin koordinaturik dagoelako, ik. § 4.4.2.; orobat 512.
486. O *Ceren gatic*: B *Zerengatik;* ik. 21.

[490] Pensamentuz,
Izez,
Obraz,
Nore faltaz,
Nore faltaz,
[495] Nore faltandiz;
Carengatic
Nago otoyez
Andre Dona Maria
Betiere Virginari,
[6g] [500] En Done Micle
Arcainguari,
En Done Juane
Bautistari,
En Done Petro
[505] San Pedro,
San Pablo,
Apostol gucier
Eta paradisucu
Saintu eta sainta
[510] Gucier,
Eta gore ayta
Espirituala,
Izan daquigun
Otoy eguile,
[515] Oray eta
Gore ilordian.
Amen. Jesus.

Aylatu dela,
Alabatu dela
[520] Sacramentu
Santia,
Ama Berginari
Concepcione Saintia,
Zoin izan beycen
[525] Concebituric
Becatu Originalec bague
Achicionaren istantean.
Amen. Jesus.

[7a]	x	empleetra -..
		zeñetan -
		zeñeta -
		santigueta -
[5E]		egitea +
		minzetan -
		erraiten ø
		parketan -
		sinestan
[10E]	x	sinestian
		juzguetra -
	x	kobenietan
	x	erdietan
		zerretan -
[15E]		baretan -
		manetan -
		erasukitia +
		emoitia +
		correjitia +
[20E]		parketa -
		konsoleta -
		eramaitia +
		bisiteta -
		emoitea +
[25E]		reskateta -
		beztitia +
	x	onrtia
		konfesetan -
		Prières
[30E]		sinesten
		sinechetan
		juzguetra
		kombietan
		zerretan
[35E]		baratan
		erdietan
		salbatia
		erachukitia
		emoitia
[40E]		korejitia
		parketa
		konsoleta
		eramaitia
		egitia
[45E]		bisiteta
		reskateta
		onrzeta
		beztitia
		konfesetanuzu
[50E]		mandatan

496. B *karen gatik;* cf. 21 eta 120.
498. O *Andre Donamaria:* B *Andredona Maria;* ik. 470.
500. B *Endone;* ik. 472.
502. B *Endone;* ik. 472 // *Juane;* O *J-* zerbaiten gainean (*Y-?*).
504. B *Endone;* ik. 472.
505. B *Sampedro;* ik. 477.
506. B *Sampablo;* ik. 478.
508. *paradisucu:* ik. 480.
516. B *il ordian;* ik. 122.
518. O *Ay la tu:* B *Ailatu.*
526. *Originalec: Originalic* espero genuke, partitiboari dagokion legez, ik. § 4.3.1.

[7g] Mélange d'Urzainqui et de Vidangoz:
donc:
Roncal
(consoleta)

4. Irazkina [20bis]

4.1. *Grafiak*

4.1.1. DU-k baliatzen duen grafi-sistema, oro har, ez dago urrunegi euskal testu zaharretan usuenik antzeman daitekeen sistematik. Alabaina, zenbait berezitasun eta arazo agertzen ditu, batik bat —eta hau ere aski arrunta da— txistukarien transkribapenari dagokionean.

Bokalen grafiek ez dute buruhauste handirik sortzen. Horrela, < y > grafema diptongo baten bigarren osagai gisa azaldu ohi da, irristari gisa alegia, baina ez beti: *leina* (35)[21] / *leyna* (237), *baitugu* (99) / *baytugu* (487), *Joangueico* (107) / *Joangueyco* (231), etab. Behin diptongo baten lehen osagaia islada dezake: *dyona* (14); eta kasu bakan batzutan bokala adierazten du: *Espirytu* (304), *Virginary* (471). Azkenik, < y > grafema [y] kontsonantearen transkribapena ere bada, bokal arteko *-i*-ren ondorioa: *zraya* (2), *esayetatic* (41), *deyez* (193), *ayenez* (197), *seyac* (246), *otoyez* (497). Hauetako zenbaitetan kontsonante sudurkaritua izan liteke (ik. beherago 64. oharra): *christiayaren* (5), *altescoyecualtian* (164). Izan ere, E-k gordetzen zituen bokal sudurkariek[22] ez

(20bis) Artikulu hau inprimategian zegoela, Koldo Zuazoren «Zubereraren Sailkapenerako» (*ASJU* XXIII-2, 1989, 609-650) lan baitezpadakoa agertu da. Bertan, baina zubereratik abiatuta, ondorengo orrialdeetan ukitu hainbat puntu aipatzen eta egoki aztertzen dira, erronkarierari buruzko ikuspegi osoago eta aberatsagoa erdiesteko ezinbestekoa gertatuz.

(21) Adibideen lehen agerraldia soilik aipatzen dut; gainerako agerraldietarako, jo bedi hiztegira.

(22) Hizkera guztiek ez zituzten bokal sudurkariak neurri berean gorde: «He notado que en Bidangoz abundaba más este fenómeno fonético que en Uztarroz, a pesar de estar esta localidad más en contacto con el dialecto suletino, en que hay también no pocos vocablos nasalizados» (*Part,* 212, 1. oh.). Mitxelenak Azkueren aurreko pasartea aipatu ondoren, honako hau dio: «Y, según observaciones propias, son mucho más abundantes en Uztárroz que en Isaba...» (*Pos,* 276). Guzti honen arabera —damurik ez dugu Urzainkiko azpieuskalkiari buruzko datu zehatzik— Bidankozen izango genuke bokal sudurkarien maiztasun handiena, bigarrenik Uztarrozen eta, azkenik, Izaban. Halere, oharteman bekio aldatu bi pasarteok hogei bat urteko aldea durela eta tarte horretan Bidankozeko hizkera desagertu eta erronkarierak, oro har, egundoko arzerapena jasan zuela, Izaban hagitzez nabariagoa izan zena. Lekukotasun berrixeagoetara joz gero, Izagirrek (1959: 281) espreski esaten du ez dela bokal sudurkariak igertzeaz arduratu. Bestalde, Artolak (1977, 1980) bildu datuetan, ez da bokal sudurkaririk agertzen, baten bat isuri ezean. Orobat, 1988ko abuztuan Uztarrozeko Fidela Bernatekin izan nuen elkarrizketan ere ez nion bokal sudurkaririk antzeman; peiturasun hau, jakina, sudurkaritasun ezari bezainbat inkestatzaile honen belarri gogorrari edota fonologi sistema ezberdinari egotz lekieke.

dute, antza, isladapen zuzenik testu honen grafi-sisteman. Nolanahi izanik, pentsatzekoa da zenbait kasutan < n >-k ez ote duen aurreko bokalaren edo diptongoaren sudurkaritasuna adierazten[23]: honela, *christiain* (2), *escoinnecoara* (64-65) eta ziurragoa dirudien *orntia* (445) / *orci* (151). Bistan denez, hitz guztiotan azaltzen zaizkigu bai *n*-dun bai *n* gabeko formak ere. Zalantzazkoa deritzot, ordea *onriari* (232) hitzaren *o*-ren sudurkaritasunari. Azkuek *õre* dakar («(R-uzt), honor, honra, *honneur*. [...] (R-bid), honras fúnebres, *honneurs funèbres*.» *s.u.*), baina E-zko testuen lekukotasunek ez dute ebakera horren erakusgarririk eskaintzen[24].

4.1.2. Herskarien grafiak oro har ohizko sistema zaharrari atxikitzen zaizkio. Guztiarekin ere, [k]-ren agerpenari bagagozkio, aipatzekoa da hitz hasieran darabilen < ch > grafema kultista: *christiain* (2) / *cristiaya* (9), *Christoren* (10) / *Cristoren* (11). Gainerakoetan oso arrunta da: *nontic* (6), *ecun* (6), *cruche* (20), *icasi* (27), *Jeinarequi* (38-39), *ezquerreco* (63), *andiqui* (489), etab. [g]-ren kasuan < g > eta < gu >-ren arteko ohizko banakuntza agertzen da: *graciaz* (4), *gore* (7), *Jeinaganic* (7-8), *figura* (24), *dugu* (26), *grelaric* (37), etab. alde batetik eta *Juangueico* (3), *guizona* (10), *eguitea* (33), etab. bestetik. O-ren salbuespen bakanak zuzendu egin dira edizio honetan: *Joang[u]eyco* (295, 469) eta *g[u]izon* (317). *Santigueta* (31) hitzak zalantza sortarazten du beraren ebakera dela eta. *Santiguatu*-ren aditz izena denez gero, zail da antzematen grafiaren arabera [ge] ala [gue] ulertu behar dugun; honetaz, gainerako testuen lekukotasunek, gainera, ez digute ezertan ere laguntzen: Er*Dot* Hual*Dot* E*Dot santiguatia*, A *santigeta* (baina ziuraski O-ren grafian oinarriturik).

4.1.3. Arestian ohartu legez, erronkarieraz [x] igurzkari belarea bi motatako hitzetan[25] ager daiteke: mailegu berrietan —izen propioak barne— eta liturgiarekin zerikusirik duten hitzetan. *DU*-n *e* eta *i* bokalen aurrean < g > grafemak adierazi ohi du delako hots *arabigoa*[26]: *baigeina* (3), *birginaleco* (114), *Berginaganic* (144), *birgen*

(23) Hauxe da, izan ere, erronkariarrek berek zenbait bokalen sudurkaritasuna irudikatzeko maiz erabili duten metodoa. Testuen berrikusketa arina egiten badugu, metodo beronetaz baliatzen bide dira Er*Dot*, Gar*0* eta Gar*02* deitu ditudanak behinik behin. Hual*Dot* eta Hual*Eb*-ek, aldiz, gainean puntu bat duen *n* darabilte (< ṅ >), geroago Bonapartek (ik. Astete, 1869) < Ṽ > ohizko diakritikoaren truke aldatuko duena. Mendigacha bidankoztarrak < n > erabiltzen du, noizik behin txikiagoa eta altuxeago ezarria agertzen delarik ere: < ⁿ > (Irigoienen (1957) edizioaren datuen gainean ari naiz, ez baitut Mendigacharen gutunak ikusterik izan). Zenbaitetan Mendigachak «nasal» dioen ohar bat eransten du hitzen gainean. Halaber, Azkueri idatzitako bederatzigarren gutunean —betiere Irigoienen arabera— 1903ko urriaren 29ko data duen hartan alegia, honako hau oharterazten dio: «Ene gein ona: Albertencia bat biardaud egin obeki ssakintzan, itz anisstan, nea, pronunciatadigu sudurrez letra isaribage, cainnola, *ai*ⁿ*tza* (cabra), *artzai*ⁿ*a* (pastor), *lú*ⁿ (lino) eta berze anich; escribitandaudan aldioroz zomait itz sitenbada edo sitenbarimada isarendud antzineko itzetan bikala» (Irigoien 1957: 128). Antza denez, asmo horretaz aldizka baino ez zen oroitu, geroko gutunetan bi motatako *n*-ak —arrunta eta txikiagoa— eta ohardun zein gabea txandakatu baitzituen.

(24) Cf. Gar *0 onriari*, E *Dot onre, onriari*, Hual*Dot honriari*, Hual*Eb* (*h*)*onreric*. Bistan denez, adibideotan ez dira ageri Hualderen < ṅ > eta Bonaparteren < Ṽ >, bokal sudurkariak adierazteko erabiltzen dituzten grafemak alegia (ik. aurreko oharra).

(25) Cf. «Y así como en Bizkaya los que pronunciamos esos vocablos con *dx-dxan, dxo, dxokatu* hacemos, por lo general, una excepción con las palabras *jaun, jaungoikoa* y nombres propios como *Juan* y *José*, así les [sic] roncaleses dicen *jeina* por señor y *Jangeikoa*, con dos o tres variantes, por *Xaungoikoa*, además de *Juan, José* etc.» (*Part*, 220); cf., halaber, «Aparte de préstamos recientes como *justo* (A Sal. *justo*), *j* (= esp. *j*) aparece en *jein, jin*, "señor", *Jangeikua*, etc. "Dios", A Sal. *jaun Jaungoikoa*, S *jaun, Jínko*. El mismo hecho se da en condiciones análogas en las mismas palabras por lo menos en vizc.» (*Pos*, 286). Ohar bedi bi autoreok aipatzen dutela ezaugarri hau bizkaieraz ere gertatzen dela (cf. *FHV*, 170-173).

(26) «Invasión arábiga» deitzen dio Azkuek (*Part*, 220) —eta ez da bakarra— [x]-ren hedakuntza honi. Gaiari buruzko XVIII. mendeaz geroztiko aipamenak Blanca Urgellek (1987: 369 hh) bildu ditu.

(216), *corregitia* (413), *aflegidadez* (420), *virginary* (471), *originalec* (526). Halere, beti irakurtzen ditugu *Jesus* (70) eta *Jesu Christo* (7), ziuraski grafia etimologikoak direlako; era berean, *Jein-* / *Gein-* formak aldizkatzen dira, baina hagitzez ere sarriago agertzen < j >-dunak (ik. hiztegia), beharbada *Joangueico* etab.-en ondoan usu joateak eragin dezakeen analogiagatik. Hauez gain, < j > grafema [x]-ren transkribapena da mailegu berri hauetan: *juicioco* (167), *juzguetra* (170), *juramento* (243), *lujuriazco* (254), *consejo* (409), *injurien* (415).

4.1.4. Eta honenbestez atalaren auzi korapilatsuenera iritsi gara, txistukarien grafietara alegia. Lau puntutan banatu dut hauen aztertzea:

a.- igurzkari eta afrikatuak grafietan ez bereiztea
b.- [š] sabaiko igurzkariaren grafiak
c.- *s* / *z* nahasketak
d.- zenbait salbuespen.

a.- Testu honen grafi-sistemak euskal txistukarien hiru sailak ezberdintzen ditu, hau da, /ś/ eta /tś/ apikariak, /s/ eta /ts/ bizkarkariak eta /ś/ eta /tś/ sabaikoak. Haatik, lehenbiziko bi sailetan igurzkariak eta afrikatuak ez ditu beren artean bereizten; salbuespenak salbuespen, grafema bakarra dago /ś/ eta /tś/ adierazteko (< s >) eta bi grafema /s/ nahiz /ts/-rako (< c > *e*, *i* aurrean eta < z > gainerako testuingurueta n)[27]. Bokal artean eta hitz azkenean nahikoa erraza da hots afrikatu baten aurrean gaudenentz jakitea, erronkarierazko beste testuetako lekukotasunez eta, hauek peitu direnean, Bonapartek eta bestek *in situ* jasotako datuez baliatzen bagara, hain zuzen. Txistukari afrikatuak genituzke ondoko hitzotan: *esayetatic* (41), *guizazu* (41), *iz* (51), *bioceara* (62-63), *eiz* (101), *ciza[la]* (107), *bicicen* (181), *uzul* (203), *erasucu* (208), *oneresi* (240), *ebas* (258), *bedrazugarna* (264), *sines* (293), *sausi* (334) eta *izez* (491)[28].

(27) Halako egoera bat aurkezten du Sarasolak (1983: 97) XVI eta XVII. mendeetako hegoaldeko euskal testuei dagokienean: «Respecto a sibilantes y sonidos relacionados con ellos, son conocidos los problemas que tenían los escritores vascos meridionales para representar diferenciadamente las series que en ortografía moderna se transcriben por *s, z, x, ts, tz, tx*. La práctica general era no diferenciar africadas y fricativas en las series no palatales (la única excepción, si dejamos a un lado los textos navarros, parece ser justamente un italiano, Landucci, que emplea *sc* para ambas africadas), emplear *ch* para la palatal africada, *y x, j, g*.... según autores y momentos, para la fricativa correspondiente.» Dena den, ezagun zaizkigu adibide berriagoak ere; esaterako, eta oso urrutira joan gabe, Zar*Dot2*, Zar1780, Gar*0*, Gar*02* eta Bonapartek Echeniqueri aipatu Otsagiko dotrina hura (ik. § 1.1.), besteren artean.

(28) Cf. Er*Dot echai*, *Cuest*Uzt *etsai*; Er*Dot guichazula* / *guizazu*, Hual*Dot guitzazu*, E*Dot guitzazula*, Hual*Eb gui(t)zazu*, Gèze *gitzátzün* (Gèze-ren adibideetan ortografia moldatu dut); Er*Dot ibz*, Gar*0 ichez*, Hual*Dot (h)itz*, E*Dot itz*; Er*Dot biochaz, viocha*, Gar*02 bioz*, Hual*Dot* Hual*Eb biotza*, E*Dot biotzaren*, *Cuest*Bid *biotz*, *Contr*Iz *biótz* (bi silaba), *Contr*Uzt *bigótza*; Er*Dot eicz leizu*, Hual*Dot* E*Dot* Mdg *eitz*, Hual*Eb ei(t)z*, *Contr*Iz *útzu*, *Pos*IzUzt *útzu*; Gar*0 citala* (*-a-*?), Hual*Dot* E*Dot citzala*, Zar*Dot* Ae*Dot citzala*; Gar*0 bicecce*, Zar*Dot2 vizize, viziche*; Gar*02 uzuli*, Hual*Dot* E*Dot* Hual*Eb utzul*; Er*Dot erasuquten*, Gar*0 erachuqui*, Hual *Dot eracutstia*, E*Dot eratsuquitia*, Hual*Eb eracutsi*, Mdg *eratsukitan*, *Cuest*Bid *eratsuki*; Er*Dot onerechi* / *oneresi*, Gar*0 onerechi*, Gar*02 (h)oneresi, honoresi*; Er*Dot ebachs, evachs* / *ebaschi*, Gar*0 evas*, Hual*Dot ebatstia*, E*Dot ebastia*, Hual*Eb ebats*, *Cuest*Bid *ebatsi*; Er*Dot medrachu*, Gar*0 bedrazu*, Hual*Dot* E*Dot bedratzugarna*, Mdg *bedratzu*, *Cuest*Bid *bedratzu*, *Contr*IzUzt *bedrátzu*, Zar*Dot bedratcigarna*, Ae*Dot bedratcigarrena*; Er*Dot sines, sinestan, sinechi, sineshi*, Gar*0 sines*, Hual*Dot ssinetstia, ssinestan*, E*Dot ssinestia, ssinestan*, Hual*Eb ssinetsi*, Mdg *ssinets*, Zar1780 Zar*Dot* Zar*Dot2 ginesten*; Er*Dot ssachi*, Gar*0 sanuchi* / *sausi*, Hual*Dot* E*Dot* Mdg *ssachi*, Hual*Eb ssachiz*, *Cuest*Bid *s̃atsi*, *s̃achi* (??), cf. halaber Zar*Dot sauntsi*, Zar*Dot2 saus(s)i*, Ae *Dot sautsi*, Gèze *jaits, jatsi*. Zilegi izan bekit zerrenda luze honetakoez ohar pare bat egitea. Lehenengo eta behin, badirudi Er*Dot*-ek nolabaiteko joera duela gaurko < ts >, < tz > eta < tx >, hirurak, < ch >-ren bidez agertzeko; bigarrenik, susma liteke Hualde Mayoren *eracutstia*,

Gaitzagoa da, ordea, *n*, *l*, *r*-ren ondoan doazen txistukariak igurzkariak ala afrikatuak ditugun zehaztea. Izan ere, kontsonante horien osteko txistukarien grafietan igurzkariak eta afrikatuak ez bereiztea usadio hagitzez zabalagoa baita gainerako testuinguruetan baino. Hurrengo atal baterako uzten ditut kasu bakoitzaren xehetasunak (ik. § 4.2.2.6.) eta oraingoan igurzkaritzat eta afrikatutzat hartu ditudanen zerrenda ematera mugatuko naiz:

— Igurzkariak: Agi denez, E-z mailegu berriek igurzkaria gorde dute (ik. *Pos*, 293); hala izanez gero: *pensamentu* (46-47), *concebituric* (138), *esperanza* (190), *dulce* (215), *falsoric* (243), *consejo* (409), *consoleta* (417), *pacienciaz* (422), *encarcelatier* (428) eta *concepcione* (523). Talde honetatik landa beste honako hitz hauek ditugu, ene eritziz igurzkariduntzat jo behar direnak: *orci* (151), *berce* (234), *borzgarna* (251), *ontarzunic* (269) eta, zalantzagarriagoa, *borz* (371)[29]. Halaber, igurzkaritzat hartu behar ditugu *hai(t)*, *hei(t)*- atzizkien eta *z*-z hasitako adizki baten elkartzetik sortzen diren hotsak: *beicen* (137), *beycien* (361), *ezpaycien* (366) (ik. § 4.2.2.7.).

— Afrikatuak: *mincetan* (37), *zorcigarna* (259) eta *enzun* (378)[30].

b.- Sabaiko igurkaria ([š]) bi grafema ezberdinen bidez erakusten da: < j > eta < s >. Lehenbizikoa, [x]-rako ere erabiltzen dena, oso gutxitan agertzen da[31]: *jasseriric* (161), *nejarrez* (198) eta *nejarrezco* (200)[32]. Bigarrenak, ordea, maizago agertzeaz gain, zalantza franko ere sortarazten du, isladatzen duen hotsa zein den zehaztuko badugu; dagoeneko ikusi dugunez, [ś] eta [tś] adierazteko ere balio baitu. Zenbait adibidetan argi samarra dirudi sabaikoa dugula: *gaisto* (47), *sin* (88), *seyac* (246), *prosimo* (280), *saceriric* (350), *gastoer* (363) eta *satra* (432)[33]. Dudazkoa da, ene ustez, *sinestan* (125), apikarien eta sabaikoaren grafiak bereizten dituzten testuetan ere bien lekukotasuna idoro baitezakegu[34]. Diodan, azkenik, sabaikoaren < s > grafema hau erronkarieraren eremutik landa ere ezagun dela hain zahar ez diren zenbait testutan, esaterako ZarDot2 eta Zar1780-n.

---

ebatstia eta ssinetstia erakoak —geroago Bonapartek E*Dot*-en aldatuak— grafia etimologiko edo kultistak besterik ez direla (cf. Axularren, Leizarragaren eta, bereziki, Larramendiz geroztiko *hitzkuntza*, *hitztegi*, etab.); alabaina Mdg-ek ere badarabil horrelakorik noiz edo noiz: *ssinetstan*, *mochtan*.

(29) Cf. Er*Dot* *orci*, Gar0 *onrzi*, Hual*Dot* *onrcic*, E*Dot* *õrci*, Mdg *onrzirik*, *Cuest*Bid *õrzi* (lehenago *ortzi* tatxatua); Er*Dot* *verce*, Gar0 *bercen*, Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot* *berce*, Mdg *berze*, *Cuest*Bid *berze* eta «*beste* en Roncal y en U.[ztarroz]; *bertze* por todas partes», *Part*Bid *berze*, *Pos*IzUzt *béste*, ArtIz *beste*, *bezte*, ArtUzt *beste*, *ka(i)nbeste*; Er*Dot* *vorzgarren*, Gar0 Hual*Dot* E*Dot* *borzgarna*; Gar0 *borc*, Hual*Dot* E*Dot* Mdg *borz*, *Cuest*Bid *bor(t)z*, *Cuest*Er *bortz*, *Contr*Iz *bóst*, *Contr*Uzt *borz*, *Pos*BidUztZar *borz*, *Pos*Iz *bost*, Ae*Dot* *bortz*, Zar*Dot* Zar*Dot2* *borz*; cf. halaber *FHV*, 361-365.

(30) Cf. Hual*Dot* E*Dot* Hual*Eb* Mdg *mintzatan*, *EI*Urz *mintzoa*; Er*Dot* *zorcigarren*, Gar0 *zorcigarna*, Hual*Dot* *zortzigarna*, E*Dot* *zortcigarna*, Mdg *zortzi*, *Cuest*Bid *zortzi*; Er*Dot* *enchun*, Gar0 *enzun*, *enchun*, Hual*Dot* E*Dot* *entzutia*, Hual*Eb* *Cuest*Bid *entzun*.

(31) Euskaraz [š]-rako erabili diren grafiez, ik. Mitxelena (1987 [1978b]: 391-395).

(32) Cf. Er*Dot* Gar0 *saseriric*, Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot* *ssaseriric*, Mdg *ssaseri* (eta Uztarrozekotzat *ssas* ematen du), *Cuest*Bid *s̃aseri*, *EI*Urz *xar*, *Part* *xas*, *xaseri*; Gar0 *nejar[r]ez*, *nejarrezco*, Hual*Dot* *nessarrez*, E*Dot* *nessarrezco*, Hual*Eb* *nessar*, Mdg *nessarrez*, *Cuest*Bid *nes̃ar egin*.

(33) Cf. Er*Dot* *gassto*, *gasto*, Gar0 *gastuer*, Gar02 *gaystoac*, Hual*Dot* *gaisstuer*, *gaichtuetaric*, E*Dot* *gasstuer*, *gasstuetaric*, Hual*Eb* *gasstorequin*, *gasstuen*, *gassto*, Mdg *gassto*, *gasto*, *Cuest*Bid *gais̃to*, *Contr*Iz *gáizto*, alabaina Izag ez dago ziur *gáisto* ala *gáixto* entzun zuen; Er*Dot* *ssin*, *sin*, Gar0 *sinen*, Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot* *ssin*, *Cuest*Bid *s̃in*, *EI*UrzUzt *xin*; Er*Dot* *sey*, Gar0 *seyac*, Hual*Dot* *ssei*, E*Dot* *sseyen*, *EI*UrzUzt *xeian*, *EI*Urz *xeietik*, *EI*Uzt *xeitik*, Gèze *jei*; Gar0 *prosimo*, baina Gar02 *progimo*; Hual*Dot* E*Dot* Hual*Eb* *projimua*; *saceriric*-erako ik. aurreko oharra; Gar0 Hual*Dot* E*Dot* *ssatra*, *Cuest*Bid *s̃an*.

(34) *Sinestan*-erako ik. 28. oh. Azkuek biak dakartza: *sinetsi* (AN-b, L, R) eta *s̃inetsi* (BN-s: eaur, R).

c.- Gutxitan izanagatik, *s* / *z* nahasketa batzurekin egiten dugu topo, ekialdeko euskalkietan ohizkoak ez diren tokietan ere, hau da, bokal artean eta hitz hasieran: *guisas* (26), *zaspietaco* (292) eta *sazpigarna* (423), batetik, eta *saceriric* (350) / *jasseriric* (161) eta *aflegidadez* (420), bestetik. Azken hitz honek gaztelerazko plural marka darama (cf. *flaquezas* (421))[35].

d.- Laugarren puntu honetan salbuespen batzu eta behin bakarrik azaltzen diren grafiak sartu ditut. Salbuespenak *e*-ren aurreko zenbait < z > dira: *zerretan* (273) eta *izez* (491). Banaka azalduriko grafiak, berriz, honako hauek dira:

— < sc > ([tś]): *sausci* (152) / *sausi* (334). Hauxe da, nonbait, testu guztian afrikatu bat markatzeko egiten den saio bakarra.

— < ss > ([ś]): *jasseriric* (161) / *saceriric* (35) (ik. 32. oharra) eta *Clementissima* (213), argi eta garbi grafia etimologikoa.

— < ç > ([s]): *achiça* (388). Honen erabileran datza, hain zuzen, grafietan *DU*-k eta Gar0-k duten alde handiena (ik. § 1.4.), irregulartasuna gorabehera. Izan ere, lehenbizikoan behin bakarrik agertzen den < ç > oso ugaria da Gardeko otoitz bilduman, sarri < ç > barik < c > azaltzen delarik *e* eta *i*-z beste bokalen aurrean. Honek testuaren antzinatasunaren froga da ala egilearen arduragabetasun hutsa adierazten digu? Esan behar da honelako grafiak aski arruntak direla, izan, Nafarroako testu zaharretan (ik. esaterako *ConTAV* 5.2.10.); baina zail idorotzen ditugu XIX.ekoetan.

4.1.5. Sudurkarien grafiez gutxi da markagarri. Testu zaharretan ohi denez, < mp > eta < mb > darabiltza: *nombre* (5), *empleetra* (17), etab. Salbuespen bakarra *linbuetra* (335) da. Noiz edo behin, eta ia beti orrialde berean (2g-n alegia) < nn > digrama dugu: *Geinnac* (45, 50, 55-56), *soinneara* (63-64), *escoinnecoara* (64-65), *Jeinnarequi* (66), *Jeinnearnan* (69-70), eta *Jeinna* (238). Grafia honen zergatia —zergatirik baldin badu— ezin hauteman dezaket. Ez du, jakina, [ɲ] adierazten, ezta aurreko bokalaren sudurkaritasunik ere; kasu guztietan *i*-z bukaturiko diptongo baten atzean eta morfema azkenean egon arren, azken azalpen hau *escoinnecoara*-ren kasuan bakarrik deritzot onargarri. Bestalde, 2-g orrialdean bertan < n > soilaren adibiderik ez da falta: *Trinitate* (66), *icenean* (68). Zaila da pentsatzea, beraz, egile ezberdin batetaz (idazkeraren arazoa alde batera utzirik), ezta usadioaren bapateko aldaketa batez ere.

Sabaikorako < ñ > darabil: *señalea* (18-19), *ceñetan* (27), *siñen* (166) / *sinen* (356), *ñor* (252), *ñori* (260). Aitzitik, E-zko testuetan < ñ > agertu ohi den hitz batean < n > agertzen da: *nore* (493)[36].

4.1.6. Dardarkariei bagagozkie, *DU*-ren grafiek ez digute ezertan ere laguntzen morfema azkeneko zenbait < r >, geldiune baten edo kontsonantez hasitako atzizki baten aurrean doazelarik, [r]-ri ala [r̄]-ri dagozkion antzeman nahi badugu: *cer* (9), *irur* (33), *poder* (128), *barur* (392). Izan ere, aski ezaguna da E-k, gainerako euskal-

(35) Hitz hau agertzen den perpaus osoaren irazkinerako, ik. beherago § 4.4.2.

(36) Cf. Gar0 *y(ñ)ore*, Gar02 *ñauren*, *ñore*, Hual*Dot* Mdg *Cuest*Bid *ñore*, baina *Cuest*Urz *nore*.

kiek ez bezala, ez duela aipatu testuinguruetan neutralizaziorik egiten[37]. Nolanahi ere den, E-zko testuek oso gutxitan adierazten dute ahoskera berezi hau[38].

4.2. *Fonetika-fonologia*[39]

4.2.1. *Bokalak*

4.2.1.1. Testuak eragozpen franko aurkezten du E-ren bokal-sistema ezaguna ezartzeko, hau da, bost bokal ahokari eta bost sudurkari. Bokal sudurkaririk izatekotan, testuan ez dute grafia berezirik agertzen eta < n >-ren bidez marka litezkeenak urriak dira oso (ik. § 4.1.1.).

Bokalak aski iraunkorrak dira E-z. Alabaina, bokal txandakatzerik ez da falta. Testuan azaldu *Ama Berginaganic* (144) / *birgen* (216), *virginari* (499) hitzetako *e* : *i* txandakatzea orokorra bide zen E-z, Hualde Mayok ohar batean adierazi zuenez: «Por todos sin escepcion se dice *Ama Vergina*; y cuando no le precede el *Ama*, *Virgen*, *Virgina*» (Hual*Dot*, 19). Halaber, *o* : *u* bokalen txandakatzea kausi daiteke E-zko testuetan, are hizkera baten barnean ere: *irorac* (230) / *irur* (33), *irorgarna* (36) / *irurgarna* (299). Euskalki hau aztertu dutenek jasotako datuak ez datoz bat auzi honetan[40]. Beharbada, bi formak (*iror*, *irur*) erabiliko ziren hizkera guztietan edo gehienetan eta hiztunen kopuruak beherakada nabarmena izan zuenetik (zuelako?) bakarrik, mende honen hasieratik gutxi gorabehera, desagertuko zen hautabide haietako bat bizirik geratzen zen hizkera bakoitzean.

Ez dirudi *gore* (7), *zore* (87), *nore* (493) eta enparatuak aurreko hitzen maila berean jarri behar direnik. Kasu hauetan gertatu bilakabidea, *o* : *u* txandakatzea barik, *eu* diptongoaren murrizketa baitugu, beherago (§ 4.2.1.4.) ikusiko denez. Bestalde, E *u* (Z *ü*) : orok. *e*, *i* txandakatzea ere badago, baina bertan bilakabide ezberdinak nahasi dira. Lehenik, *cerbuchu* (16) eta *eburnico* (364)[41] hitzetan *i* > *u* alboko ezpainkariaren eraginez gertatzen da (ik. *Pos*, 277).

(37) Hualde Mayok Ebanjelioaren itzulpenari egindako gibel-ohar batean (*Advertencia*) honako hau adierazten du, besteak beste: «Aunque parezca superfluo, me permito anotar, que las palabras que terminan en *r*, por regla general tienen el sonido de *r*. fuerte ó de dos *rr*: las escepciones relativam^te^. son pocas, como por egemplo tienen el sonido de *r*. suave; *caur*, esto; *ur*, la agua; *iror*, *laur*; los verbos de presente, preterito perfecto y futro [sic] imperfecto en sus primeras personas del singular, como *ecustandur*, *ecusidur*, *ecusendur* &&» Mitxelena hasiera batean (*Contr*, 249, 264) *-r* /*-r̄* bereizketaz ohartu ez bazen eta neutralizazioaz mintzatzen bazen ere, geroago aintzat hartzen du (*FHV*, 334) eta lehengo okerraren zergatiaz jabetu: «Jakina nik artean entzun uste nuenak bazuen bere arrazoia, arrazoi makurra halere: ni naiz, eta nere ingurukoak dira, *zenbat ur* ? eta *zenbat hur* ? berdin ebakitzen ditugunak, ez izabar haiek» (1988 [1983]: 338).

(38) Badirudi, baina, Bonapartek *r*-ren ahoskera zehatza jaso nahi izan zuela Aitagurearen Bidankozeko bertsio batean honako hauek idatzi zituenean (< ṡ > = gaurko < x >): *santifikatrruk*, *rreinua*, *zorr deiner*, *erortrra*; baina *parka*, *parkatan*. Aitagure honen eskuizkribua Bizkaiko Diputazioaren Bibliotekako «Fondo Bonaparte»-n Bv-28 signaturapean gordetzen da (ik. González Echegaray 1984: 54). Halaber, *El*-ko datuetan *r*-ren ebakera zehatza jasotzeko ahaleginak egin zirela ematen du: *El*Uzt *biarr*, *egorr*, *tzakurr*, *El*UrzUzt *indarr*, etab.

(39) E-ren ezaugarri orokorretarako, Mitxelenaren «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal» (1954) da, dudarik gabe, euskalki horretaz idatzi den lan osoena. Artikulu egoki eta bikain horretako eskemari atxiki natzaio, ahal izan dudan heinean, *DU*-ren azterketan. Aldi berean, *DU*-k eskaini datuek Mitxelenaren baieztapen batzu berresteko, osatzeko edo errefusatzeko parada eman didate.

(40) Cf. Er*Dot* *iror*, *irorgarren*, Gar*O* *yrurgarna*, Gar*O2* *irur*, Hual*Dot* E*Dot* *irur*, *irurgarna*, Hual*Eb* Mdg *iror*, *irur*, *Cuest*Bid *irur*, *irurgarren*, *Cuest*Uzt *iror*, *irorgarren*, *Part*Bid *iror*, *Part*Uzt *irur* (cf., halaber, *Part*, 219), *Contr*IzUzt *iror*, ArtIz *iror*, *irur*, *urur* (birritan).

(41) Cf. Hual*Dot* *cerbuchu*, E*Dot* *cervuchu*, Hual*Eb* *cerbucha*, Gèze *zerbütxari*, Ae*Dot* Zar*Dot* *cervichu*, BN L *zerbitzu*, GN, G, B *serbitzu* (*ts* > *tš* aldaketarako, cf. *FHV*, 287); Er*Dot* *eburnico*, *eburneara*, *evurniara*, Gar*O* Hual*Eb* *iburnico*, Gar*O2* *iburneaz*, Hual*Dot* E*Dot* *Cuest*Bid *iburni*, *Cuest*ErUrzUzt *eburni*, IzagIz *ebúrniko*, F.B. *ebúrniara*, Gèze *ifernü*, Ae*Dot* Zar*Dot* *ifernu*.

Azken hitz honen *-u* > *-i* aldaketa Mitxelenak (*Pos*, 277), aipatu ez arren, badirudi *-ua* / *-ia* hitz amaieren nahasketaren ondorio bezala azaltzen duela. Halere, beste bide bat dakusat: lehenik **ibernu* > *iburne* metatesia gertatu eta geroago *-ea* / *-ia* amaieren nahasketa (cf. *FHV*, 129-130). Zernahi gisaz, E-zko testuen kronologia zehatza izan arte ez dago ondorio ziurrik idokitzerik.

Bestelakoa dateke *decuma* (394)[42] hitzaren nondik-norakoa. Arazo honi dagokiolarik, Mitxelenaren eritzia aski aldakorra da: hasiera batean (*Pos*, 277) *u* dagoeneko jatorrizko forma erromanikoan aurkitzen zela uste bazuen ere (ohar bedi latinez *dĕčĭma* eta *dĕcuma* aldaerak daudela[43]), geroago (*FHV*, 78) *m* ezpainkariaren eraginez sortua dela pentsatzea hobesten du eta azkenik (1987 [1974]: 201), nik dakidala bederen, eszeptiko samar azaltzen da, *u* jatorrizkoan dagoen ala euskararen bilakaera baten ondorio den ziurtatzerik ez dagoela esaten baitu.

Amaitzeko, *bedrazugarna* (264)[44] aipatu beharra dago. Bokal ezpainkari honen zioa bilatzerakoan, oraingoan ere Mitxelenaren lanetan eritzi ezberdinak aurki daitezke. Lehenbiziko ustearen arabera (*Pos*, 277-278), **bederatzu* zatekeen zenbakiaren forma zaharra, eta gainerako euskalki gehienetako *bederatzi* eta tankerakoak *zazpi* eta *zortzi*-rekin analogiaz sortuak ziratekeen, latinez ere gertatu bide zen bezalatsu. Geroago (*FHV*, 131) E *-u* (eta Z *-ü*) hitz azkeneko *-u* + *a* (*-ü* + *a*) / *-i* + *a* nahasketaren ondoriotzat hartzen du, *iburni*-ren kasuan bezalaxe, alegia.

4.2.1.2. E-ren ezaugarri nabarmenetariko bat *i*, *u* bokalen asimilazio bilakabideak dira. Z-z ere kausitzen ditugun arren[45], erronkarieraz hedadura eta maiztasun hagitzez ere handiagoa hartzen dute. Asimilazio atzekariaren (*i-u* > *u-u*) adibideak urri dira testuan: *zunien* (6), *baygutien* (25) —ik. beherago § 4.2.1.5.— eta *uzul* (203)[46]. Hauekin batera sar daitezke, nahiz eta jatorriz *e-u* izan, *arcanguari* (473) eta *arcainguari* (501) (< lat. *archangĕlum*)[47]. Tarteko egoera batetik iragan ondoren (cf. Ae Baztan *aingiru*), E-z *ainguru* eta *aingru* formak ere jaso direlarik[48], *-r*-ren erorketa, nik uste, bi bidetatik azal daiteke:

a.- *-gu(r)u* > *-gu*: bokalarteko *-r*-ren galeraren alde *egunozco* (96) bezalako formak dakartzakegu. Nola edo hala, esan beharra dago euskaraz eskuarki hain arrunt den bilakabidea —bokalarteko *-r*-ren ahulketa eta erorketa— bitxi gertatzen dela E-z.

b.- *-g(u)ru* > *-gu*: sinkoparen ostean *-r-* erortzearen alde aipatu *aingru* forma, Er*Dot* *arcaigru* eta, agian, Iz. Uzt. *-tuk* (< *-truk* < **-turuk* < *-turik*)[49] daudeke. Guztiare-

(42) Cf. Gar*O* *decuma*, Hual*Dot* E*Dot* *decumac*, Ae *dekuma*, Zar *tekuma*, Urte *detxuma*, L *detxema*.

(43) Erkaketarako darabiltzan forma erromanikoak sarderazko *decuma*, *deguma* dira.

(44) 28. oharreko adibideei, erants bekizkie Gèze *bederatzü*, Ae*Dot* *bedratcigarrena*, Zar*Dot* *bedratcigarna* eta orok. *bederatzigarrena*.

(45) Eta gainerako euskalkietan, irregularki bada ere (ik. *FHV*, 79-81).

(46) Cf. *Etudes*E *bazunu*, Gèze *bazü'nü*, *Etudes*Zar *bazinu*, *Etudes*Ae *bazindu*; *Etudes*E *gutu*, Gèze *gü'tü*, *Etudes*AeZar *gitu*; Gar*O2* *uzuli*, Hual*Dot* E*Dot* *utzul*, Gèze *ützül*, orok. *itzul*. Irakurleak asimilazio mota honetako eta hurrengoetako adibide zerrenda luzea aurki dezake *Pos*-en (278-279).

(47) Cf. Er*Dot* *arcaigru*, Gar*O* *arrcainguari*, Hual*Dot* *arcainguru*, *arcanguriuari*. Kasu gehiagotan dugu *i* sekundario baten asimilazioa, esaterako E *utxura*, Z *ütxüra* < orok. *itxura* < gazt. *hechura* (cf. Mitxelena 1987 [1974]: 201, 25. oh.).

(48) Cf. Er*Dot* *aingriac*, Hual*Dot* E*Dot* *ainguriuac*, Hual*Eb* *ainguru*, *Cuest*BidEr *ainguru*, *Cuest*Urz *aingru*, Art F.B. *aingurieki*.

(49) Ik. § 4.2.1.6.

kin ere, *-r*-ren galera bakarrak lirateke testuinguru horretan eta *-tuk*-en kasua, gainera, oso berria bide da.

Disimilazio bat ere (*u-u* > *i-u*) badagoke: *balimadigu* (384); baina *dugu* (26), *dugularic* (39) etab. agertzen dira[50]. Testuko adibide bakarra izanik, asimilazio aurrekaria gertatu dela ere pentsa daiteke, aurrizkiko *-i*-ren eraginez hain zuzen.

Asimilazio aurrekariak (*u-i* > *u-u*), Mitxelenaren ustez (*FHV*, 80), ez dira erregularrak. Testuko adibideak ondoko hauek dira: *gucietaric* (47) (*guzu* + *etarik*) eta *erasucu* (208) / *erasuquitia* (407)[51]. Mitxelenaren eritzia berriro ekarriz, asimilazio aurrekari hauen zioa, edo eragingarria bederen, E-ren (eta Z-ren) *-i* + *a* eta *-u* + *a* (*-ü* +*a*) hitz azkenen emaitza berdinetan bilatu beharko litzateke, hau da, E (Bid. izan ezik) *-ia* eta Z *-ía*: E *ógia*, *búria*, Z *ogía*, *büría*. Baina interpretazio honen aurkako oztopo bat dago. Mitxelenak berak ere onartzen duenez (*FHV*, 121), Bid. *-iua* gainerako hizkeretako *-ia*-ren antzinako egoeraren aztarna dateke. Eta Bidankozeko hizkeran, hitz azkenen arteko nahasketarik ez izanagatik ere (*-ia* / *-iua*), asimilazio aurrekariak berdin aurkitzen ditugu: *Cuest*Bid *guzu*, *gúziua*, *Cuest*UrzUzt *gúzia*. Azkenik, ustezko asimilazio kasu bitxi bat aipatu nahi dut, *DU*-ko *paradisucu* (480, 508) hitzean gertatzen bide dena, hain zuzen; cf. *paradisoco* (360)[52].

4.2.1.3. Erronkarieraz, euskaraz ohi diren beheranzko diptongoak ezezik, goranzkoak ere baziren, antza. Halere, testu idatzi batez ari garenez, arriskugarri samar deritzot goranzko diptongoei buruz ezer esateari.

Eskuarki E-z **au* > *ai* bilakaera erregularra dugu, baina zenbait testuinguru eta hitz motatan *au* diptongoa gorde egin da; orobat *eu* (ik. *Pos*, 279-280):

a.- *r*, *r̄*, *ś* eta *tś*-ren aurrean, nahiz eta geroago kontsonante horiek aldatu edo desagertu: *r*: *cau* (206), *guiauren* (235), *laugarna* (248), *amalau* (399); *tś*: *sausci* (152), *sausi* (334)[53].

b.- Diptongoa **a'o* zaharretik datorrenean: *zaudiana* (85) (< **zagode-*), *gaudezu* (192), baina *aoan* (36)[54].

c.- Mailegu berrietan: *bautismo* (15), *cautibuen* (437), *Bautista* (475).

Aldiz, *ceurietan* (85)[55] ez dagokio goiko taldeari. Hitz honetako diptongoa, jakina, ez baita zaharra (lat. *caellum*), *e* > *eu* bilakabidetik sortua baizik (E *deuri*-rekin analogiaz?; hitz azkeneko *-i*-z ik. § 4.2.1.8.). Metatesi baten bidez, *au* > *ua* dugu *Juangueico* (3) eta *Juangoico* (38)[56] hitzetan.

Esan bezala, **au* > *ai* gertatzen da gorago zehaztu testuinguruetan izan ezik: *daicuguner* (100), *gaiza* (239)[57]. E-z, *ai* zaharra mantendu egin da zenbaitetan eta hala ageri testu honetan: *ayta* (84), *baici* (103), *gaynetic* (239)[58]. Azkenik, lat. *-anct-* ere izan daiteke E *ai*-ren iturria: *saintian* (15); baina *santa* (117) eta *santia* (521), agerriki erromantze berriagotik galbahetuak.

Aitzitik, sarri *ai* > *ei* bilakabidea gertatzen da, hala jatorrizko *ai* diptongoa denean, nola **au*-tik datorrenean, azken kasu honetan —Z-z ez bezala— are **j*-ren aurrean egonik ere. Lehen taldekoak dira ondoko hauek: *beicen* (137), *beycien* (361) / *ezpaycien* (366), *sey* (376)[59]; bigarrenekoak: *baigeina* (3), *gueiza* (127), *beleycien* (440) (< **bilauzi* < **bilo-uts*, baina ik. *FHV*, 80, 15. oh.)[60]. *Ei* zaharra gorde egin da: *seygarna* (253). Bestalde, *ei* diptongoa *eu*-tik etor daiteke: *eiz* (101)[61]; edo *oi*-tik: *Juangueico* (3) / *Juangoico* (38). Edo **e'i* zein **e'e*-tik, azken kasu honetan silaba azkeneko txistukariaren eraginez *e* > *i* itxiaraziz (*FHV*, 66): *leina* (35), *beyn* (381), *leynago* (383)[62].

Azkeneko diptongoa *oi* dugu: *Juangueico* (3), *soinneara* (63-64), *otoy* (119), *emoyle* (312)[63]. Diptongo hau *nor*-en eraginez ere sor daiteke: *zoin* (18), BN-z eta Z-z bezalatsu (Gèze *zuñ*), baina gainerako euskalkietan *zein* < *zer* + *en* (ik. *Pos*, 281).

Diptongo sudurkariez ezer gutxi esan dezaket, gorago adierazi bezala grafiak ez baitira gardenak arazo honi dagokionean. Haatik, dagoeneko aurreratu dut *christiain* (2) eta *escoinnecoara* (65-66) hitzetan diptongo sudurkaririk kausi litekeela eta hala somatzen dut (cf. lehenerako lat. *christianum* eta bigarrenerako **esku-on-e* (*Pos*, 281)).

(50) Cf. Er*Dot dugu*, Gar0 *balimadigu, baitigu*, Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot digu, Etudes*E *digu, tugu* ('ditugu'), *Cuest*Bid *digu*, *Cuest*Urz *diegu*, *Cuest*Uzt *dugu*, *Contr*Iz *digu*, ArtIz *diegu*, *degu* (sic).

(51) Cf., besteak beste Hual*Eb guzutiè;* bigarrenaren adibideetarako, cf. 28. oharra.

(52) Cf. Gar0 *paraduiso, paradusico, paradusicu* hitz susmagarriak eta otoit bedi § 1.4. atalean *DU*-ren eta Gar0-ren arteko erlazioaz esana; cf., halaber, Er*Dot paradisoco*, *Cuest*Bid *paradiso*, *Cuest*Er *paradisu*.

(53) Cf. Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot Cuest*Bid *caur;* Er*Dot guiaurtaric*, Gar0 *guiaurerer* (=*guiauren*), *Cuest*Bid *guiauren*. *El*Bid *giaur*, *El*Uzt *yaurr;* Er*Dot laurgarren*, Gar0 Hual*Dot* E*Dot laurgarna*, Hual*Eb laurgarnen*, *Cuest*Bid *laur*, *laurna*, *El*UrzUzt *laurak;* Gar0 Hual*Dot* E*Dot Cuest*Bid *amalaur*, Hual*Eb amalaurgarnen; sausci eta sausi*-rako, ik. 28. oharra.

(54) Cf. Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot zaudena*, baina Er*Dot zaidiana* (eta *daude*, besteak beste); Hual*Dot gaude*, E*Dot gaudezu* (itxuraz, zukako adizkia da; cf. Zar*Dot giaudezu* baina Ae*Dot gaude*); Er*Dot auan*, Hual *Dot ahuan* («lo cual parece indicar una pronunciación [*a-wa*]» dio Mitxelenak (*Pos*, 279) eta arrazoia du ziurrenik, baina kontutan hartu behar da Hualdek erruz darabilela < h > grafia kulto gisara: *haren, hil, hele, hitz, nahi*, etab.), E*Dot aban*, *Cuest*BidEr *ago*.

(55) Cf. Er*Dot ceurico, ceurietan*, Gar0 *ceurietra*, Gar02 *ceurietra, ceuriaz, ceurico*, Hual*Dot* E*Dot ceurietan, ceurico*, *Cuest*BidEr *zeuri*.

(56) Cf. Er*Dot Joang(u)eico, Juang(u)eico*, Gar0 *Jang(u)eico, Jangoico, Jangueyco, Jayngueyco, Jangenico* (sic), Gar02 *Jangoyco*, Hual*Dot Jangueico* (*Jangoicuac* eta *Juangueicuac* aldaerak ere ematen ditu ohar batean), E*Dot Jangueico*, Hual*Eb Jangueicuari*, *Cuest*Bid *jangéikoa* («*jangóikoa* en los pueblos de arriba: Isaba, Uztarroz, Urzainqui et *cuasi* Roncal»), *Cuest*Er *jangoiko*, *Cuest*Urz *juangeiko*, *Contr*Iz *Jangéikua*, *Contr*Uzt IzagUzt *Juangéikua*, ArtIz *Jangéikoari*. Diodan, bidenabar *Jan-* erakoen tarteko pausu gisa Mitxelenak (*Pos*, 281) iradoki zuen *Juan-* ezezik, Burgin dokumentatzen den *Jaina* ere aintzat hartu beharra dagoela, Burgin *Jangueyco* ere agertzen baita; halaz guztiz, ohar bedi E-z *ai*-ren ohizko murrizketa *i* eta ez *a* dela (§ 4.2.1.4.).

(57) Cf. Er*Dot* E*Dot daicugueiner*, Hual*Eb daicuner* (sic), *Etudes*E *daikuguei*, Zar*Dot daucuyener, Etudes*Zar *daukuye, Etudes*Ae *daugute;* Er*Dot* Gar0 *gaiza*. Gar02 *gayza*, Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot gaiza*.

(58) Cf. Er*Dot vaici*, Hual*Dot baicic*, Hual*Eb baicic, beici(c)*, Mdg *vaizik, Pos*Iz *bèizik, bízik*.

(59) Cf. Er*Dot* Gar0 Hual*Dot* E*Dot Cuest*Bid *bai(t)*-, Iz Uzt *bi-; sey*-rako, ik. 33. oharra.

(60) Cf. Bur. *Jaina*, Er*Dot g(e)ina, vaigina, ezgina*, Gar0 *geina*, Hual*Dot geina, bai gina, ez gina*, E*Dot Geina, baigina, ezgina*, Hual*Eb Geina, Gina*, *Contr*IzUzt *Jéina*, F.B. *jéina*, Gèze *jaun;* cf., halaber, *El*Urz *aitejiña*, *El*Uzt *aitajina*, *Contr*IzUzt *aitajéina, aitajína*, *Contr*Uzt *abuelojéina, itojéina; gueiza*-rako, ik. 57. oharra; Gar0 *beleicien*, Hual*Dot belainzuric*, E*Dot belainziuen*, *Cuest*Bid *belainzu*, *Contr*Iz *beléiz*, *Contr*Uzt *belainzurik*, IzagUzt *belainzi*, ArtIz *belatzurik*.

(61) Cf. «En ronc. y sul. se da *eu* > *ei*, paralelamente a *au* > *ai* [...]. Su escasez es simple consecuencia de la rareza de *eu*» (*FHV*, 98). 28. oharreko lekukotasunei erants bekie Zar *eutzi*.

(62) Cf. Er*Dot lein(a)*, Gar0 *lein(a), leyna, leña* (behin), Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot* Mdg *lein(a)*, *Cuest*Bid *len* ('lehenbiziko', baina *leinabentu*) / *lein, leinago*, *Cuest*Uzt *lenabentu, len, lenago*, *Contr*Iz *léina*, *Contr*Uzt *léna;* Gar0 *beñ*, Hual*Dot* E*Dot bein*, *Cuest*BidUzt *beinere*.

(63) Cf. Er*Dot otoic*, Gar0 *otoy, otoq* (kopiagile bati dagokion errata, ik. § 1.4.), Gar02 *otoy*, Hual*Dot* E*Dot Cuest*Bid *El*UrzUzt *otoi*.

Gainera, hitz hauen < n > gabeko formak ere ageri dira *DU*-n bertan: *christiayaren* (5), *altescoyecualtian* (164)[64].

4.2.1.4. Diptongo murrizketak usu gertatzen dira E-z. Hona *DU*-n idorotakoak:

a.- *au* > *u*: *cuec* (196) (< **kau(r)-ek*), *barur* (392), *nuzu* (486)[65].

b.- *eu* > *u*: *uscaraz* (1).

c.- *gore* (7), *zore* (87), *nore* (493). Itxuraz, **gu-(h)aur-en*, **zu-(h)aur-en* eta **ni-(h)aur-en* izan daitezke jatorriak[66].

d.- *ai*, *ei* > *i*: *bequinbatez* (317) eta zenbait adizkitan, ekialdeko euskalkietan aski arrunta den legez (*FHV*, 105), *guizazu* (41), *guizan* (46), *ciza[la]* (107), *guitiain* (221), *guiteala* (382), *guitiala* (388)[67]. Behin *jaun* > *en*: *En Done* (472)[68].

e.- *oi* > *o*: *zombat* (26).

f.- Diptongoaren bigarren osagaia *i* denean, txistukari ez-sabaiko batek jarraituz gero, delako txistukaria palataltzen da, *i* nolabait irentsiz: *gach* (104), *bacocha* (135), *gastoer* (363), baina *gaisto* (47)[69]. Honen antzeko bilakabidea aurki daiteke bizkaieraz ere; alabaina, ez dirudi bi euskalkiotan testuinguru berdinetan ezartzen denik. Erronkarieraz behinik behin, afrikatua dugunean, bilakabide hau edozein testuingurutan gertatzen da; igurzkariaren kasuan, ordea, badirudi kontsonante aurreko *aiz* > *ax* aldaketara mugatzen dela (*Pos*, 291). Baina E *naz*, *yaz* honelako bilakabidetik sor zitezkeen, geroago despalatalduak; cf. B zah. *nax*, *ax*, gaurko B-z *nas*, *as* (*Pos*, 282).

(64) Cf. Er*Dot christiai*, *christiaya*, Gar*O christian*, Hual*Dot christiain*, *christiainaren*, E*Dot cristiaĩ*, *cristiaỹaren*; Er*Dot escuico*, *alte escucoara*, Gar*O altescoyeco altian*, Hual*Dot escoinecuaraino*, *alte escoinan*, E*Dot escoỹeco*, *alte escoỹan*, Hual*Eb escoineco*, *escoinac*. Bonaparteren < ỹ > grafemaz —Hualderen < ń >-ren transposizioa—, cf. ondoko pasarte hau: «Le son 'ỹ' propre au roncalais, est une consonne nasale dérivée de l''ĩ', comme l''y' dérive de l''i'. Sa valeur est intermédiaire entre le *ñ* et le *y*, et précisément celle d'une nasale gutturale mouillée ou, en d'autres termes, celle d'un *ng* mouillé (en donnant à *ng* le son que ce digramme possède en *strong* anglais, ou celui de *n* espagnol ou italien en *vengo*, et en le mouillant en outre). Lorsque des mots roncalais finis par *aĩ*, *oĩ*, tels que *azkoĩ*, *kristiaĩ*, prennent une voyelle après l''ĩ', ce dernier se change en 'ỹ': *azkoỹa* 'leblaireau', *kristiaỹen* 'des chrétiens'» (Bonaparte 1869b: xxx, 4. oh.).

(65) Cf. Gar*O* Hual*Dot* E*Dot barur*, Hual*Eb barura*, Gèze Ae*Dot* Zar*Dot barur*, G L B *barau(r)*; Gar*O confesetanuzu*, Hual*Dot nuzu*, *Cuest*Bid *nuzu*, *Cuest*Uzt *nezu*, *Contr*Uzt *nazu*, *nézu*. Ohar bedi Z-z agertu bereizkuntza ez dugula E-z kausitzen, ez bada Bidankozeko hizkeraz: Gèze *nü'zü* ('naiz' zuka) / *náizü* ('nauzu') eta *Etudes*E *nuzu* bietarako, baina cf. *Part*, 241: «*Nuzu* es familiar, mezclado de cortesía, de *naz*»; eta, beherago, 246-247: «En Uztarroz dicen todos *ekusi nuk*, *nun*, *nu*, *nuzu*, *nuzei* y el curioso *ekusi nei* me han visto. En el difunto subdialecto de Bidangoz al agregar la *a* al núcleo quedaba su vocal *u* permutada en *i*, y decían *ekusi naik*, *nain*, *nai*, *naizu*, *naizei*... según veremos luego en escritos suyos.»

(66) Ik. 36. oharreko adibideak eta erants bekizkie *DU guiauren* (235), Gar*O* Hual*Dot gore*, *zore*, E*Dot gore*, *zure*, Gar*O*2 *gore*, *zore*, *ciauren*, *ñauren*, Hual*Eb gore*, *zore*, *ñore*, *ciauren*..., *Cuest*Bid *gore*, *zore*, *guiauren*, *ỹiauren*, *ñauren*, *El*Bid *ñaur*, *yaur*, *El*Urz *niaur*, *xau*, *El*Uzt *niñaur*, *yiyaur*, IzagUzt *ñaur*, *yaur*, ArtIz *giáuren*. Cf., halaber, Etxep. *guhaurk*, Gèze *ziháuren* (eta iradokitzen diren *gihauren*, *nihauren*), *neuria*, *nuria* (cf. Z zah. *nore*). Jatorriz forma bihurkariak diratekeen hauen erabilera orokorraz, cf. G *gere*, *zere*, *nere*, B *geure*, *zeure*, *neure*.

(67) Cf. Er*Dot vequin vatez*, Gar*O bicainbatec*, Hual*Dot beiquinbat*, Mdg *bikainbat*, *Contr*Iz *bikin*, GN G *bezin*, orok. *bezain*: *guizazu* eta *cizala*-rako, ik. 28. oharra; Gar*O guitian*, *guitiala*, *Etudes*E *gitian*, *Etudes*ZarAe *giten*, Gèze *gitían*, orok. *gaitezen*.

(68) Cf. Gar*O en done*; hitz honen bilakaerari argi eman diezaiokete E-tik landako ondoko adibideok: *TAV* 2.2.12. *laona Domne*, Cap *laundone*, EZ*Man laun doni*, Bet *landone*, *ConTAV* 5.1.2. *Jondone*, Azk (Sc) *jondane* (sic), Azk (L) *jondone*, Azk (BN) *iondoni*.

(69) Er*Dot gachetaric*, Hual*Dot* E*Dot gach*, *gachetic*, *El*Bid *gatxa*, baina *El*Urz *gaiz*, transkripzio okerra ziurrenik; Gar*O bacocha*, Hual*Dot* Hual*Eb* E*Dot bacoch*; *gastoer* eta *gaisto*-rako, ik. 33. oharra.

4.2.1.5. Hiatoak bi taldetan bereizi behar dira lehen lehenik: tinbre bereko bi bokalek osatuak eta tinbre ezberdineko bokalek osatuak. Lehenbizikoek adibide bakanak dituzte testu honetan morfema baten barnean: *lein* (35), *orci* (151), *onriari* (232), *orntia* (445)[70]. Hagitzez ugariagoak dira, jakina, morfema mugan kausitzen direnak, hala deklinabidean nola hitz eratorpenean. Talde honetan hiatoak tinbre bereko bokal bakuna ematen du. Deklinabide adibideak honako hauek dira *DU*-n: *Catolican* (174), *bicicen* (181), *bercen* (257), *arimac* (340), *penac* (364), besteak beste. Dakigularik, E-z hiatoen ondorio diren bokalek daramate azentua hitz hauetan (ik. *Pos*, 282). Hitz elkartuak: *Elizama* (173), *faltandiz* (495)[71]. "Bai-ez" erako galderetan ekialdeko euskalkiek aditzari erantsiriko *-a* atzizkiak talde honetako hiatoak sor ditzake, bilakabide ezberdina izanik ere: *zraya* (2)[72].

Bigarren taldeak, bere aldetik, pausuz pausu ikusteak merezi du:

a.- *a* + *e* > *e*: *grelaric* (37) < *gra* + *-elarik* / *gra* (43), *dela* (166), *denac* (233) / *da* (18), *patriaraquen* (338), *injurien* (415)[73].

b.- *e* + *a* > *ea*, *ia*[74]: Adibide franko direnez gero, batzu baino ez ditut aldatuko: *ea*: *señalea* (19-20), *eguitea* (33), *borontean* (35), *gorea* (42), *bioceara* (62-63), *icenean* (68), *betea* (109), *Salbea* (184), *dulcea* (189), *iganteac* (246), *emazteac* (266), *semea* (300), *urtean* (381), *istantean* (527), etab.; *ia*: *fedia* (14), *zaudiana* (85), *borontatia* (92), *tentacionian* (102), *onriari* (232), *erasuquitia* (407), *orntia* (445)[75]. Silaba bakarrekoetan *ea* da emaitza bakarra: *pean* (149)[76]. Morfema barnean, ordea, *ia* dugu beti: *biar* (26), *criazale* (131)[77]. Askotan hitz berdinek bi bilakabideak agertzen dituzte: *Semearnean* (68) / *Semearnian* (79), *Jeinnearnan* (69-70) / *Geinarnian* (82), *benedicatia* (111) / *benedicatea* (113) (baina ik. § 4.4.2.), *egunean* (156) / *egunian* (167), *altescoyecualtian* (164) / *altean* (353), *guiteala* (382) / *guitiala* (388), *emoytia* (420) / *emoytea* (432). Azkenik, bi hitzetan *ie* emaitza arrotza dugu: *dibinidadieren* (291) eta *umanidadieren* (313)[78].

c.- *i* + V > *i*V: hiato gisa mantendu bide da (*Pos*, 282-283): *oguia* (96), *bicien* (169), *beleycien* (440). Aurretik bokal bat egonez gero, *i* > *y* bilakabidea dugu, gorago (§ 4.1.1.) adierazi bezala.

d.- *o* + V bilkurak, aldiz, bi bilakabide ditu: *o*V mantentzea edo *u*V bihurtzea; soma daiteke azkeneko honek diptongoak sorrarazten dituela [wV] (*Pos*, 283). Testuko adibideak honako hauek dira: *oa*, *oe*: *aoan* (36), *escoinnecoara* (64-65), *reynoa* (89), *Cre-*

(70) *Lein*-erako, ik. 62. oharra; *orci* eta *orntia*-rako, ik. 29. oharra eta erants bekizkie Gar*O onrzeta*, Hual*Dot onrztia*, E*Dot õrztia*, Hual*Eb onrztra*, *El*Urz *orztia*, Zar*Dot orztea*, Ae*Dot oztea*, GN B zah. *or(t)zi*, *or(t)zitu*, L *ohortze*, orok. *ehortzi* (ik. *FHV*, 83); *onriari*-rako, ik. 24. oharra.

(71) Cf. Gar*O* Gar*O*2 Hual*Dot Eliza Ama*, E*Dot Elizama*; Gar*O falta andiz*, Hual*Dot culpa andiaz*.

(72) Cf. Hual*Dot* E*Dot* Hual*Eb zreya*, *Contr*IzUzt *zriá*.

(73) Cf. Gar*O patriarca*; Gar*O* Hual*Dot* E*Dot injurien*.

(74) Hots bilkura hauek hiatoak ala diptongoak diren ezin jakin, noski.

(75) E-zko gainerako testuetan *ia* (eta *ie*) da nagusi: cf. Gar*O goria*, *dulcia*, *ygantiac*, *emactiac*, Gar*O*2 *semea*, *yburneaz*, *Redentorearen*, baina *egunian*, Hual*Dot señalia*, *eguitia*, *borontian*, *icenian* etab., baina *Salvea*, *El*UrzUzt *luzia*, *legia*, *El*Urz *erintzalia*, *adixkidia*, *El*Uzt *sailian*, *eznia*, baina *El*Uzt *airea*. Haatik, Er*Dot*-en *ea* : *ia* txandakatzea gertatzen da: Er*Dot señalea*, *vorontean*, *semearen*... : *señalia*, *vidiara*, *emaztiac*, etab.; orobat *Cuest-Bid*-en. Izagirrek jasotako datuetan ere *ia* eta *ea* (diptongoa, dioenez) ditugu.

(76) E-z, nik dakidala, **pian* ez dago dokumentaturik.

(77) Cf. Er*Dot Creazalea*, Gar*O Criazale*, Hual*Dot Criazalian*, E*Dot criazale*, Ae*Dot criazale*, Zar*Dot* Zar*Dot*2 *creazale*; *biar* forma bakarra da E-z: cf., halere, *Pos*Iz *biár* ('behar') / *bíar* (silaba bitakoa, 'bihar').

(78) Cf. Gar*O umanidadiare*, *divinidadiaren*, Hual*Dot* E*Dot divinidadiari*.

doa (124), *misericordiazcoa* (188), *leguezcoa* (229), *probechoari* (236), *articuloac* (284), *gastoer* (363), *Bautismoa* (451); *ua*, *ue*: *Joangoicuatan* (126), *limbuetra* (153), *altescoyecualtian* (164), *fedezcuac* (286), *Bazcua* (386), *Resurrezcuetan* (387), *cautibuen* (437), *peregrinuer* (442)[79]. Zenbaitetan testuak *-o* / *-u* hitz azkenen arteko zalantza agertzen ditu: *mandamientoac* (225) / *mandamentioac* (227), *mandamentu* (271), *mandamentiac* (370). Agi denez, lehenbizikoan *-miento* atzizki erromantzea genuke eta gainerakoetan, berriz, *-mentu* latindarra.

Bigarren mailako hiatoa dugu *Joangoico* (42), *Joangueico* (45) hitzetakoa: *jaun-* > *juan-* (*jwan-?*) (ik. § 4.2.1.7.) > *joan*, cf. *Juangeico* (3), *Juangoico* (38) eta 56. oharra.

e.- *u* + *a* taldearen emaitza arruntak Bid. *-iua*, Gar. *-ioa* (biak, antza, silaba bakarrekoak), Iz. Urz. Uzt. *-ia* (cf. Z *-ía*) dira[80]. Honelaxe azaldu zuen Mitxelenak (*Pos*, 283) bokal bilkura honen bilakabidea: *u* + *a* > *-uia* > *-iua* metatesiz eta *-ia* azken honen laburketaz. Diodan tarteko pausua, Etxepareren olerkietan eta Leizarragaren berrietan agertu ezezik, E-z ere dokumentaturik dagoela Gardeko otoitz bilduman, irregularki bada ere[81]. *DU*-n, bere aldetik, Urzainkiko hizkerari bide dagokion *-ia* emaitza nagusia izanagatik, *-ioa* eta *-ua* ere idoro daitezke aldizka: *-ia*: *saintiaren* (17), *crucificatiaren* (23-24), *frutia* (115), *ilordian* (122), *mandamentiac* (225), *buria* (281), *sacramentiac* (457); orobat *-ie* taldea: *gucietaric* (47) eta *encarcelatier* (428); *-ioa* hiru hitzek bakarrik egertzen dute: *becatioaren* (177), *parcamentioan* (178), *mandamentioac* (227); *-ua*, beste hiruk: *arcanguari* (437), *becatuac* (488), *arcainguari* (501). Hitz barnean *-ua*: *guiauren* (235); orobat E-zko hizkera guztietan (ik. 66. oharra). Adibide hauek *DU*-ren hizkeraren ezaugarri nabarmena den nahasmendua aski garbi erakusten dute, ene eritziz.

Adizkietan iraganaldiko edota menpeko perpausetako markak ezarriz gero, Bid. *-ion*, *-iola* eta Iz. Uzt. *-ien*, *-iela* ditugu (*Pos*, 283)[82]. Honelaxe azaltzen du Mitxelenak: **-ua-* > **-uo-* > **-io-*; halere, eragozpen bat aurkitzen du *jakin*-eko adizki trinkoetan: Bid. *dakion* < *daki* + *n*. Azkeneko bokala *-i* izanik, analogiaz sorturiko formak izan litezke; testuan *eztaquienari* (406) bakarrik dugu. Bestalde, *DU*-n bi emaitzak agertzen dira: bata *-io*, beti adizki berberean (*du*) gertatzen dela ohartu behar bada ere: *dyona* (14), *dionaren* (128), *dionari* (409); bestea *-ie-* da, emaitza nagusia: *zunien* (5), *baygutien* (25), *ztiela* (337), *tien* (391).

Hiato guzti hauen bilakabideek *DU*-ko hizkera mota berezia erakusten digute. Esan bezala, ez dago batere batasunik, eta honek hizkera ezberdinen nahaste bat edo, agian, ezagutzen ditugun E-zko testuena baino hizkuntz egoera zaharrago bat adieraz dezake (ik. § 1.1. eta 1.2.). Nola edo hala, aski garbi ematen du hasieran aurreratu dudana, hau da, *DU*-ko hizkera Urzainkiko edo Erronkari herrikoetara mugatu behar dugula.

4.2.1.6. Bokal sinkopak Nafarroako euskalki gehienen bereizgarria da, zein bere neurrian. Mitxelenaren ustez (*Pos*, 284), Zar-z gertatzen da maizenik. Mitxelenak berak (*ibidem*) ongi finkatu zituen zein testuingurutan idoro daitezkeen sinkopak E-z. Haietatik ondoko hauek ditugu *DU*-n:

(79) Oro har Er*Dot* Gar0 Gar02 *o*V, Hual*Dot* E*Dot* Hual*Eb* *u*V, baina *Cuest*Bid *o*V, *Contr*IzUzt *u*V, *El*Urz Uzt *besoa*, IzagIzUzt *o*V (diptongoa, dioenez), *u*V.

(80) Mitxelenak (*Pos*, 283) emandako datu hauek salbuespen franko dute erkakizun ditugun testuetan, hala nola Er*Dot* *-ia*, *-ua*, Gar0 *-ia*, *-ua*, *-uia* (behin ere ez *-ioa*), Gar02 *-ia*, *-ioa*.

(81) Cf. Gar0 *mandamentuiac* / *mandamentu*, *saintuien*, *saintuiac* / *saintu*, *saintuac*, *saintiac*.

(82) Cf. Er*Dot* *-ie-*, Gar0 *-ie-*, *-io-*, Gar02 *-io-*, Hual*Dot* *-ie-* (bakanka), *-io-*, E*Dot* *-io-*.

a.- Herskari — *r*: *potrearen* (148) / *poder* (128), *bedrazugarna* (246), *andre* (470); oso ugariak dira adlatiboaren kasuan, bai izenkiei bai aditz izenari eransten zaiolarik: *empleetra* (17), *limbuetra* (153), *ceurietra* (159), *juzguetra* (170), *satra* (432), *edatra* (435). Zenbait mailegutan zail da jakiten sinkopa ala talde zaharraren mantentzea dugun: *cruche* (20) < lat. *crucem*. Mailegu zaharra izanik, pentsa daiteke kasu honetan sinkopa gertatu dela (cf. Gèze *küriütxe*, ZarDot *curutce*). Guztiarekin ere, E-z oso arrunta den sinkopa bat, *-turik* > **-turuk* > *-truk* (cf. Zar *-trik*), ez da *DU*-n gertatzen: *confesaturic* (16), *concebituric* (138), *crucificaturic* (150)[83].

b.- Dardarkari — herskari, *n*: bi multzotan bereiz daitezke, *-arna* (< *-aren* + *a*) eta *-garna* (< *-garren* + *a*): lehenen barnean *Semearnean* (68), *Jeinnearnan* (69-70), *Semearnian* (79), *Geinarnian* (82) eta *Saintiarnac* (288); bigarrenen barnean *bigarna* (36), *irurgarna* (36), *laugarna* (248), *horzgarna* (251), etab. / *irurgarren* (155)[84].

c.- Adizki laguntzaileak: *drade* (29), *grelaric* (37), *gra* (43). *A* atalari dagozkion adibide hauez gain, txistukari eta *r*-ren arteko bat, *zraya* (2), eta txistukari eta herskariaren arteko beste bat, *ztiela* (337)[85], azaltzen dira.

4.2.1.7. Dagoeneko metatesi adibide bat aipatua dut, *au* > *ua*: *Juangueico* (3), *Juangoico* (38), diptongoa hausteko gero *oa* bilakatua: *Joangoico* (42), *Joangueico* (45). Itxuraz, beste adibide bat ere sartu beharra dago: *ecun* (6) < *uken* (ik., halere, *FHV*, 84). Ezin du B zah. *e(d)un* formarekin[86] erlazio zuzenik izan (ik. *ConTAV*, 116).

4.2.1.8. Zenbait hitzetan azkeneko bokala ez da finko gertatzen; hitz eratorrietako atzizki batzurekin suertatzen da, hain zuzen. Horrela, *poderosoaren* (352) / *poderosaren* (163) bikotea dugu. Gauza jakina da euskaraz atzizki honek *-os* eta *-oso* formak hartzen dituela. Orobat *-zion* eta *-zione* ere aldizka agertzen dira: *oracionac* (71), *confirmaciona* (453), *confesiona* (455), *achicionaren* (527), batetik, eta *tentacionian* (102), *resurreccionian* (180), *achicionia* (457), *oliacionia* (459) eta *concepcione* (523), bestetik. Gehienak maileguak diren heinean, txandakatze hau erraz azal liteke gazteleraren eraginaren bitartez; baina zailago deritzot *achiciona* honela esplikatzeari[87].

Dudazko bukaera dukegu *ceurietan* (85)ekoa. Azkuek *zeuru* dakar, baina, bistan denez, berreraikuntza okerra da, Bid. *zeuria* baitugu eta ez **zeuriua*, *u* + *a* bilkuratik espero zitekeena, alegia. Honek ez du esan nahi forma zaharrean *-u* ez zegoenik: **zeiru* > *zeuri* metatesiz edo **zeuru* > *zeuri* azken bokalen nahasketaz (ik. *FHV*, 100).

(83) E-zko gainerako testuetan salbuespen bakan batzu aurkitu ditut: Gar02 *rebelaturic*, *estimaturic*. E-tik landa, cf., halaber, Zar1780 *-tric*, *-dric* / *-turic*, *-duric*, azken hauek nagusi direlaric. Esan behar da, halaber, Izaban eta Uztarrozen *-truk* > *-tuk* bilakaera gertatu dela, ditudienez ez aspaldi: *Contr*Iz-en oraindik *-truk* eta *-tuk* agertzen dira, Izag ArtIz eta F.B. *-tuk*, ArtUzt *-tu(k)*.

(84) Cf. Er*Dot* *-garren* / *-garrena*, Gar0 Hual*Dot* E*Dot* Hual*Eb* *-garnen* / *-garna*, *Cuest*Bid *-garren* / *-garna*, *Contr*IzUzt *bigarna*.

(85) Cf. Hual*Dot* E*Dot* *ztiola*, Zar*Dot* *ztuela*, Ae*Dot* *cituela*.

(86) Cf. Lcc *eun*, Bet *euten*, Cap *edugi*, *euteco*, *eutea*.

(87) Cf. Gar0 Hual*Dot* *-cionia*: Er*Dot* *achicionia*, Gar0 *aticionia*, Hual*Dot* *atricionia*. Bidenabar, Hualdek dakarren forma hitz nahasketa baten ondorioa dela deritzot. Izan ere, «Comunionia edo Atricionia» dakar, baina ondoko azalpenean *atricione* aitortzaren barnean sartzen du eta honelaxe definitu ere: «Sentimendu edo pesar bat Jangueicuaren ofendittiaz, edo pecatiuaren ichustarzunagatic, edo iburnico penen lotsaz, edo ceurico gloriaren galtiaz, confesataco && propositorequin», hots, 'damutasuna' eta ez 'jaunartzea'; gainera, *atizatu* aditza badarabil 'jaunartu' adierazteko.

4.2.2. *Kontsonanteak*

4.2.2.1. DU-ren kontsonantismoan, bokalismoan bezalaxe, gehienetan erronkarierazko fenomeno orokorrak beretzen diren bitartean, bestetan testuko hizkera ezagun diren arauetatik aldentzen da zeharo. Hasierako **j-* > *š-* bilakatzen da (= Zar), testuan < s- > eta < j- > grafemek, nik uste, ondoko hitzotan adierazten baitute (ik. § 4.1.3. eta 4.1.4.): *sin* (88), *seyac* (246), *saceriric* (350) *satra* (432) eta *jasseriric* (161) (ik. 32 eta 33. oharrak). Ez, ostera, beste hauetan: *sausci* (152), *sausi* (234) (ik. 28. oharra). Dudazkoa da *sinestan* (125) (ik. 28 eta 34. oh.). Hitz barnean ere **-j-* > *-š-* dugu (cf. Zar. *-ø-*): *nejarrez* (198), *nejarrezco* (200) (ik. 32. oh.). Mitxelenak dioenez (*Pos*, 286), hitz hauek *negar*-en forma adierazgarritik letozke: *negar* > **neyar* > *nexar*.

Aldiz, *-i* > *y* gertatzen da, bokalez hasitako morfema baten aurrean: *esayetatic* (41), *deyez* (193), *ayenez* (197) (< *ai* + *ene* +*z*), *seyac* (246), *otoyez* (497)[88]. *Cristiayaren* (5) hitzean < y >-k izan dezakeen balio fonetikoaz, ik. 64. oharra.

4.2.2.2. Erronkarieraz *h*-a desagertu da, gehienetan aztarnarik utzi gabe: *aoan* (36), *bioceara* (62-63) (ik. 54 eta 28. oharrak). Alabaina. gauza jakina da erakusleetan, Iparraldeko euskalkiek asperena duten bitartean, E *k*- dugula (eta Zar. *k*-, Ae H-GN *g*-): *cori* (5), *cuec* (196), *contan* (200), *coric* (205), *cau* (206), *carengatic* (496) eta erakusleetatik eratorritako *cala* (94), *cantic* (154), *can* (160). *K*- gabeko formak ere badira, betiere hirugarren mailako erakusleetan: *aren* (16), *ura* (326). Erronkariera aztertu dutenek eritzi ezberdinak eman dituzte *k*-dunen eta *k*- gabekoen arteko banaketari buruz[89]. Bonaparte printzeak (*Etudes*, 21) *k*- gabekoek sekula ez direla adjetiboak ohartarazten du edo, bestela esan, izenenordainak direla; era berean, *k*-dunei jatorrizkoak deritze (1869: XI, 1. oh.), *kau* > *gau* > *hau* > *au* bilakaera proposatzen duelarik. Azkuek (*Part*, 221-222) bilakaera hori gaitzesten du, baina ez du *k*- gabeko formen berri ematen. Lafonek (1955: 124), bere aldetik, izenordainak ezezik, *k*- gabeko formak anaforikoak ere badirela zehaztatzen du eta *k*-ren balio erakuslea iradoki ere. Ez du inolako jarrerarik hartzen *k*- horren antzinatasunaren auziaz. Mitxelenak (*Pos*, 287) beste aukera bat hobesten du: bakarrik agertzen diren formetan *k*- galdu egingo zen eta gorde izenki baten atzetik agertzen direnetan. Beste leku batean (*FHV*, 247), halere, bi taldeen arteko joera analogikoak ohartarazten ditu.

Hasiera batean, pentsa liteke erakusleen multzo berean sartu beharko liratekeela beste bi hitz hauek: *bicala* (280) eta *bequin* (317) (ik. 67. oharra). Izan ere, hitz hauen bigarren osagaian *kala* eta *kain* sartzen bide baitira (*FHV*, 544). Baina aski ezberdina da, esaterako, *kala* eta *kain* formen eta *bikala* edo antzekoen banaketa euskalkien artean. Esan bezala, *kala*, *gala* erakoak E, Zar, Ae eta H-GN-koak ditugu. Aitzitik, Burunda *bekala* eta Lizarraga Elkanokoa *becala* (baina *bezain*) ditugun bitartean, Zar *bezala*, *bezain* eta Ae *bezela*, *bezein* daude. Hortaz, ezin dugu paralelismorik idoro erakusleen protesia eta *bicala* edo *bequin* hitzen [k]-ren artean. Agian, azalpena lehen osagaiak hartu kasu ezberdinetan dagoke, Mitxelenak (*ibidem*) iradoki legez: instrumentala (*-z*) batzuetan eta absolutiboa edo are ergatiboa (*-k*) besteetan.

(88) Testuinguru ezberdinetan, bokalarteko *-i*-ren bi bilakabide ezberdin hauen erakusgarri onak dira Uzt *oxan* ('oihan') / E *oyan* ('ohean'), Mitxelenak (*Pos*, 286) aipatuak.

(89) Alde batera uzten dut E *ori* ('berori') begirunezko tratamenduari dagokion izenordaina.

Erronkarierak, euskaraz ohi denez, ez du herskari ahostunik hitz azkenean, baina bada salbuespenik zenbait hizkeratan, orainaldiko lehen pertsona singularraren marka NORK adizkietan, hain zuzen: *dud* (125) (< **-da*). Ez dago batere garbi azkeneko hots honen nolakotasun fonikoa, baina badirudi, Bonaparteren ustea gorabehera, ezberdina zela hizkeraren arabera; horrela, Bid. *-d* eta Uzt *-r* nahiko ziurrak dirudite[90]. Kontutan izan behar da, alabaina, ez dagoela ia alderik *d* erlaxatu baten eta *r* ez oso dardarkari baten ebakeraren artean, ezta ñabardura mehe hau sasoi hartan idatziz ondo bereizteko modu errazik ere, Bonapartek zituen diru eta tipografi baliabideak eskumenean ez zituzten haientzat behinik behin.

4.2.2.3. Maileguetan hitz hasierako *r*- mantendu egin da, aurretik bokalik ezarri gabe: *redimitu* (25), *reynoa* (89), *resucitatu* (157), *resurreccionian* (180), *reyna* (186), *Resurrezcuetan* (387), *rescateta* (438). Ezaugarri hau aski hedaturik dago E-zko testu guztietan. Bestalde, *DU*-n eta E-z oro har bokalarteko kontsonanteak gordetzeko joera dago; halere, *-r*- galdu egiten da kasu bakan batzutan: *egunozco* (96) eta agian *arcanguari* (473), *arcainguari* (501) (ik. § 4.2.1.2.). Hitz azkeneko *-r* ere desagertu da ondoko hitzotan, E-z arrunt ez izanik ere: *cau* (206) / *guiauren* (235), *laugarna* (348), *amalau* (395) (ik. 53. oharra).

Euskaraz *r* ... *r̃* segida dugunean, lehen dardarkaria disimilazioz aldatu ohi da. Honelakorik ez dugu antzematen testu honetan: *burarretan* (37), *peregrinuer* (442)[91].

4.2.2.4. Mailegu zaharretako *-n*- galdu egin da euskalki guztietan, baina E-z (eta Z, B zah.-ez behinik behin) aztarna bat utzi du, bokal eta diptongo sudurkariak, alegia. Guztiarekin ere, ezin esan daiteke E-zko bokal sudurkari ororen jatorrian galdutako *-n*- bat dagoenik (*Pos*, 289). Era berean, bokal sudurkariak zeuden lekuetan batzutan kontsonantea berragertu da.

Horrela, hitz hasierako *ĩ*- (edo *Vĩ*-) dugunetan kontsonante sudurkaria berrezarri egin da, sudurkari sabaikoa agerraraziz eta zenbaitetan bokala irentsiz: **in-* > *ĩ-* > *iñ-* > *ñ-* (> *n*-). Azkeneko pausua ez da *DU*-n gertatu: *ñor* (252) < **e-nor*, *ñori* (260)[92]. Sudurkari berrezarria izan dezakegu, orobat, *r* baten aurrean, baina testuaren grafi-sistema dela zio zail da jakiten *DU*-n hala gertatu den ala < n > grafema bokal sudurkariaren adierazgarri soila den (ik. § 4.1.1. eta 29, 70. oharrak): *onriari* (232) ('ohoreari', 'ondrari'), *orntia* (445) ('ehortzea') / *orci* (151). Gainerako testuen grafiak ere kontutan hartuz gero, esango nuke lehenak [on-] eta bigarrenak [õ-] duela. Halaber, hipotesi honen alde jokatzen dute, ene ustez, *onrra* (250) eta gorago aipatu Hual*Dot honrriari*, *honrratia* / *onrcic*. Honen arabera, azken batean biek jatorri bertsua izan arren, lehenerako **(h)onore* > **õore* > *õre* > *onre* bilakabidea proposatuko nuke, eta bigarrenerako, aldiz, **(h)onor-* > **õor-* > *õr-* (*FHV*, 83, 22. oh.).

(90) Auzi honen ikuspegi osoa dakar Yrizarrek (1981: 354-356). Cf. Gar0 *dud*, Gar02 *diezud*, *dudalaric*, *eztudala*, *baytutud*, *dayztazudala*, *diazcacicud*, *zutud*, *zutudan*, *bayzutud*, Hual*Eb -d* (baina *dur*, disimilazioz (ik. 37. oharra), bokal aurrean *duan*, *duala*), EDot -δ (ikur honekin Bonapartek darabilena adierazi nahi dut), *Etudes*E -δ, Mdg *-d* (*duan*), *Cuest*Bid *dud*, *Cuest*UrzUzt *diar*, F.B. *diár*; halere, Hual*Dot -r* (*dud* eta *dur*, bokal aurrean *duan*), noiz edo noiz disimilazioa dela pentsatzeko itxurazko arrazoirik gabe ere: *baizaitur* (E-z bitxi den forma), *daizur* (birritan).

(91) Cf. Hual*Dot* E*Dot burarretan*, *Cuest*Bid *burar*, *Contr*Iz *burárra*, *Contr*Uzt *búdarra*, Zar*Dot* Ae*Dot bularretan*, Gèze *bulhar*, orok. *bul(h)ar*; Gar0 *pelegrinuer*, Hual*Dot pelegrinuari*, E*Dot pelegrinuer*.

(92) Cf. Er*Dot ñeurere*, *ñeurire*, Gar0 *ñor* baina *nori* (cf. *FHV*, 184), Hual*Dot* E*Dot ñor*, *Cuest*Bid *ñior*, *ñiorere*, *Cuest*Urz *ñeur*, *Cuest*Uzt *eur*; cf., halaber, Zar*Dot ior*, Zar*Dot*2 Ae*Dot yor*, Gèze *ihur*. Beraz, *DU*-n ez da agertzen Urzainkiko azpieuskalkiari bide zegokion *ñeur*.

4.2.2.5. Maileguetan E [ts] dugu, Z-z bezala, are gainerako euskalkiek [ts] duten hitzetan (*Pos*, 290): *cerbuchu* (16), *cruche* (20) (ik. 41. oharra eta § 4.2.1.6.). Afrikatu sabaikoa jatorriz forma adierazgarriak diren hitzetan ere aurki dezakegu (*Pos*, 290): *achiça* (388), *achicionia* (457)[93]. Badirudi, beraz, Bid. Urz. (?) *atizatu* aurreragokotzat jo behar dugula, Iz. *átxixatu* (*átxexatu?*) eta Uzt. *atxezatu* haren forma adierazgarriak liratekeelarik. Alabaina, oraingoz ilun geratzen da hitz honen etimologiaren auzia, taiuzko azalpenik ez baita oraino eskaini (ik. Gorostiaga 1969: 13; Mitxelena 1985: 280 eta oharra): bietan eragozpen semantikoekin egiten dugu topo (fr. *accise*, lat. *baptizare*), Gorostiaga gainera forma bustitik abiatzen delarik[94]. Azkenik, sabaikoa dugu *Vitz* > *Vtx* bilakabidearen ondorioz (ik. § 4.2.1.4.): *gach* (104), *bacocha* (137).

Txistukari igurzkari sabaikoa hitz hasierako eta morfema barneko **j*-ren emaitza izan daiteke (ik. § 4.2.2.1.). Bestalde, *DU*-n agertzen diren gainerakoak maileguak dira, non erromantzeetako ahostuna ahoskabetu egin den: *prosimo* (280)[95]. Edo kontsonante aurreko *aiz* > *ax* bilakabidearen ondorio: *gastoer* (363), *gaisto* (47) (ik. 33. oh.).

Alboko sabaikorik ez da ageri testuan. Bai bokal ondoan bai diptongo ondoan, [l] gorde bide da: *ilordian* (122), *ilen* (158), *emoyle* (312), *eguile* (514), *aylatu* (518). Orobatsu [n]: *doctrina* (1), *sinestan* (125), *berginaganic* (144) eta *gaynetic* (239), besteak beste. Halere, bada salbuespenik: *ceñetan* (27) eta *siñen* (166) / *sinen* (356)[96]. Sudurkari sabaikoa, gainera, maileguetan ager daiteke: *señalea* (18-19); edo **in* > *ĩ* > *iñ* > *ñ* bilakabidearen ondorioz (§ 4.2.2.4.). Testuan hitz hasierako **ni*-ren bilakabidean, badirudi despalataltzea gertatu dela: *nore* (493), eta ez *ñore* (ik. 66. oharra).

4.2.2.6. Sinkopa ugariak direla eta, euskaraz ohizko ez diren hainbat kontsonante talde sortzen dira: *zraya* (2), *empleetra* (17), *cruche* (20), *drade* (29), *grelaric* (37), *potrearen* (148), *ztiela* (337), *satra* (432). Hitz bakar batean hausten da *muta cum liquida* taldea eta sinkopatu gabe mantentzen: *borontean* (35)[97].

E-z (eta Z-z) sudurkari eta *l*-ren ondoan ez dago herskarien ahoskabe / ahostun aurkaritzaren neutraltzerik, sekula egin ez zuelako edo oso goiz utzi zelako (*FHV*, 355 hh). Hortaz, bai euskal ondareko hitzetan bai mailegu zahar eta berrietan —azken hauetan euskalki batek ere ez du neutraltzen— herskari ahoskabe zein ahostunak ager daitezke. Dakusagun taldez talde zein adibide agertzen den *DU*-n:

a.- *lt*: *altescoyecualtian* (164), *altescoyecualen altean* (353) eta mailegu berriagoa den *faltaz* (493).

b.- *np* < mp >: *empleetra* (17) eta *cumpli* (91), biak mailegu berriak.

(93) Cf. Gar0 *atica*, HualDot *atizatu*, EDot *atizatia*, ElUrz *atizatra*, ElUzt *atxezatu*, ParrBid *atizatu*, ParrUzt *atxezatu*, ContrIz *átxixatu* (edo agian *átxexatu*); *achicionia*-rako, ik. 87. oharra.

(94) Halaber, diferentzia nimiño bat dago bi autoreok proposatu etimologien artean: Mitxelena bereaz eszeptiko samar agertzen den bitartean, Gorostiagak —Grierak bezalaxe— jauzi semantikoa egiten du. Zerrendatxo honetan, agian, ez ote luke lekurik mereziko gorago aipatu *atrición* delakoak?

(95) Cf. Gar0 *prosimo*, Gar02 *progimo*, HualDot *projimua*, *progimuen*, EDot *projimua*, ZarDot2 *proximo*, *progimo*. Agi denez, hauetako grafia gehienek ez dute sabaikorik adierazten, [x] belarea baizik.

(96) Cf. HualDot EDot *ceinatia*, AeDot *ceinatcea*, ZarDot *ceñatcea*, ZarDot2 *ceñazea*; Gar0 *sinen*, ErDot HualDot EDot *ssinen*, ZarDot2 *ssinen*.

(97) Cf. ErDot *vorontean*, HualDot *borontian* (ohar batean *brontian*), EDot *borontian*, ZarDot *borondean*, Gèze *boronte*.

c.- *nt* taldea erruz ageri da: *nontic* (6), *saintian* (15), *santigueta* (31), *borontean* (35), *pensamentu* (56-57), *santifica* (86), *borontatia* (92), *tentacionian* (102), *cantic* (154), *parcamentioan* (178), *contan* (200), *mandamentiac* (225), *juramento* (243), *iganteac* (246), *ontarzunic* (269), *enteroric* (377), *sacramentiuc* (447), *ordenamentu* (462), *istantean* (527).

d.- *nk*: *encarcelatier* (428).

e.- ahostundun taldeak oro har gorde dira: *zombat* (26)[98], *limbuetra* (153), *mandamentiac* (205), *andre* (470). Are *nf* taldea ere: *confesa* (382), *confirmaciona* (453)[99]. Zenbaitetan, alabaina, taldeok murriztu egin dira: *zunien* (5), *cohenietan* (233), *balimadigu* (384), *manetan* (391)[100].

N, *l*, *r* + *txistukari* erako kontsonante taldeek arazo bereziak agertzen dituzte testu honetan. Esan bezala, grafiaren arabera ez dago jakiterik txistukaria igurzkari ala afrikatua den. Eta ez dago arrazoirik, zentzudun izango bagara, testuinguru horretan erabateko neutraltze baten ondorioz igurzkariak baizik ez direla agertzen pentsatzeko. Aitzitik, Mitxelenak dioenez (*Pos*, 293), badirudi E-n Z-ren egoera berdintsua suertatu zela, hots, *n* eta *l*-ren ondoan afrikatua genuke beti, mailegu berrietan izan ezik. Hortaz: *mincetan* (37) = [mintsetan], *enzun* (378) = [entsun] (ik. 30. oharra); *pensamentu* (46-47), *esperanza* (190)[101], *falsoric* (243), *consejo* (409), *consoleta* (417), *pacienciaz* (422), *concepcione* (523). Ordea, *r*-ren ondoan bai igurzkaria bai afrikatua ager litezke[102]. Hitz barnean afrikatua da garbiki *zorcigarna* (259) hitzekoa eta igurzkariak, aldiz, *orci* (150), *berce* (234), *borzgarna* (251) eta *ontarzunic* (269) hitzetakoak. Hitz azkeneko egoeraz Mitxelenak eta Moutard-ek[103] diotena gorabehera, Mitxelenak berak *borz* jaso zuen Uztarrozen; Azkuek, bere aldetik, *borz* (AN-b-lez, R-uzt) eta *bortz* (AN-est, BN-gar-s, L, R) dakartza; azkenik, testuetan eta Bonaparteren datuetan *borz* eta *bortz* txandakatzen dira (ik. 29. oharra). Guzti hori aintzat harturik, ez naiz ausartzen *DU*-ko *borz* (371) hitzeko txistukariaren nolakotasunaz deus ziurrik baieztatzera, ezer esatekotan [bors] erakusten duela aurreratuko banu ere.

4.2.2.7. Bi herskarien topaketa *bai(t)*- (*bei(t)*-) atzizkiak eraginik suerta daiteke. Ondoko atzizkia *d*-z hasten denetan, E-z *bait*- eta *baid*- (*beit*-, *beid*-) emaitzak txandakatzen dira, Mitxelenak ongi azaltzen duenez, nahiz *bai*- nahiz *bait*- hartzen baitute atzizkiaren formatzat[104]. Guztiarekin ere, badirudi Bidankozetik kanpo *bait*- dela emaitza bakarra. *DU*-n ere ahoskabea agertzen zaigu beti: *baitago* (14-15), *bayta* (23),

(98) Cf. ErDot *zombat*, HualDot EDot HualEb *zomat*, *zomait*, CuestBid *zomait*, ElUrz *zonbat*, ElBidUzt *zomat*, ArtIz *zónbat*, *zóma(i)t*, ArtUzt *zómat*, *zómai(t)*.

(99) Cf. ErDot *confecionia*, Gar0 *confesa*, HualDot *confesatia*, EDot *co(n)fesatia*, ContrIz *kóbesatù*, ZarDot *confesatcea*, AeDot *cobesatcea*, Gèze *cofesa*; ErDot *confirm.ª*, Gar0 HualDot *confirmacionia*, HualEb *confirmatan*.

(100) Cf. ErDot *zunien*, HualDot *zunien*, *zunion*, EDot CuestBid *zunion*, CuestUrzUzt *zunien*, Zar1780 *(i)nuen*, AeDot *cendue*, Gèze *zunían*; Gar0 *combietan*, HualDot EDot *conveni*, HualEb *conbeni*, Mdg *comeni*: ErDot *balimada*, Gar0 *balimadigu*, EDot *barimadu*, HualEb *balimada*, *balimadacazu*, Mdg *barimada*, ContrIz *balimada*, Zar1780 *balimada*, ZarDot *balmadu*, ZarDot2 *balmadugu*, *balimadugu*, AeDot *balimadu*, Gèze *balima(da)*, Lizarraga *barin*; Gar0 *mandatan*, Gar02 *manetan*, HualDot *mandatan*, EDot *manatan*, HualEb CuestBid *manatu*, Zar1780 ZarDot2 *manacen*, ZarDot AeDot *manatcen*, Gèze *manhatù*.

(101) Cf., halere, ErDot *esprancharen*, HualDot EDot *acabancha* adibide soiteak eta *FHV*, 287, baina Mitxelenak dioenagatik ere E-zko testuetan lat. *-antia*-ren ondoriorik naharoena *-anza* da eta ez *-ancha*.

(102) Izaban (eta Uztarrozen?) *-rz-* taldea *-st-* bilakatu da euskalki anitzetan bezalaxe.

(103) Cf. «En posición final las sibilantes se pronuncian africadas detrás de *r* como detrás de cualquier otro fonema» (*Pos*, 293) eta «Mais à la finale, on trouve toujours *tz* après *r* » (Moutard 1975: 164).

(104) Cf. HualEb *ezbaidra edo ezbaitra*.

baitugu (99)[105]. *G*-z hasitakoetan, ahostuna mantendu da E-z: *baygutien* (25)[106]. Azkenik, *bai(t)*- (*bei(t)*-) atzizkiari *z* batek jarraituz gero, igurzkari mantendu bide da E-zko hizkera guztietan: *beicen* (137), *beycien* (361), *ezpaycien* (366)[107].

Adizkiaren aurretik *ez* azaltzen denean ere, zenbait bilakabide morfonologiko gertatzen dira euskalki gehienetan. Erronkarieraz adizkia herskari ahostun batez hasten den kasuetan badirudi, *bai(t)*-ekin bezala, *g* beti ahostun geratzen dela. *DU*-n adibide bakarra dugu: *ez guizazula* (101)[108]. Aldiz, *b* eta *d*-ren kasuetan zalantza ugariago agertzen dute testuek eta bestelako datuek[109]. *DU*-n beti ahoskabetzen da: *eztezagula* (244), *ezpaycien* (366), *eztaquienari* (406)[110].

4.3. *Morfologia*

4.3.1. Testuaren luze-laburra eta izaera direla eta, ezin da morfologiari buruzko ondorio zehatzik atera. Haatik, E-ren ezaugarri diren zenbait arazorekin topo egiten dugu *DU*-n ere. Esaterako, deklinabide kasu batzuren forma eta erabilera bereziak. Horrela, partitiboa baiezko testuinguruetan ere ager daiteke, Mitxelenak (*PT*, 369) dagoeneko ohartarazi zuenez, egitura arkaikoa eratzen delarik: *Sines / dugula / Joang[u]eico bat / berdaderoric* (293-296)[111]. Atzizkiak adberbio bilakatzeko funtzioa betetzen du nabarmenki ondoko bi adibideotan: *meza enteroric / enzun dezagula* (377-378), *decuma eta primiciac / enteroric / eguin dezagula* (394-396)[112], cf. orok. *osorik*. Bestalde, behin *-ik*-en ordez *-ek* agertzen da, zorigaiztoz irakurketa oso garbia delarik: *Becatu Originalec bague* (526). Erratarako atea geratzen da zabalik, nonbait.

Bi aldiz ergatiboaren marka falta da: *cer erranaidu cristiaya?* (9), *cer erranaidu Cristoren / guizona?* (11-12). Lehenbizikoaren antzeko zerbait dakar Hual*Dot*-ek ere: *cer erran naidu Christiain?*; Jakina, Bonapartek bere argitalpenean zuzenduko du: *cer nai du erran cristiaĩ icen conec?*

Zenbaitetan genitiboa espero genezakeen lekuan datiboa dago: *Joangueyco Jeinari / onriari / cobenietan denac* (231-232), *Ama Berginari / Concepcione Saintia* (522-523) eta ziurrenik *guiauren christiain lagunar[i] / probechoari* (235-236). Ez dira E-zko adibide bakarrak, Gardeko otoitz bilduman behintzat ageri baitira, esaldi bertsuetan ageri ere[113]. Datu hau *DU*-ren eta Gar*0*-ren arteko erlazioa (ik. § 1.4.) bermatzeko adina-

(105) *Baytugu* (487) = *bait-* + *tugu*. Ohartarazi behar Hual*Dot bait-* + *-d* bilkurak oro E*Dot*-en *baid-* agertzen direla, Bonapartek aldaturik.

(106) Cf. Er*Dot* Hual*Dot baiguintien*, E*Dot baiguintion*, *Cuest*Bid *baigra*, *baiginien* (sic).

(107) Cf., esaterako, Hual*Eb baicion*, *baicein*, *baicen*, *baizaicei*,...

(108) Cf. Er*Dot ezguichazula*, Hual*Dot ezguitzazu*, E*Dot ez guitzazula*, *EI*Urz *ezgutzugu*, *EI*Uzt *ezgutzu*.

(109) Cf. Hual*Eb ezdena edo eztena*, *EI*Urz *ezpalaki*, *EI*Uzt *ezbalaki*.

(110) Cf. Gar*0* *estezagula*, Gar*02* *eztudala*: Gar*0* *ecpaiten* (??), Hual*Dot* E*Dot ez baiztein*, *EI*Uzt *ezbaleki*; Gar*0* *eztaquienari*, Hual*Dot* E*Dot ez daquionari* *EI*Uzt *eztakizu*.

(111) Cf. Er*Dot Juangueico bat dugula berdaderoric* eta beheraxeago *eztugula Juangueico vat vaici verdaderoric*, Gar*0* *sines dugula Gangeco* (sic) *bat berdaderoric*, Gar*02* *nic sinestan diezud*, *Zutan zrela ayta Jangoyco*, *Semea Jangoyco*, *Espiritu Sayntu Geyna Jangoyco*, *irur Persona distintorir* (sic), *eta Jangoycobat Berdaderoric*..., baina Hual*Dot ssinestia Jangueico solo batian*, E*Dot ssinestia Jangueico guciuen poderoso solo batian*.

(112) Cf. Gar*0* *meca enteroric enchun hichagula* (sic), Hual*Dot meza entero entzutia*, E*Dot meza osoric entzutia*; Gar*0* *decuma ta primicic bere temporetan enteroric enguin* (sic) *dizagula*; cf., *halaber*, Gar*02* ...*nolare izanic zu cain onic eta cain dignoric honeresi eta estimaturic izayteco*...

(113) Cf. Gar*0* *Jayngeyco geinari onriari combietan dena*, *guiauerer* (sic) *christian launari provechoari* eta, halaber, *Zazpi drade Elicama San[tia] Catolicari Sacramentu sanintiac* (sic). Ostera, cf. Hual*Dot Lein irurac pertenecitan dra Jangueicuaren honriari, eta berce zazpiac progimuaren provechuari*.

koa ez bada ere, beraren alde egiten du aurka bainoago. Datibo plurala, bestalde, *-er* da E-z, Z-z, BN-z eta Zar-z (ez Ae-z) bezalaxe: *daicuguner* (100), *oner* (359), *gastoer* (363), *erier* (428), *encarcelatier* (428), *peregrinuer* (442), *gucier* (479). Ablatibo pluralak bi forma hartzen ditu: *esayetatic* (41), *gucietaric* (52)[114]. Adlatibo singularra, jakina denez, *-ara* forma du E-z eta *-eara* aurreko izenkia kontsonantez amaitzen baldin bada (cf. Z *-ala(t)*, *-iala(t)*): *bioceara* (62-63), *soinneara* (63-64), *escoinnecoara* (64-65). Antzinean, deklinabide kasu honetan ere mugatzailea sartzen zela uste izan arren, badugu orain De Rijken eritzia (1981: 94), zeinen arabera inesiboan gertatzen den gauza bera izango baikenuke, hots, leku-izenak adierazteko *ga* hizkia sartuko litzateke kasu markaren aurretik: **soin-ga-ra* > **soinegara* > *soineara*[115].

Posposizio batzuk eskatzen duten kasuari bagagozkio, *DU*-n *guciez gaynetic* (239), *erdiz leyn* (328) eta *erdiz guero* (330) adibideak agertzen dira. Egitura hauetako bakoitzaren hedaduraz E-zko testuak oro ez datoz bat, inolaz ere[116]. Lehenbizikoa, gainera, aski zabaldua dago E-tik kanpo ere, bereziki zenbait esakunetan (*oroz gain*, esaterako) eta, esanahia zertxobait aldaturik, *-z gain(era)* egituran[117]. Beste bien artean, *-z gero* dugu hagitzez ere hedatuago, *-z lein* erakorik E-tik kanpo idoro ez baitut[118].

Bizidunek ez dute beti atzizki berezirik hartzen leku-denborazko kasuetan; honela: *esayetatic* (41), pluralean ekialdean arrunta den legez, eta *Joangoicuatan* (126) forma bitxia, ez singularrari ez pluralari dagokiona. Bestaldean *Jesu Ch[r]isto Jeina- / ganic* (7-8), *goregana* (90), *Ama Berginaganic* (144) ditugu. Esan gabe doa zail dela ziurtatzen lehenbizikoak arkaismoak ala erdararen eraginez eratuak diren. Azkenik, solezismo kasu garbi bat agertzen da deklinabideari dagokionean: *Elizac / manetan tien egunac / barur dezagula* (390-392). Izan ere, *egunetan* espero genuke. Oraingoan ere forma bera kausitzen dugu Gar*0*-n (ik. § 1.4.)[119].

4.3.2. Hitz eratorri eta elkartuak urri dira, erdaratik berriki mailegatu hitz ugarien aldean. Bestalde, agertzen diren atzizkiak oro, nonbait, arrunki erabilietakoak ditugu: *-ari*, *-ki*, *-tarzun*, *-zale* (= mend. *-tzaile*) / *-le*, *-zione* eta, nahi bada, *-zko*: *becatari* (120); *criazale* (131), *salbazale* (309), *gloria emoyle* (312), *otoy eguile* (514); *ontarzunic* (269); *andiqui* (489); *achicionia* (457); *miserikordiazcoa* (188), *nejarrezco* (200), *lujuriazco* (254), *fedezcuac* (286). Gainerako hitz eratorriak —ez euskal eratorriak, baina— maileguetan kausitzen ditugu: *borontatia* (92), *tentacionian* (102), *parcamentioan* (178), *resurreccionian* (180), *mandamentioac* (227), *dibinidade* (288), etab. Hitz elkar-

(114) E-zko testuetan bai singularrean bai pluralean bi atzizkiak txandakatzen dira, pluralean *-etaric* maizago agertzen bada ere. Bonaparteren datuetan *Cuest*Bid *Burgosetik*, *Romatik*, *zeuritik*, *usiltarik*, *etsetik*, *etsetarik*... eta *Cuest*UrzUzt *Burgoserik*, *etserik*, baina *lurretik* ditugu.

(115) Otoit bedi De Rijken ustez, adlatiboaren marka *-ra* dela eta ez *-a*.

(116) Cf. Er*Dot gaiza gucien gainetic*, Gar*0* *gaiza* Gar*02* *gayza guciez gaynetic*, Hual*Dot* E*Dot gaiza guciuen gainetic*; Er*Dot erdiz lein*, Hual*Dot libratu antzinian*, E*Dot erdi beino lein*; Er*Dot erdizguero*, Gar*0* *erdic gero*, Hual*Dot libratuz gero*, E*Dot erdiz guero*; cf., *halaber*, Mdg *oraiz lein*.

(117) Cf. beste muturrean, espero behar zenez, Bet *gauza guztiez ganeti*, *VJ gancegusties ganean*, baina *gauce gustien ganean*.

(118) Cf., besteak beste, Bet *jayo baño lenago / jayoazquero*, *ETZ* (Etxalar 1749) *Erdibiño len / erdiazguero*, Zar1780 *erdiveño len / erdiz gueroz*, Eliz*Dot erdi vaño len / erdi ezqueroz*.

(119) Cf. Gar*0* *elicac mandatan tion egunac barur dizagula*, baina Hual*Dot Eliza Ama Saintiuac mandatan dionian barurtia* eta orobatsu euskarazko gainerako dotrinetan.

tuak, orobat, bakan batzu besterik ez dira: *ilordian* (122), *altescoyecualtian* (164)[120], *Elizama* (173)[121], *oneresi* (240), aditz elkartuetatik eratorritako *gloria emoyle* (312) eta *otoy eguile* (514), eta hitz elkartua baino azentuaren ondorio hutsa dirudien *faltandiz* (495)[122]. Gauzak horrela, garbi da oso testu landu baten aurrean ez gaudenik; aitzitik, artikulu honen hasieran iradoki den bezala, herriko otoitzak bilduko zituen izkribua genuke, besterik ez, egileak euskararen baliabideak arakatzeko inolako asmorik ez duelarik, ene ustez.

4.3.3. Ekialdeko euskalkietan ohi denez, aditz oina agertzen zaigu aginterazko eta subjuntibozko adizkietan (ahalerazko adizkirik ez da ageri): *libra guizazu* (41), *guarda eta libra guizan* (45-46), *santifika bedi* (86), *ez guizazula eiz* (101), *uzul dazcuzu* (203). Behin laguntzailerik gabe: *sines* (293). Baina bada salbuespen bat: *oneresi eta estima dezagula* (240)[123]. Bereziki interesgarria da *santifika bedi* forma, latinezko pasibozko adizki bat —*santificetur*, hain zuzen— itzultzen baitu. Euskarazko kateximetan forma hau *santifikatua izan bedi / dadila* erakoekin txandakatzen da, tokiaren edo garaiaren araberako banaketarik ezin antzemanik; badirudi, ostera, bi adizki hauek eredu ezberdinetatik abiatu direla, hau da, lehena zuzenean latinetik eta bigarrenean gazteleratik[124].

Erronkarierazko aditz morfologiaren arazo deigarria da aditz izenek hizkera ezberdinetan hartu dituzten formak. Arazoa sortzen da, hain zuzen, partizipioan *-atu* bukaera duten aditzen formekin. Aurre-hipotesi gisa, diodan Bid. Er. Iz. Uzt. *-a* + *-te* > *-ate* (abs. sing. *-atia*[125], ines. *-atan*, *-aten*[126]) eta Gar. Urz. *-a* + *-eta* > *-eta* (abs. sing. *-eta*, ines. *-etan*) bereizketa dugula. Azkeneko hizkera hauetan *-eta* atzizkia honelako aditzek soilik hartzen dute, gainerakoek hizkera orotan *-te* ezartzen baitute. *DU*-ko adibideak, noski, bigarren taldeari atxikitzen zaizkio: *empleetra* (17), *ceñeta* (30) eta *ceñetan* (48), *santigueta* (31), *mincetan* (37), *parquetan* (99) eta *parqueta* (415) *juzguetra* (170), *zerretan* (273), *baretan* (326), *manetan* (391), *consoleta* (417), *bisiteta* (429), *rescateta* (438) eta *confesetan* (468)[127]. Salbuespen bakarrak *benedicatia* (111) eta

(120) J. A. Lakarrak jakinarazi didanez, hitz hau dotrinetan bakarrik aurkitzen da. Cf., esaterako, E-tik landakook: Bet *aldezvoatati*, *VJ alde escoatati*, *ConTAV* 5.2.11. *alde escumatati*. Iraz *alde escuetic*, OikDot *alde escuitic*.

(121) *Elizama*-rako, ik. 71. oharra.

(122) Cf. Gar0 *falta andiz*, HualDot *culpaandiaz*, ZarDot2 *culpaandiez* (hitz hauen jatorrizko itxura mantendu dut, egon litekeen lotura fonikoa markatu nahiz).

(123) Cf. Gar0 *on erehi* (sic) *testima dezagula*, *onerechi testima dezagula*.

(124) Cf., besteak beste, ErDot ZarDot2 *santificavedi*, Mdg *santifikadeila*, ContrUzt *santifika bedi*, *ConTAV* 5.2.8. BerDoc BurgDot ElizDot UtzDot *santificabedi*, EchnDot *santifica bedi*, *TAV* 3.2.14. *santificadu dila*, batetik eta Bet *santificadua içandila*, OikDot *santificatua izan bedi*, HualDot EDot *santificatruc izan deila*, ZarDot *santificatric izan deila*, AeDot *santificatua izan daila*.

(125) Ez dut uste, Hual*Eb eracustia cuec* dokumentatu arren, aditz izenaren absolutibo mugagabearen formatzat *-tia* hartu behar dugunik. Aldiz, nahasketa forma mugatuaren maiztasun handiagoagatik sortzen dela pentsatzea nahiago dut (cf. Hual*Eb odol flujo edo odol usurtiua bataric*).

(126) Orobat *-tako*, *-teko*, etab. Hizkera hauetan bi forma hauek duten ingurune-banaketa edota maiztasuna ez dira oraino aztertu. Bidenabar, Mendigachak gutunetan *-atra* erabili arren, Kredoaren itzulpenean *juzguetra* dakar.

(127) Cf. HualDot EDot *ceinatia*, *ceinatan*; ErDot HualDot EDot *santiguatia*; HualDot EDot *Cuest*Er *mintzatan*, ArtUzt *mintzatan*; ErDot *parcatan*, Gar0 *parqueta*, Gar02 *parquetan*, HualDot EDot *parcatan*, *parcatia*, *Cuest*Er *parkatan*; ErDot *juzguatra* (sic), Gar0 Gar02 *juzguetra*, HualDot EDot *juzgatra*; Gar0 *cerretan*, HualDot EDot *encerratan*, *Cuest*Er *enzerratan*; Gar0 EDot *baratan*; Gar0 *mandatan*, Gar02 *manetan*, HualDot *mandatan*, EDot *manatan*, IzagIz *manatan*; Gar0 *consoleta*, HualDot EDot *consolatia*; Gar0 *vissiteta*, HualDot EDot *bisitatia*, *visitatia*; Gar0 *rrescateta*, HualDot EDot *rescatatia*; Gar0 *confesetanuzu*, HualDot *confesetan*, EDot *confesatia*. Gar0-k

benedicatea (113) dira —**benediqueta* beharko lukete—, baina zalantzazko egitura sintaktiko batean kokaturik daude (ik. § 4.4.2.). Bi kasutan *-eta* dugu *-i*-z bukaturiko aditzetan: *cobenietan* (233) eta *erdietan* (329) (cf. *erdiz leyn* (328))[128]. Bonapartek atzizki banaketa honen berri eman zuen, bidenabar, aezkerazko, zaraitzuerazko eta erronkarierazko adizkiei eskaini zien lanean, baina atzizki hauetarako ematen duen hedadura ez da oraintsu aurkeztu dudan bera:

> Dans les variétés d'Urzainqui et d'Uztarroz, l'inessif et le substantif génitif [*-t(z)eko* erakoak] finissent toujours par *tan* et *tako*; '*ʃatan*, *ʃatako*; *ʃate*, *ʃatia*'. Que si la voyelle qui précède *ta* est un *a* à Vidangoz, elle se changera en *e* dans les noms verbaux correspondants de plus de deux syllabes, appartenant aux deux autres variétés: 'toketan, toketako'. Dans ce dernier cas, le substantif sans suffixe ne se termine pas en *te* ou en *tia* comme à Vidangoz, mais en *ta*, soit à l'indéfini, soit au défini: *toke*ta 'toucher, le toucher' (*Etudes*, 24, oharra)

Hortaz, Urzainkiko hizkeran (Urzainki eta Erronkarin) eta Uztarrozekoan (Uztarroze eta Izaban) gertatzen dela dio. Baina testuekin erkatuz gero, bi kontraesan nabari dira: Bonaparteren sailkapenean Bidankozeko hizkerari badagokio ere, Gardeko testuetan *-eta* dugu; Urzainkiko hizkeran, bestalde, bi formak ageri dira, *-eta DU*-n eta *-te* Er*Dot*-en. Bi testu hauen sailkapen arazoak gorabehera (ik. § 1.2.), garbi da biak Urzainkiko hizkeran kokatu behar ditugula eta, ondorioz, hizkera horretan ezin esan forma bakarra dagoela. Hirugarren puntu bat aipatu behar dut hedadura banaketa honetaz: Bonaparteren garaiko Uztarrozeko testurik ezagutzen ez bada ere, mende honetako datuen arabera hizkera horretan *-te* atzizkia bakarrik dagoela ikusi dugu. Beste alde batetik, printzeak ematen duen azalpena aski nahasia da, bi bilakabide ezberdin bereizten baititu, nolabait: *-te* > *-ta* eta hauen aurreko *-a-* > *-e-* bihurtzea, alegia. Ene eritziz, gorago adierazi dudanez, bi atzizkitzat hartu behar dira.

Irakurle zuhurra berehala ohartu dateke *-eta* atzizkia bizkaierazko *-eta* atzizkiarekin parekatu ahal dela. Lakarrak (1986b: 656) eta Zuazok (1988: 373) erlazio honen berri eman dute, baina ez beharbada *DU*-koak bezain adibide gardenak erabiliz. Guztiarekin ere, antza ez da erabatekoa. B-zkoak distribuzio zabalagoa erakusten du, dagoeneko Bonaparte konturatu zenez:

> Les noms verbaux biscaïens qui se terminent à l'inessif en *etan* au lieu de *aten* sont ceux qui à l'indéfini se terminent en *au*, *iu*, *du* ou bien en *a* ou *e*. Ceux en *au*, *du*, et *a* changent ces finales en *etan*, ceux en *iu* ne changent en *etan* que l'*u* final, et ceux en *e* ajoutent la finale *tan* à l'indéfini. (1869: "Sixième tableau préliminaire", 2. oh.)

Garbi dago printzeak ez duela atzizki honen ingurunea ongi zehazten, baina hemen ez dut lekurik auzi hau xeheki azaltzeko (ik. halaber Zavala 1848: 13). Ekar ditzadan soilik, erakusgarri gisa, B-z *-i(d)u*-z bukatuen zenbait adibide: Bet *redimietarren*, *corregietea* eta *sufrietea* (baita testu berean *agui[n]duetan*, *erratuetan*, *erregutuetea*, *vcutuetea* ere), *VJ erredimietaco*, *diferencietan*, *perseguietan*, *afligietan*..., *ConTAV* 5.2.11. *servietan*, *adietan* eta *ofendietaraco*.

zenbait salbuespen agertzen ditu: aipatutako *baratan*, *mandatan*, batetik, eta *sinechetan / sinesten*, *onrzeta* < *ōrz(i)*, bestetik. Cf., halaber, *ContrIz akonpáñatan*, *entelegátan*, *bulkatan*, *ézkapatan*. ContrUzt *kastigatan*. IzagUzt *dántzatra*, *dantzatiá*, *karákiatan*. IzagIz *dántzatan*, ArtIz *kántatan*, *xúntatan*, *entelegátan*, *trabájátra*.

(128) Cf. Gar0 *combietan*; ErDot Gar0 *erdietan*, EDot *erditian*.

Adizki jokatuetan zenbait forma aipagarri daude:

a.- *daicuguner* (100): NORI formantean pleonasmoa dago (*cu-gu*). Bai esanahiak, bai erlatiboaren ondoren agertu *-er* datibo pluralak aditzera ematen digute NORK formanteak ere plurala izan behar duela (*haiek*); beraz, **daicugueiner* [-gej-] espero beharko genuke (ik. 57. oharra).

b.- *diazcuzu* (97), *dazcuzu* (203)[129]: lehenak bai absolutibo singularrarekin bai pluralarekin komunztatzen du: *Erasucu diazcuzu / Zore sabel / Birginaleco / Frutia: / Jesus* (208) eta *Zuc parca diazcuzu / Guri gore zorrac* (97); bigarrenak absolutibo pluralarekin: *Uzul dazcuzu / Zore begui / Misericordiazco coric* (203). Komunztadura okerra gorabehera, adizki berberaren bi aldaera dira, berez singularrari legozkiokeenak antza.

c.- *dela* (518): 'izan dadila' esan nahi du; subjuntiboaren balioa duen indikatibozko adizkia dugu. Arkaismo honen beste aztarnarik ez dut idoro E-ko testuetan[130].

d.- *iguzu* (95)[131]: forma arkaiko hau, ordea, hagitzez ugariagoa da euskal dotrinetan. Oro har, honelako arkaismo bat, aurrekoa bezala, errazago kausi daiteke formulak sartzen dituzten testuetan, erlijiozkoetan eta herri literaturakoetan alegia.

Ekialdeko euskalkietan (Z, Zar eta E-z batik bat) zukako adizki alokutiboak arrunki erabiltzen dira, begirunezko adierarik gabe. *DU*-n bakanak dira honelako adizkien agerraldiak. Lehen forma *sinestian diezu* (171)[132] da, zukako bakarra *Credo*an. *Diezu* laguntzailea ez da hemen egoki dena, hirugarren pertsonakoa baita itxuraz, hau da, *du*-ren ordaina eta ez *dud*-ena[133]. Forma alokutibo garbia da orobat *confesetan nuzu* (486)[134]. Aitzitik, ilunagoak dira testuan agertu hiru *duzu* (110, 111, 113). Batetik, bigarren agerraldian ergatibo batekin azaltzen da, nahiz eta erdarazko bertsioak *izan* aditza eskatu («Bendita Tú eres...»)[135]. Beste biak forma alokutiboak direla begitantzen zait, hala iradokitzen baitute E-zko gainerako bertsioek[136] eta erdarazkoak. Baina, bestetik, zail da zehazten forma alokutiboak ala inplikatiboak diren.

Ezezko subjuntibozko adizkietan Anag + *ez* + Alag hurrenkera erideiten dugu, guztiak Hamar Mandamenduetan bilduak: *eguin eztezagula* (244, 255), *il eztezagula* (252), *ebas eztezagula* (258), *gora eztezagula* (262), *desea eztezagula* (267, 270). Gainerako ezeztapenetan hurrenkera arrunta dugu: *ez guizazula eiz* (101) agintezkoa eta *ez-*

(129) Cf. Er*Dot dazcaguzu*, Gar*0 diazcuzu, diazaguzu*, Hual*Dot dazquiguzu*, E*Dot daquiguzu*, Hual*Eb dazaiguzu, daizquiguzu*, *Etudes*E *dazaiguzu, dazkiguzu*, *Etudes*Zar *dazaikuzu, dazaizkuzu*, *Etudes*Ae *dazaguzu, dazkiguzu*.

(130) Besteak beste, cf. E-tik landa *TAV* 2.2.15 *guaradela ure guomendatu*, Juan de Amenduxen eresia *TAV* 3.1.18. *baquea dela gusiequi*), Isastiren Salbea (*TAV* 3.2.12. *Erregu ezazu gugatic [...] diñu garaden Christo-ren prometimentuen*), *TAV* 3.3.1.3. *Garean, garean leguez* eta XVII. mendeko gipuzkerazko gutunak (*ConTAV* 5.2.9. *Jesus Ma(ria) / dirala guerequin, Jesus M^a / dala gurequin, Jesús M^a / dirala gurequin*).

(131) Cf. Er*Dot eguzu*, Zar*Dot2 iguzu*.

(132) Cf. Gar*0 sinechetan diezu*, Ae*Dot ginestatzaut*, Zar*Dot ginesten zut*, Zar*Dot2 ginesten dizut;* baina Hual*Dot ssinestan dud*, E*Dot ssinestan duδ*.

(133) Cf. *Cuest*Bid *Etudes*E *diez* ('dud' zuka)/ *dizu* ('du' zuka), *Cuest*UrzUzt *diez / diezu*, *EI*Utz *diez*, *EI*Uzt *diez, dieze, diezt*, *Contr*Uzt *diezt* ('(os) he'). Gardena da, aldiz, Gar*02 sinestan diezud*.

(134) Cf. Gar*0 confesetanuzu*, Hual*Dot confesatan nuzu*, Zar*Dot2 confesazen nuzu*.

(135) Cf. Hual*Dot benedicatruc zra zu*, E*Dot benedicatruc zra*.

(136) Cf. Hual*Dot Geina da zorequin*, E*Dot Geina tzu zurequi;* Hual*Dot eta benedicatruc da...*, E*Dot eta benedicatruc tzu...*; cf., halaber, Zar*Dot2 Jauna diozu zurequin eta Benedicatua duzu...*

paycien guardatu (366-67) indikatibozkoa. Osagaien ordena bera baino[137] harrigarriago suertatzen zait subjuntibozko adizkien erabilera, hala nola lehen pertsonarena, Hamar Mandamentuak itzultzerakoan. Honetaz bat datoz Gar*0*, *ETZ* (Etxalar 1749) eta Zar*Dot2* soilik, miatu ditudan dotrinen artean[138]. Er*Dot* aditz oinaz baliatzen da mandamentuen zerrendaketan eta subjuntiboaz, aldiz, bakoitzaren azalpenean[139]; gainerako guztiak aditz izenaz.

4.4. *Sintaxia*

4.4.1. Ekialdeko euskalki ororen sintaxi bereizgarri batzu kausitzen ditugu dotrina honetan. Lau dira aipagarrienak: zenbait adizkik ez dute komunztadurarik absolutibo pluralarekin edota datiboarekin; TO-GEN transformazioaren ezarketa; txertatutako perpaus ez-jokatuetan, mendebaldeko inesiboa barik, zenbait aditzek adlatiboa eskatzen dute eta, azkenik, galdetzaileez eratutako perpaus txertatuetan adizkiak *bait-* aurrizkia darama (mend. *-n*).

Aditzaren komunztadurarik eza ekialdeko euskalkietan sarri gertatzen bada ere, erronkarieraz joera hori ikaragarri areagotzen da. Datiboa ageri delarik, adizkiak ez du berari dagokion formantea ondoko adibideetan: *Guc nola parquetan baitugu / Guri zor daicuguner* (99-100), *Leyn irorac / Joangueyco Jeynari / Onriari / Cobenietan denac* (230-233), *Ñori ere / Falso testimonioric / Gora eztezagula* (260-262), *Oner emonen dyela / Paradisoco gloria* (359-360), *Ni becataria / Confesetan nuzu / Joang[u]eyco Jeinari...* (467-469), *Carengatic / Nago otoyez / Andre Dona Maria / Betiere Virginari...* (496-499)[140]. Argi utzi behar da honelako peiturik ez dugula kausitzen lehen eta bigarren pertsonei bagagozkie: *Zuc parca diazcuzu / Guri gore zorrac* (97-98), *Guri zor daicuguner* (100), *Zuri gaudezu / Deyez* (192-193).

Absolutibo pluralarekiko komunztadura honako adibide hauetan behintzat peitu da[141]: *Zuc parca diazcuzu / Guri gore zorrac* (97-98), *Uzul dazcuzu / Zore begui / Misericordiazco coric* (203-205) ik. goraxeago § 4.3.3., *Seyac eta iganteac / Guarda dezagula* (246-247), *Ayta eta ama / Onrra dezagula* (259-250), *Ceren guardatu beycien / Aren Mandamentu Santiac* (360-361), *Ceren / Ezpaycien / Guardatu / Aren Mandamentu San-*

(137) Beste euskalkitako adibide gehiago Mitxelena (1987: 380-381)-n eta Lakarra (1986b: 655)-n.

(138) Cf. Gar*0 on erehi testima dezagula, eguin estezagula, onrra dizagula, yl estezagula*, etab., *ETZ* (Etxalar 1749) *maytadazagulla, estaguigula, onrradazagula, il eztecegula, enguin estazagula*, etab., Zar*Dot2 onechagula, eguin echagula, guarda eta santificazquigula, honrra eta respetazquigula, il ezagula*, etab., baina *eztuela guizonac deseatu vear...* bederatzigarrenean.

(139) Cf. Er*Dot jura, veigra, onrra, evachs* eta *ezagula ñeurere ill, ezagola evachs, ezagula guezurric erran.*

(140) Cf. Er*Dot parca dazcaguzu gore zorrac cala nola guc gore cristialagunari parcatan vaitutugu*, Hual*Dot guc guri zor deiner parcatan digun bicala, deiner*-ek ere komunztatu gabe, E*Dot cala nola guc parcatan baidazcagiiei guri zor daicugueiner* Bonaparte printzeak zuzendurik dago, Hual*Eb guc parcatan digun bicala guri zor daicuner* (ik. § 4.3.3.); Gar*0 Lei irorac Jayngeyco Geinari onriari combietan dena*, erlatiboa aurreko lSrekin bat ez datorrelarik, Hual*Dot Lein irurac pertenecitan dra Janguieicuaren honriari*, berriro ere E*Dot*-en aldatua: *zazca;* Gar*0 nori ere falso testimonioric gora ectezagula;* Er*Dot oner cer emonen du?*, Gar*0 oner omonen* (sic) *diola paraduiso Gloria*, Hual*Dot* E*Dot oner emoitaco;* Gar*0 Ni becataria confesetanuzu Jangeico geinari*, Hual*Dot Ni becataria confesatan nuzu Janguieico guciuen poder dionari;* Gar*0 arengatic nago otoyec Anderdona Maria bequiere Virguinari*, Hual*Dot cortacoz othoi eguitan dur Maria betic Virgen Bienabenturadari.*

(141) Komunztadurarik eza kasu honetan mendebaldera ere zabaltzen da, aspaldi Zabalak (1848) eta Azkuek (1923-25) B-ren barnean eta Bährrek (1925) G-ren barnean ohartu legez. Mendebaldeko adibide franko eta goraxeagoko autoreon aipamenak Lakarra (1986b: 662-664)-n idoro daitezke.

tiac (365-368), *Decuma eta primiciac / Enteroric / Eguin dezagula* (394-396)[142]. Ezin dugu aintzat hartu aipatu solezismoa: *Elizac / Manetan tien egunac / Barur dezagula* (390-392). Aurretik *ez-* edo *bai(t)-* duten adizkietan batzutan zail da jakiten absolutibo pluralaren formantea sartzen dutenentz, *d*-z eta *t*-z hasten direnak neutraltzen baitira (ik. § 4.2.2:7.): *Bercen guizonac / Bercen emazteac / Desea eztezagula* (265-267), *Cerengatic / Eguin baytugu / Becatuac / Andiqui* (486-489).

Ezaguna denez, TO-GEN izeneko transformazio erregelaren bitartez, perpaus iragangaitzetako —hala esatea zilegi bazait— IS objetuari, absolutiboaren kasu marka barik, genitiboarena ezartzen zaio adizki jokatugabea duten perpaus txertatuetan: *Irur crucheren eguitea* (33), *Cruche andi baten eguitea* (60), *Ilen / Eta bicen / Juzguetra* (168-170), *Injurien parqueta* (415), *Tristearen consoleta* (417), *Cautibuen / Rescateta* (437-438), *Beleycien beztitia* (440), *Ilen orntia* (445)[143].

Perpaus txertatuetatik atera gabe, ekialdeko euskalki batean espero daitekeenez, *DU*-n *-tra* (ek. *-t(z)era*) ageri da mend. *-t(z)en*-en lekuan: *Ez guizazula eiz / Tentacionian erortra* (101-102), *Satra emoytea* (432), *Edatra emoytia* (435).

Azkenik, ekialdeko euskalkien ezaugarritzat hartu ohi da galdetzaile batez hasten diren perpaus txertatuetako adizkiek *bait-* hartzea, mendebaldeko euskalkietan *-n* hartzen duten bitatean. Banaketa hau erabat zuzena ez bada ere —kontra-adibide ugari ekar bailitezke alde batetik eta bestetik—, egia da *DU*-ko adibideek ez dutela salbuespenik aurkezten, honelako perpaus orotan *bai(t)-* edo *bei(t)-* idorotzen baitugu. Horrela, moduzko bakarrean: *Guc nola parquetan baitugu...* (109)[144]; kausaletan: *Ceren / bayta Christo cru- / cificatiaren figura eta berar- / tan redimitu baygutien* (22-25), *Ceren guardatu beycien / Aren Mandamentu Santiac* (361-362), *Ceren / Ezpaycien / Guardatu / Aren Mandamentu Santiac* (365-368), *Cerengatic / Eguin baytugu / Becatuac / Andiqui...* (486-489)[145]; eta erlatibozkoetan: *zoin bai- / tago Bautismo Saintian / confesaturic* (14-16), *Zoin / Izan beicen / Concebituric / Espiritu / Saintu / Geinaren / Obraz* (136-142), *Zoin izan beycen / Concebituric / Becatu Originalec bague* (524-526).

(142) Beste testuetan, ordea, sarri gertatzen da komunztadura: cf. Er*Dot parca dazcaguzu gore zorrac*, Hual*Dot* E*Dot parca dazquiguzu gore zorrac*, komunztaturik; baina komunztadurarik gabe Hual*Dot uzulzazu gore gana begui misericordiazco coriec*, E*Dot utzul tzazu gore gana zure begui misericordiazco coriec*; Er*Dot norc aita eta ama onratan du?* eta Gar*0 aytac eta amac onrra dizagula* (zeharo garbi ez badago ere, badirudi Gar0-n *dezagula / dizagula* bikotean singularraren eta pluralaren arteko bereizketa isladatzen dela); Hual*Dot* E*Dot ceren guardatu baiztein haren* (E*Dot aren*) *mandamentu saintiuac*, komunztaturik; Hual*Dot* E*Dot ceren ezbaiztein guardatu*, komunztaturik; Gar*0 decuma ta primicic here temporetan enteroric enguin dizagula*.

(143) Salbuespen bakarra *Consejo emoytia* (410) da. Guztiarekin ere, erronkarieraz bada franko: cf. esaterako Hual*Dot irur cruche eguitia, cruche bat eguitia, consejo on emoitia, eriac hisitatia, cautibua redimitia edo errescatatia, belainzuric dena beztitia*, gero E*Dot-en* zuzenduak.

(144) Ik. 140. oharra.

(145) Cf. Er*Dot ceren eta gore Xrto geinac chruchian cruzificatruc redimitu baiguintien*, Hual*Dot cerengatic baita Christo crucificatiuaren figura, zointan redimitu baiguintien*, E*Dot Cerengatic baida Cristo crucificatiuarna zoinec cartan redimitu baiguintion*; ik. 142. oharra hurrengo bi adibideetarako; Gar0 *zeren eguin baitigu pecatia andici...*, Hual*Dot ceren becatu eguin baitur gravequi...* Alabaina, Bonaparteren datuak aintzat hartuko baditugu, perpaus kausaletan aukera handiagoa zegoen, *CzestBid*-eko adibideek erakusten digutenez: Bonapartek eskuizkribu horretako orri batean *zeren on baigra, zeren on gren, on baigra* eta *on grelakoz* aldaerak jaso zituen eta beste batean *on baita, zeren on baita, zerengatik on baita, on delakoz, zeren on delakoz, zerengatik on delakoz, zeren on den* eta *zerengatik on den*.

4.4.2. DU-ko zenbait sintagma eta perpaus, berauen sintaxi egiturari dagokionean, hagitz bitxi gertatzen dira eta egilearen arduragabetasuna edo euskararen ezagutza eskasa adierazten dute nolabait:

a.- *Zuc benedicatia duzu / Emazte gucien artean, / Eta benedicatea duzu / Zore sabel birginaleco / Frutia, / Jesus* (111-116): Hagitz latza da esaldi honen azterketa. Agertzen dituen arazo nagusiak hauexek dira: *Benedicatea* aditz izena partizipio bat espero genukeen lekuan azaltzen da. Lehenbiziko lerroko *benedicatia*, bestalde, aditz izen gisa ere uler liteke; baina ez dezagun korapiloa estu. Esan beharra dago, halere, bizkaierazko zenbait bertsiotan lehen zati honetan aditz izenaren itxurako forma aurkitzen dugula, ez oso ziurrak baina[146]. Azkenik, lehenbiziko lerroaren ergatiboa geratzen da esplikatzeke, argi baitago bigarren *duzu* alokutiboa dela (ik. 136. oh.).

b.- *Sinestan dud / Joangoicuatan / Ayta gueiza gucietan / Poder dionaren, / Ceuriaren / Lurraren / Criazale* (125-131): Egileak ohi ez den era batez zatitzen bide du erdarazko formula, hau da, «Creo en Dios Padre - Todopoderoso...» barik, «Creo en Dios - Padre Todopoderoso...» interpretatzen du. Bestalde, lehen aposizioak genitiboaren kasu marka darama (...*dionaren*) eta bigarrena kasu markarik gabe agertzen da (...*Criazale*)[147]. E-tik landa, bertsiorik gertuenak Zanettorena, Beriaynena eta Etxalarkoa dirateke: *TAV* 3.2.11. *Sinistasendut Jaun poderosoaren vaytan Creatorearen ceruaren eta lurraren* eta *ConTAV* 5.2.8. *sinestatçendut laungoyco ayta gucis poderosoan çeruaren eta lurraren creadorearen*, *ETZ* (Etxalar 1749) *Siñestacendut Jaungoyco Ayta podore guciaduenabaitan, ceruaren, eta lurraren criazallia*.

c.- *Eta Jesu Christo / Aren Seme / Gore Jein / Bacocha* (132-135): Oraingoan ere kasu marka peitu da, aurreko esaldiarekin elkarturik baitago; **bacochan* edo **bacochagan* espero genuke[148]. Harrigarria da, bestalde, *bacoch* adjetiboaren kokagunea. Baina, batez ere, hagitz susmagarria da Gar0-ko formula guztiak erakusten duen antzekotasun hertsia: *Sinesten dud Jangoycoatan Ayta gaiza guciet[an] poder dienaren Ceuriaren lurraren Criazale eta Jesu-Christo aren Seme gore geein Bacocha*. Esaldi honek argudiorik sendoenetakoa dugu *DU*-ren eta Gar0-ren arteko testu-erlazioa proposatzeko (ik. § 1.4.).

d.- *Bicice dulcea* (189): Gainerako bertsioek —gehienetan bezala Gar0 salbuespen delarik— bi izen elkarren ondoan edo koordinaturik agertzen dituzten bitartean,[149] hemen I + Adj segida arrotza dugu.

e.- *Guiauren prosimo laguna / Aflegidadez / Eta flaquezas / Pacienciaz eramaytea* (419-422): Esaldi honetan gazteleraren gurutzaketa garbia dago. Hitz azkeneko *-z / -s* nahasketa gorabehera, *Aflegidadez* eta *flaquezas* absolutiboan beharko genituzke:

(146) Cf. Zubiaren bertsioa *TAV* 3.2.10. *Bedeincatea zara zu andra gustien artean. Bedeincatua da zure sabel virginaleco fructua, Iesus, VJ bedeinqueteazara Andragustien artean, bedeinquetue da zure sabeleco frutue, Iesus*, ArrDot *bedeinquetie zara zu andra guztijen artien, eta bedeinquetue da zure sabeleco frutue, Jesus*.

(147) Cf. Hual*Dot* E*Dot Ssinestan dud* (E*Dot duδ*) *Jang[u]eico Aita guciuen poderoso, ceuriaren eta lurraren criazalian*.

(148) Cf. Hual*Dot eta Jesucristo haren Seme bacoch gore Geinan*, E*Dot eta Jesucristo aren seme bacoch gore Geinan*.

(149) Cf. Gar0 *bicice dulcia*, Hual*Dot vicia, dulzura*, AeZarE*Dot vici eta dulzura*, Mdg *vizi eta dulzura*, ZarDot2 *vizize eta dulzura*, etab.

Guiauren prosimo laguna[ren] aflegidadeac eta flaquezac pacienciaz eramaytea ulertu behar dugu[150].

f.- *Eta gore ayta / Espirituala* (484-485, 510-511): Kasu honetan ere kasu marka bat falta da, datiboarena hain zuzen[151].

4.5. *DU-ko formula bereziak*

Beste zenbait egiturak testuaren hizkuntz egoera ezagutzeko balio ahal digute eta, bidenabar, *DU*-ren datazio "zuhur" bat —XIX. mendekotzat hartzea alegia— zalantzan jarrarazi dezakete:

a.- *Trinitate Saintu Jeinnarequi* (66), *Espiritu Saintu Jeinne- / arnan* (69-70): Bigarren formula aski erabilia izan bada ere[152], lehenbizikoaren beste lekuko bat bakarrik bildu ahal izan dut (Ulz*Dot Trintete Jaun poderosoa.*). Lehenbiziko honetan oso harrigarri suertatzen da *trinitate* gisako talde-izen bati loturik *jauna* aposizioa aurkitzea. Zaila da jatorrizko erdal iturrian antzeko zerbait zegokeenik pentsatzea; aitzitik, euskal itzulpenaren fruitu dela susmatzen dut, ziuraski hedapenez sortua: cf. *Juangueico Jeina, Jesu Ch[r]isto Jeina, Espiritu Saintu Jeina* bera, etab.

b.- *Zore sabel birginaleco / Frutia, / Jesus* (114-116): Hau ere ez da formularik hedatuena; *birginal* adjetiboa oso bakanka idoro daiteke[153].

c.- *Ilen / Eta bicien / Juzguetra* (168-170), *Ilez eta biciez / Otoy eguitea* (425-426): Bi izenen hurrenkera hau ez da, dakidala, erdal bertsioetan gertatzen, alderantzizkoa baizik («a juzgar a los vivos y a los muertos» da ezagunena). Euskal kateximetan, berriz, bi moduetara agertzen dira. Dagoeneko Ibon Sarasolak ohartarazi duenez (*ConTAV*, 122), heldu zaizkigun lehen lekukoetatik (Betolaza, Zannetto, Beriain, Kapanaga) ezin jakin daiteke euskaraz hurrenkera zaharrena zein den. Nolanahi ere izanik, ziurtasun handiagoz baiezta dezakegu ustez XVIII edo XIX. mendekoa den testu batean honelako formula bat ezaugarri arkaikoa dela. Formula Gar*0*-n bakarrik errepikatzen da erronkarierazko testuen artean[154].

d.- *Bercen gizonac / Bercen emazteac / Desea eztezagula* (265-267): Gizonezkoen aipamena ez da agertuko XIX. mendeko dotrinetan, eta aldizka soilik lehenagokoetan. Arrazoia erabilitako erdal bertsio ezberdinetan bila liteke, baina zoritxarrez *DU*-ren iturria ezezagun zaigu. Bestalde, E-zko testuei berei bagagozkie, oraingoan ere Gar*0* soilik dator bat *DU*-rekin[155].

e.- *Erier eta encarcelatier / Bisiteta* (428-429): Gartzelatuen aipamena ez dut euskarazko beste dotrinatan eriden, Gar*0*-n izan ezik; baina beronetako irakurketa ez da oso argia.

(150) Cf. Hual*Dot gore progimuen adversidade eta flaquezac pacienciarequin sufritia*, E*Dot gore projimuaren aversidade eta flaquezac pacienciarequi sufritia*, Zar*Dot2 gure progimo lagunen adversidade, eta flaquezac pacienciatan ermatea.*

(151) Cf. Hual*Dot eta zuri, ene Aita*, Zar*Dot2 eta zuri Aita espiritualari*, Oik*Dot eta zuri Aita*, Burg*Dot eta zuri, ene Aita*, Echn*Dot ta zuri, nere Aita Izpirituala*. Gar*0*-n datiborik gabe agertzen da: *gore ayta Espirituala.*

(152) Cf. Er*Dot Espiritu Saintu Geina*, Gar*0 Espiritu Saintu Geina*, eta E-tik kanpo *VJ Espiritu Santu Iauneen vcenean, Espiritu Santu Iauneen obraz...*, MbIArgI *Espiritu Santu Jaunarequin*, AñEL ' *Espiritu Santu Jaunaren Etorrerea, Balad Espiritu Santu Jaunak*, LE*Doc Espiritu Santi Jauna.*

(153) Nik neuk ondoko adibide hauek besterik ez ditut aurkitu: *TAV* 3.2.10. *çure sauel virginaleco fructua, Iesus* eta *zure sabel virginaleco fructua, Iesus.*

(154) Cf.Gar*0 ylen eta bicien juzguetra, ilen eta bicien juzgetra, ylec eta biciez otoy eguitia*, baina Hual *Dot* E*Dot bicien* (E*Dot vicien*) *eta hilen* (E*Dot ilen*) *juzgatra* (birritan), *viciez eta hilez Jangueicuari otoi eguitia*, Mdg *ilen eta bizien*; cf., halaber, Zar*Dot2 illen eta vicien juzgazra, Ilen eta vicien juzgazra, Ilen, eta vicien gatic Jangoicoari otoy eguitea.*

5. Hiztegia[156]

ABOGADA: -abogada 202.
AFLEJIDADE: -aflegidadez 420.
AIENE: 'auhen, deitore' -ayenez 197.
AILATU: -aylatu 518.
AITA: -ayta 84, 127, 162, 249, 298, 351, 485, 511; -aytaren 67, 78.
ALABATU: -alabatu 519.
ALOMENOS: -alomenos 380.
ALTE: ik. ALTESKOIEKUALTE.
?ALTESKOYEKUALTE: 'eskuinalde' *-altescoyecualen altean* 353; -altescoyecualtian 164.
AMA: -ama 118, 187, 219, 249. Ik. AMA BERJINA, ELIZAMA.
AMA BERJINA: -Ama Berginaganic 144, 325; -Ama Berginari 522. Ik. BIRJEN, BIRJINA.
AMALAU: -amalau 285, 399.
AMAR: -amar 226, 271.
AMARGARREN: -amargarna 268.
AMEN: -amen 70, 83, 105, 123, 183, 224, 283, 369, 397, 446, 465, 517, 528.
ANDI: -andi 60; -andiqui 489; -andiz 109. Ik. FALTA.
ANDRE: -Andre (__ Dona Maria) 470, 498.
AO: -aoan 36, 49.
APOSTOL: -apostol 479, 507.
ARAGI: -araguiaren 479, 507.
ARIMA: -arimac 339.
ARKAINGU: -arcainguari 501; *-arcanguari* 473.
ARKANGU: ik. ARKAINGU.
ARTE: -artean 112; -artetic 158.
ARTIKULO: -articulo 286, -articuloac 284.
ATXIZATU: 'jaunartu' -achiça 388.
ATXIZION-: 'jaunartze' -achicionaren 527; -achicionia 458.
BADA: -bada (ea __) 201.
BAGE: -bague 526. Ik. GABE.
BAIJEINA: 'bai jauna' -baigeina 3.
BAIZI: -baici 103.
BAKOTX: -bacocha 135.
BARATU: 'gelditu' -baretan 326.
BARURTU: -barur 392.
BAT: -bat 295; -baten 60. Ik. BEKINBAT.
BAUTISMO: -bautismo 15; -bautismoa 451.
BAUTISTA: -bautistari 475, 503.
BAZKO: -bazcua 386.
?BEDRATZUGARREN: -bedrazugarna 264.
BEGI: -begui 204.
BEIN: -beyn 381.
BEKATARI: -becataria 466, 467; -becatariarengatic 120.
BEKATU: -becatioaren 177; -becatu 526; -becatuac 488; -becaturic 254.
BEKATU EGIN: -eguin ... becatuac 487-488.
BEKINBAT: 'bezainbat' -bequinbatez 317.
BELEIZ-: 'biluzi' -beleycien 440.
BENEDIKATU: -benedicatea 113; -benedicatia 111.
BERARTAN: 'bertan' -berartan 24-25.
BERDADERO: -berdaderoric 296.
BERE: -bere 162, 351.
BERJINA: ik. AMA BERJINA.
?BERZE: -berce 234, 289, 403; -bercen 257, 265, 266, 269.
BETE: -betea 109.
BETIERE: -betiere 331, 471, 499.
BEZTITU: -beztitia 440.
BI: -bitan 274. Ik. BIDEZ.
BIAR: (a.) -biar 26, 409, 412.
(i.) -biarric 384.

(155) Cf. Gar*0 bercen gizonon bercen emactiac desea estezagula*, Hual*Dot projimuaren emazteric ez deseatia*, E*Dot projimuaren emaztia ez deseatia*; cf., halaber, E-tik landa *ETZ* (Etxalar 1749) *berceren senarriq, edo emasteriq desea estecegula*, Oik*Dot iñoren senar edo emazteric ez deseatcea.*

(156) Sarreretan ortografia gaurkotu da, baina nolabaiteko interpretazioa egiten denean, bereziki txisrukariena, galdera marka batez adierazten da. Zalantzazko hitz azkenak marra batez adierazten dira. Kasu bakoitzaren azterketa irazkinean ikus daiteke.

BIDEZ: 'bi bider' -bidez 28.
BIGARREN: -bigarna 36, 241, 279, 297, 322, 379, 408, 430, 452.
BIKALA: 'bezala' -bicala 280.
?BIOTZ: -bioceara 62-63; -biocetic 63.
BIRJEN: -birgen 216; -virgen 327, 331. Ik. AMA BERJINA, BIRJINA.
BIRJINA: -virginari 499; -virginary 471. Ik. AMA BERJINA, BIRJEN.
BIRJINAL: -birginaleco 114, 210.
BISITATU: -bisiteta 429.
BIZI: (adj.) -bicien 169; -biciez 425.
?BIZITZE: -bicice 189; -bicicen 181.
BORONTATE: -borontatia 92.
BORONTE: 'bekoki, kopeta' -borontean 35, 44; -borontetic 62.
?BORZ: -borz 371.
BORZGARREN: -borzgarna 251, 305, 393, 416, 439, 458.
BURAR: -burarretan 37, 53-54.
BURU: (bihurkaria) -buria (guiauren __) 281.

DEI: -deyez 193.
DEKUMA: 'detxema, hamarren' -decuma 394.
DESEATU: -desea 267, 270.
DESEO: -deseo 57.
DESTERRATU: -desterratu 196.
DESTIERRO: -destierro 206.
DIBINIDADE: -dibinidade 288; -dibinidadieren 291.
DIGNO: -digno 221.
DOKTRINA: -doktrina 1.
DONA: -Dona (Andre __ Maria) 470, 498.
DONE: -Done (En __) 472, 474, 476, 500, 502, 504.
DULZE: -dulce 215; -dulcea 189.

EA: -ea (__ bada) 201.
EBA: -Ebaren 194.
?EBATSI: -ebas 258.
EBURNI: 'ifernu' -eburnico 364.
EDAN: -edatra 435.
*EDIN: -bedi 86, 91; -bequigu 88; -daquigun 513; -guiteala 382; -guitiain 221; -guitiala 388.
EDO: -edo 383.
*EDUN: -baitugu 99; -balimadigu 384; -baygutien 25; -baytugu 487; -beycien 361; -daicuguner 100; -diezu 171; -dionaren 128; -dionari 409, 412, 431, 434; -du (erranaidu) 9, 11; -dud 125; -dugu 26; -dugula 294; -dugularic 39, 67; -duzu 111; -dyela 359; -dyona 14; -ezpaycien 366; -tien 391; -ztiela 337; -zunien 6.
EGARRI (EKUN): -egarri 434.
EGILE: ik. OTOI EGILE.
EGIN: -eguin 244, 255, 396; -eguitea 33, 60. Ik. BEKATU EGIN, OTOI EGIN.
EGON: -baitago 14-15; -dagola 160, 349; -gaudezu 192; -nago 497; -zaudiana 85.
EGUN: -egunac 391; -egunean 156, 343; -egunian 167, 357.
EGUNOZKO: 'eguneroko' -egunozko 96.
?EITZI: 'utzi' -eiz 101.
EKUN: 'ukan' -ecun 6.
ELIZA: -elizac 390; -elizaco 370. Ik. ELIZAMA.
ELIZAMA: -elizama 173, 372.
EMAZTE: -emazte 112; -emazteac 266.
EMOILE: -emoyle (gloria __) 312.
EMON: -emonen 359; -emoytea 433, 443; -emoytia 410, 435.
EN: 'jaun' -En (__ Done) 472, 474, 476, 500, 502, 504.
ENKARZELATU: -encarcelatier 428.
ENPLEATU: -empleetra 17.
ENTERO: -enteroric 377, 395.
?ENTZUN: -enzun 378.
ERAMAN: 'jasan, pairatu' -eramaytea 422.
?ERATSUKI: 'erakutsi' -*erasucu* 208; -erasuquitia 407.
ERDI: (a.) -erdietan 329; -erdiz 328, 330.
ERE: -ere 260. Ik. BETIERE, EZTARE.
ERI: 'gaixo' -erier 428.
ERORI: -erortra 102.
ERRAN: -erraiten 39, 67; -erran 263; -erranaidu 9, 11.
ERRI: 'haran' -erri 199.
?ESKOIN: -escoinnecoara 64-65. Ik. ALTESKOIEKUALTE.
ESPERANZA: -esperanza 190.
ESPIRITU SAINTU: -Espiritu Saintu 69, 80-81, 139-140, 172, 319; -Espirytu Saintu 304.
ESPIRITUAL: -espirituala 485, 512; -espiritualac 402; -espiritualetaco 405.
ESTIMATU: -estima 240, 278, 282.
ETA: -eta 24, 30, 38, 46, 51, 56, 57, 68, 69, 113, 121, 132, 151, 169, 240, 246, 249, 278, 282, 363, 376, 394, 421, 425, 428, 480, 482, 484, 508, 509, 511, 515.
?ETSAI: -esayetatic 41, 75.
EZ: -ez 101; -ezpaycien 366; -eztaquienari 406; -eztezagula 244, 252, 255, 258, 262, 267, 270. Ik. EZTARE.
*EZAN: -ciza[la] 107; -cizàla 185, 191; -dazcuzu 203; -dezagula 240, 247, 250, 278, 282, 378, 392, 396; -diazcuzu 97, 208; -eztezagula 244, 252, 255, 258, 262, 267, 270; -guizan 46, 51, 56; -guizazu 41, 76, 103; -guizazula 101; -zazu 119, 220.
EZKER: -ezquerreco 63; -ezquerrecotic 64.
EZTARE: -eztare 263.

FALSO: -falso (__ testimonioric) 261; -falsoric 243.
FALTA: -faltandiz 495; -faltaz 493, 494.
FEDE: -fedezcuac 286; -fedya 14.
FIGURA: -figura 24.
FIN: -fin (__ gabean) 182.
FLAKEZA: -flaquezas 421.
FRUTU: -frutia 115, 211.

GABE: -gabean (fin __) 182. Ik. BAGE.
GAIN: -gaynetic (gaiza guciez __) 239, 277.
?GAIXTO: -gaisto 47, 52, 57; -*gastoer* 363.
GAIZA: 'gauza' -gaiza 239, 277; -gayzaric 257; -*gueiza* 127.
?GAXTO: ik. GAIXTO.
GATX: 'gaitz' -gach 104.
GAZTIGU: 'zigorra' -gaztigu 412.
GEIZA: ik. GAIZA.
GERO: -guero (-z __) 207, 330.
GEZUR: -guezurric 263.
GIAUR: -*guiareren* 279; -guiauren 235, 280, 419.
GISA: -guisas 26.
GIZON: -g[u]izon 317; -guizona 12; -guizonac 265.
GLORIA: -gloria 312, 360.
GORATU: -gora 262.
GORE: ik. GU.
GOSE (EKUN): -gose 431.
GRAZI-: -graci (__ andiz) 109; -graciaz 4.
GU: -gore 7, 13, 38, 41, 74, 96, 122, 134, 202, 222, 316, 484, 511, 516; -gorea 42, 77, 84, 90; -gu 120, 221; -guc 99; -guri 98, 100.
GUARDATU: 1. 'babestu' -guarda 45-46, 51, 56.
2. 'begiratu, bete' -guarda 247; -guardatu 361, 367.
GUZU: 'guzti' -gucien 112; -gucier 479, 483, 507, 510; -gucietan 127; -gucietaric 47, 52, 57-58, 104; -guciez 239, 277.

*I-: -iguzu 95.
IDOKI: 'atera' -idoqui 337.
IGAN: -igan 159, 347.
IGANTE: -igante 376; -iganteac 246.
IGARI: 'iragan' -igariz 207.
IKASI: -icasi 27.
IL: (*da* a.) -il 151. Ik. ILORDU.
(*du* a.) -il 252.
(adj.) -ilen 158, 168, 445; -ilez 425.
ILORDU: -ilordian 122, 516.
INJURIA: -injurien 415.
IROR: ik. IRUR.
IRORGARREN: ik. IRURGARREN.
IRUR: -*irorac* 230; -irur 33.
IRURGARREN: -*irorgarna* 36, 245; -irurgarna 299, 332, 385, 411, 433, 454; -irurgarren 155, 343.
ISTANT-: -istantean 527.
?ITZ: -iz 51; -izez 491.
IZAN: -izan 137, 221, 318, 513, 524. -bayta 23; -beicen 137; -beycen 524; -cela 152, 157, 159, 318, 324, 334, 344, 347; -celaric 326; -da 18, 32, 59; -dela 166, 298, 301, 304, 307, 309, 312, 356; -dela ('izan dadila') 518, 519; -dena 317; -denac 233; -drade 29, 226, 273, 285, 371, 399; -gra 43, 48, 53; -grelaric 37, 65; -zraya 2.
-duzu 110, 113; -konfesatanuzu 49E; -nuzu 468.
IZEN: -icen 242; -icena 87; -icenean 68, 78.

JEIN: 'jaun' -geina 28; -geinaren 141; -geinarnian 82; -geinnac 45, 50, 55-56; -geynari 424; -jein 38, 134; -jeinaganic 7-8; -jeinaren 4, 13-14, 118, 218; -jeinarequi 38-39; -jeinari 469; -jeinna 238; -jeinnarequi 66; -jeinnearnan 69-70; -jeyna 110, 276, 304, 316; -jeynac 107, 185, 191; -jeynaren 222, 228, 320; -jeynari 231. Ik. BAIJEINA.

JESUKRISTO: -Jesu Ch[r]isto 7; -Jesu Christo 13, 132, 222; -Jesu Cristo 316.
JESUS: -Jesus 70, 83, 105, 116, 123, 183, 212, 224, 283, 369, 397, 446, 465, 517, 528.
JOAINGOIKO: ik. JOANGEIKO.
JOANGEIKO: -*Joangoico* 42; -*Joangoicuatan* 126; -*Joangoyco* 77, 228; -Joangueico 45, 50, 55, 107, 118, 185, 191; -Joang[u]eyco 295, 469; -Joangueyco 231, 238; -*Joayngoyco* 424; -*Juangoico* 38; -*Juangoyco* 276; -*Juangueico* 3, 218.
JOANGOIKO: ik. JOANGEIKO.
JUANE: -Juane (En Done __) 474, 502.
JUANGEIKO: ik. JOANGEIKO.
JUANGOIKO: ik. JOANGEIKO.
JUIZIO: -juicioco 167, 357.
JURAMENTO: -juramento 243.
JUZGATU: -juzguetra 170, 358.

KALA: 'hala' -cala 94, 171.
KAN: 'han' -can 160, 349; -cantic 154, 165, 336, 342.
KARENGATIK: 'harengatik' -carengatic 496. Ik. URA.
KATOLIKA: -catolican 174; -catolicaren 373.
KAU: 'hau' -cau 206; -contan 200; -cuec 196, 272.
KAUTIBO: -cautibuen 437.
KLEMENTISIMA: -clementissima 213.
KOBENI: 'komeni izan' -cobenietan 233.
KOMUNIONE: -comunionian 176.
KONFESATU: -confesa 382; -confesaturic 16; -confesetan 468.
KONFESION-: -confesiona 455.
KONFIRMAZION-: -confirmaciona 453.
KONSEJO: -consejo 409, 410.
KONSOLATU: -consoleta 417.
KONZEBITU: -concebituric 138, 318, 525.
KONZEPZIONE: -concepcione (__ saintia) 523.
KORI: 'hori' -cori 5; -coric 205.
KORPORAL: -corporalac 404; -corporaletaco 427.
KORREJITU: -corregitia 413.
KREDO: -credoa 124.
KRIAZALE: 'sortzaile' -criazale 131, 307.
?KRISTIAIN: -christiain 2, 235; -*christiayaren* 5, 18; -*cristiaya* 9.
KRISTO: -Christo 23; -Christoren 10; -Cristoren 11. Ik. JESUKRISTO.
KRUTXE: -cruche 20, 39-40, 60, 72; -crucheren 150.
KRUZIFIKATU: -crucificatiaren 23-24; -crucificaturic 150.
KUNPLITU: -cumpli 91.

LAGUN: -laguna (prosimo __) 280, 419; -lagunari (christiain __) 235.
LAUGARREN: -laugarna 248, 302, 340, 389, 414, 436, 456.
LEGE: -leguezcoac 229.
LEIN: 1. 'lehenbiziko' -leina 35; -leyn 230, 287, 401; -leyna 237, 275, 292, 314, 375, 405, 427, 450.
2. 'lehenago' -leyn (-z __) 328.
LEINAGO: -leynago 383.
LIBRATU: -libra 41, 46, 51, 56, 76, 103.
LINBO: -limbuetra 153; -linbuetra 335.
LUJURIA: -lujuriazco 254.
LUR: -lurraren 130; -lurrean 94.

MANATU: -manetan 391.
MANDAMENTU: -mandamentiac 370; -mandamentioac 227; -mandamentu 271, 362, 368, 374; -*mandamientoac* 225.
MARIA: -Maria 108, 117, 216, 217, 470, 498.
MATRIMONI-: -matrimonia 464.
MEZA: -meza 377.
MICLE: -Micle (En Done __) 472, 500.
?MINTZATU: -mincetan 37, 65.
MISERIKORDIA: -misericordiazco 205; -misericordiazcoa 188; -misericordiazcoac 398, 400.

NAI (EKUN): -erranaidu 9, 11.
?NEXAR: 'negar' -nejarrez 198; -nejarrezco 200.
NI: -ni 466, 467; -nore 493, 494, 495.
NOLA: -nola 34, 61; -nola ... bai- 99; -nola ... cala 93.
NONBRE: -nombre 5.
NONTIK: -nontic 6.
NORE: ik. NI.

ÑOR: 'inor' -ñor 252; -ñori 260.

O: -o 213, 214, 215.
OBRA: -obra 57, 398, 400; -obraz 142, 321, 492.
OGI: -oguia 96.
OLIAZIONE: 'gantzuketa, oliadura' -oliacionia 459.
ON: -oner 359.
?ONERETSI: 'maite izan' -oneresi 240, 278, 282.
ONRATU: -onrra 250.
ONRE: 'ohore' -onriari 232.
ONTARZUN: 'ondasun' -ontarzunic 269.
ORAI: -oray 121, 515.
ORAZION-: -oracionac 71.
ORDEN: -orden (__ sazerdotal) 461.
ORDENAMENTU: -ordenamentu 462.
ORDU: ik. ILORDU.
ORIJINAL: -originalec 526.
ORO: -oroz 376. Ik. EGUNOZKO.
?ÕRZI: 'ehortzi' -*orci* 151; -orntia 445.
OSTATU: -ostatu 443.
OTOI: -otoyez 497. Ik. OTOI EGILE, OTOI EGIN.
OTOI EGILE: -otoy eguile 514.
OTOI EGIN: -otoy eguin 119, 220; -otoy eguitea 426.

PABLO: -Pablo (San __) 478, 506.
PADEZITU: -padecitu 145.
PARADIS-: -paradisoco 360; -paradisucu 480, 508.
PARKAMENTU: -parcamentioan 178.
PARKATU: -parca 97; -parqueta 415; -parquetan 99.
?PATRIARAKA: -patriaraquen 338.
PAZIENTZIA: -pacienciaz 422.
PE: -pean 149.
PEDRO: -Pedro (San __) 477, 505. Ik. PETRO.
PENA: -penac 364.
PENSAMENTU: -pensamentu 46-47; -pensamentuz 490.
PEREGRINO: -peregrinuer 442.
PETRO: -Petro (En Done __) 476, 504. Ik. PEDRO.
PIADOSA: -piadosa 214.
PODER: -poder 128. Ik. POTRE.
PODEROS-: -poderosaren 163; -poderosoaren 352.
PONCIO PILATOS: -Poncio Pilatosen 146-147.
POTRE: -potrearen 148. Ik. PODER.
PRIMIZIA: -primiciac 394.
PROBETXO: -probechoari 236.
PROMESA: -promesa 223.
?PROXIMO: -prosimo (__ laguna) 280, 419.

REDIMITU: -redimitu 25.
REINA: -reyna 186.
REINO: -reynoa 89.
RESKATATU: -rescateta 438.
RESURREKZIONE: -resurreccionian 180.
RESURREZKO: -resurrezcuetan (bazcua __) 387.
RESUZITATU: -resucitatu 157, 334.

SABEL: -sabel 114, 209.
SAINTA: (i.) -sainta 509; -*santa* 482.
(adj.) -sainta 173; -*santa* 17, 217; -saynta 372.
SAINTU: (i.) -saintu 509; -*santien* 175; -sayntu 481.
(adj.) -saintia 20, 523; -saintiac 449, 462; -saintian 15, 242; -saintiaren 17, 40, 72; -saintiarnac 288, 290; -saintietan 223; -saintu 66, 271-272; -*santia* 521; -*santiac* 362, 368; -sayntiac 374. Ik. ESPIRITU SAINTU.
SAKRAMENTU: -sacramentiac 447; -sacramentu 449, 520.
SALBATU: -salba 107, 185, 191.
SALBAZALE: -salbazale 309.
SALBE: -salbea 184.
SAN: -San 477, 478, 505, 506.
SANTA: ik. SAINTA.
SANTIFIKATU: -santifica 86.
SANTIGUATU: -santigueta 31, 59.
SANTU: ik. SAINTU.
?SAUTSI: 'jaitsi' -sausci 152; -sausi 334.
SAZELDOTAL: -sacerdotal (orden __) 461.
SEIGARREN: -seygarna 253, 308, 345, 418, 441, 460.
SEME: -seme 133; -semea 301; -semearnean 68; -semearnian 79.
SEÑALE: -señalea 18-19; -señaleagatic 40, 73.
SIENPRE: -siempre 216.
?SINETSI: -sines 293, 298, 300, 303, 306, 309, 311, 315, 323, 333, 341, 346,

355; -sinestan 125; -sinestian 171.
SOIN: 'sorbalda' -soinneara 63-64.
SORTU: -sortu 143, 324.

TENTAZIONE: -tentacionian 102.
TESTIMONIO: -testimonioric 261.
TRINITATE: -trinitate 66.
TRISTE: -tristearen 417.

UMANIDADE: -umanidade 290; -umanidadie-ren 313.
UME: -ume 195.
URA: -aren 16, 133, 242, 362, 368; -ura 326. Ik. KARENGATIK.
URTE: -urtean 381.
USKARA: -us[c]araz 71; -uscaraz 1.
?UTZULI: 'itzuli' -uzul 203.

?XAKIN: -eztaquienari 406.
?XAN: -satra 432.
?XASERI: 'eseri' -jasseriric 161; *-saceriric* 350.
?XAZERI: ik. XASERI.
?XEI: 'jai' -sey 376; -seyac 246.
?XIN: 'jin, etorri' -sin 88; -sinen 356; -siñen 166.

ZAZPI: *-zaspietaco* 292; -zazpiac 234, 287, 289, 401, 403; -zazpietaco 314.
ZAZPIGARREN: *-sazpigarna* 423; -zazpigarna 256, 310, 354, 444, 463.
ZEÑATU: -ceñeta 30, 32; -ceñetan 27, 43, 48, 53.
ZER: -cer 9, 11, 32, 59.
ZERBUTXU: -cerbuchu 16.
ZEREN: -ceren ... bay- 22, 365; -ceren ... bey- 361.
ZERENGATIK: -cerengatic 21, 43, 48, 53; -cerengatic ... bay- 486.
ZERRATU: -zerretan 273;
ZEURI: 'zeru' -ceurian 93; -ceuriaren 129; -ceurietan 85; -ceurietra 159, 348.
ZOIN: -zoin 18, 29; -zoin ... bai- 14; -zoin ... bei- 136; -zoin ... bey- 524.
ZONBAT: -zombat 26.
ZOR: -zorrac 98.
ZOR (EKUN): -zor 100.
ZORE: ik. ZU.
?ZORTZIGARREN: -zorcigarna 259.
ZU: -zore 87, 89, 114, 204, 209; -zorequi 110; -zuc 95, 97, 111, 119, 220; -zuri 192.

ADIZKITEGIA

BAITAGO: ik. EGON.
BAITUGU: ik. *EDUN.
BALIMADIGU: 'baldin badugu' id.
BAYGUTIEN: 'bait gintuen' id.
BAYTA: ik. IZAN.
BAYTUGU: 'bait ditugu' ik. *EDUN.
BEDI: ik. *EDIN.
BEICEN: 'bait zen' ik. IZAN.
BEQUIGU: ik. *EDIN.
BEYCEN: ik. IZAN.
BEYCIEN: 'bait zuen' ik. *EDUN.
CELA: ik. IZAN.
CELARIC: id.
CIZALA: 'zitzala' ik. *EZAN.
DA: ik. IZAN.
DAGOLA: ik. EGON.
DAICUGUNER: 'digutenei' ik. *EDUN.
DAQUIGUN: ik. *EDIN.
DAZCUZU: 'ieza(zki)guzu' ik. *EZAN.
DELA: ik. IZAN.
DELA: 'izan dadila' id.
DENA: id.
DENAC: id.
DEZAGULA: ik. *EZAN.
DIAZCUZU: 'ieza(zki)guzu' id.
DIEZU: 'dut' (zuka) ik. *EDUN.
DIONAREN: 'duenaren' id.
DIONARI: 'duenari' id.
DRADE: 'dira' ik. IZAN.
DU: ik. *EDUN.
DUD: 'dut' id.
DUGU: id.
DUGULA: id.
DUGULARIC: id.
DUZU: id.
DUZU: 'da' zuka ik. IZAN.
DYELA: 'duela' ik. *EDUN.
DYONA: 'duena' id.
EZPAYCIEN: 'ez bait zuen' id.
EZTEZAGULA: ik. *EZAN.
GAUDEZU: 'gagozkizu' ik. EGON.
GRA. 'gara' ik. IZAN.
GRELARIC. id.
GUITEALA: 'gaitezela' ik. *EDIN.
GUITIAIN: 'gaitezen' id.
GUITIALA: id.
GUIZAN: 'gitzan' ik. *EZAN.
GUIZAZU: 'gitzazu' id.
GUIZAZULA: id.
IGUZU: ik. *I-.
NAGO: ik. EGON.
TIEN: 'dituen' ik. *EDUN.
ZAUDIANA: 'zaudena' ik. EGON.
ZAZU: ik. *EZAN.
ZRAYA: 'zara' ("bai-ez" erako galderetan) ik. IZAN.
ZTIELA: 'zituela' ik. *EDUN.

ZUNIEN: 'zenuen' id.

6. Laburdurak eta bibliografia[157]

A: «Doctrina cristiana, dialecto del Roncal», Nafarroako Artxibo Orokorra B-111. *DU*-ren lehen zatiaren kopia da, Bonaparte printzeak egina.
Ae: aezkera.
Ae*Dot*: ik. Astete (1869), aezkerazko bertsioa.
Apecechea, J., 1984, «Variantes del Padrenuestro en algunas variedades del vascuence navarro», *Scripta Theologica* XVI/1-2, 667-683.
Arana Martija, J. A., 1984, «Prólogo», in González Echegaray 1984, 29-48.
Art*Dot*: ik. Arretxe (1988).
Arretxe, J., 1988, «Arrigorriagako Dotrina», *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak* 4, 53-96.
Art: ik. Artola (1977, 1980). Izabako eta Uztarrozeko datuak dakartza: ArtIz edo ArtUzt.
Artola, K., 1977, «Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!!», *FLV* IX, 75-108.
———, 1980, «Erronkariko 'uskara'ren azken hatsak... oraino're!», *FLV* XII, 49-86.
Astete, G., 1869, *Le petit Cathécisme espagnol du P. Astete, traduit en trois dialectes basques: 1. Aezcoan, par Don Pedro José Minondo, instituteur à Garralda, avec la coopération de Don Martin Elizondo d'Aribe; 2. Salazarais, par Don Pedro José Samper, curé de Jaurrieta; 3. Roncalais, par Don Prudencio Hualde, curé de Vidangoz. Verifié et modifié sur les lieux mêmes par le prince Louis-Lucien Bonaparte, avec le concours des gens de la campagne, et aprés avoir rendu les trois versions aussi comparatives que possible*, L.-L. Bonaparte (arg.), Londres.
———, 1906, *Cristau Doctriñe Aita Gaspar Astetec erdaraz escribitue eta Ulzamaco Apezac Balle ontan yarduquitzen den usquerara biurtue*, Iruñea.
Azkue, R. Mª, 1905-06, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao. Berrarg. faksimilea: Bilbao, 1969.
———, 1923-25, *Morfología vasca*, Bilbao. Berrarg. faksimilea: Bilbao, 1969.
———, 1931, «Particularidades del dialecto roncalés», *Euskera* XII, 207-407.
B: «Doctrina Cristiana, dialecto de Roncal», Nafarroako Artxibo Orokorra B-112. *DU*-ren bigarren zatiaren kopia da, Bonaparte printzeak egina.
Bid.: Bidankoze.
Bonaparte, L.-L., 1869, *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara: le guipuscoan, le biscaïen, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin; avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés. Recueilli sur les lieux mêmes de la bouche des gens de la campagne, dans cinq excursions linguistiques faites dans les sept provinces basques d'Espagne et de France pendant les années 1856, 1857, 1866, 1867, 1869*, Londres.
———, 1872, *Etudes sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribe, à Jaurrieta et à Vidangoz...*, Londres.
Bur.: Burgi, ik. Idoate (1975) eta Sarasola (1983: 105-106).
Burg*Dot*: ik. Lakarra (1986a, 1987a).
Camino, I., 1989, «Argitasun zenbait Aezkoako dotrinei buruz», *ASJU* XXIII-3, 801-807.
ConTAV: ik. Sarasola (1983).
Contr: ik. Mitxelena et alii (1988 [1953]). Izabako eta Uztarrozeko datuak dakartza: *Contr*Iz eta *Contr*Uzt.
Cuest: «Cuestionarios y notas lingüísticas sobre los dialectos de Aribe, Jaurrieta, Roncal, Roncesvalles y Bidangoz», Bizkaiko Diputazioaren Biblioteka Bv-67. Erronkari eta Bidankozekoak ezezik, Urzainkiko eta Uztarrozeko datuak ere badakartza: *Cuest*Er, *Cuest*Bid, *Cuest*Urz edo *Cuest*Uzt.
E: erronkariera.

(157) Eskuizkribuen izenburuak González Echegaray (1984)-tik jaso ditut. Hemen azaltzen ez diren laburduretarako jo bedi *OEH*-ko bibliografiara eta *ASJU*-ko zerrendara (XXII-3, 1988).

Echaide, A.Mª (ed.), 1984, *Erizkizundi Irukoitza (Euskara 1925)*, *Iker-3*, Euskaltzaindia.
Echn*Dot*: ik. Salaburu (1986).
E*Dot*: ik. Astete (1869), erronkarierazko bertsioa (Bidankoze).
EI: *Erizkizundi Irukoitza*, ik. Echaide (1984). Urzainkiko, Uztarrozeko eta bigarren eskutik Bidankozeko datuak dakartza: *EI*Urz, *EI*Uzt edo*EI*Bid.
Eliz*Dot*: ik. Salaburu (1987).
Er.: Erronkari herriko hizkera.
Er*Dot*: «Doctrina Christiaia», Nafarroako Artxibo Orokorra B-110, Erronkari herriko hizkeraz idatzia.
Estornes Lasa, J., 1984, «Mendigatxa'k Azkue'ri kartak (1902-1916). Eta Erronkari'ko uskaratik utzulpen ta goarpenak», *FLV* XVI, 55-127.
Etudes: ik. Bonaparte (1872). Ae-zko, Zar-zko eta E-zko adizkiak biltzen ditu: *Etudes*Ae, *Etudes*Zar edo *Etudes*E.
ETZ: ik. Satrustegi (1987).
F.B.: Fidela Bernati, erronkarierazko egungo hiztun bakarrari jasorako datu argitaragabeak (1988ko abuztua).
Gabilondo, J., 1983, «Erronkariera», in Varii, *Euskal Dialektologiaren hastapenak*, Bilbo, 1983, 335-409. (1987[2]).
_____, C. Hernández & Mª Jose Olaziregi, 1985, *Erronkarieraren testu guztien bilduma (1569-1900)*, EHU-ko lan argitaragabea.
Gar.: Gardeko hizkera.
Gar0: «Recopilación de diversas oraciones en vascuence», Nafarroako Artxibo Orokorra B-109, Gardeko hizkeraz idatzia.
Gar02: «Algunas oraciones en el dialecto de [Garde]», Nafarroako Artxibo Orokorra B-116.
Gèze, L., 1873, *Éléments de grammaire basque dialecte souletin, suivis d'un vocabulaire basque-français & français-basque*, Bayonne. Berrarg. faksimilea: Donostia, 1979.
Gèze: ik. Gèze (1873).
González Echegaray, C., 1984, «Catálogo de los manuscritos reunidos por el príncipe Luis Luciano Bonaparte que se hallan en el País Vasco...», *Euskera* XXIX-1, 23-184. Bigarren arg.: Bilbo, 1989.
Gorostiaga, J., 1969, «Prólogo a la segunda edición» in Azkue 1969 [1905-06].
Hual*Dot*: «Catecismo Español de la Doctrina Cristiana por el P. Gaspar de Astete, Añadido Por el lic^do^. D. Gabriel Menendez de Luarca. Y traducido al bascuence de Vidangoz por su Cura párroco D. Prudencio Hualde, anotando al pie de cada plana algunas palabras segun se pronuncian en alguno de los otros pueblos de este Valle de Roncal», Nafarroako Artxibo Orokorra B-117. Eskuizkribu hau Bonaparrek bere ediziorako (E*Dot*) erabili zuena da; baina, printzeak bertan ohartu bezala, benetan (eta sarritan) «verifié eta modifié» dago.
Hual*Eb*: «El Sagrado Evangelio de San Mateo, traducido de la versión castellana por [Torres] Amat al bascuence de Vidangoz», Nafarroako Artxibo Orokorra B-76. Eskuizkribua erabili da, dauden edizioak ez baitira batere gardenak: *RIEV*-ekoa (XXV (1932), 527-548; XXVI (1933), 185-195) ez dago osorik eta erataz beterik dago, eta Estornes Lasarenak (*FLV* XIV (1982), 43-103) grafia gaurkotzen du.
Idoate, F., 1975, «Un proceso de brujería en Burgui», *CEEN* VII, 225-276.
Irigoien, A., 1957, «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue. Escritas en vascuence roncalés y en castellano», *Euskera* II, 119-170.
Iz.: Izaba.
Izag: ik. Izagirre (1959, 1961). Izabako eta Uztarrozeko datuak dakartza: IzagIz edo IzagUzt.
Izagirre, K., 1959, «Erronkari'ko Euskal-Ondakin batzuk», *BAP* XXV, 279-314.
_____, 1961, «Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk (I)», *BAP* XVII, 391-407.

Izengabea, 1913, «Indice de los libros y papeles adquiridos por la Excma. Diputación de Navarra de la testamentaría de S.A. el príncipe de Luis Luciano Bonaparte» *RIEV* VII, 186-191.
Lafon, R., 1955, «Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques», *Pirineos* XI, 109-133.
Lakarra, J. A., 1986a, «Burgosko 1747.ko dotrina: I. Testua eta Oharrak», *ASJU* XX-2, 533-594.
_____, 1986b, «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU* XX-3, 639-681.
_____, 1987a, «Burgosko 1747ko Dotrina: II. facsimilea eta hiztegia», *ASJU* XXI-1, 277-317.
_____, 1987b, «Oikiako Dotrina (1759)», *ASJU* XXI-2, 515-564.
Mdg: ik. Irigoien (1957).
Mitxelena, K., 1982, «Un catecismo salacenco», *FLV* XIV, 21-42.
_____, 1985 [1961], *Fonética histórica vasca*, *ASJU*-ren gehigarriak, 4, Donostia.
_____, 1985 [1965], «Vasco-románica», in *LH*, 268-281. Lehen arg.: *RFE* XLVIII, 105-119.
_____, 1987 [1974], «El elemento latino-románico en la lengua vasca», in *PT*, 195-219. Lehen arg.: *FLV* VI, 183-209.
_____, 1987 [1978a], «Miscelánea filológica vasca (I)», in *PT*, 363-385. Lehen arg.: *FLV* X, 205-228.
_____, 1987 [1978b], «Miscelánea filológica vasca (II)», in *PT*, 387-410. Lehen arg.: *FLV* X, 389-413.
_____, 1988 [1954], «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal», in *SHLV*, 273-297. Lehen arg.: *Via Domitia* I, 130-157.
_____, 1988 [1958], «Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte», in *SHLV*, 298-319. Lehen arg.: *BAP* XXIV, 335-364.
_____, 1988 [1983], «Euskalkien agerriko aurpegia», in *SHLV*, 334-340. Lehen arg.: *Euskera* XXVIII-1, 245-252.
_____ et alii, 1988 [1953], «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», in *SHLV*, 247-272. Lehen arg.: *BAP* IX, 499-536.
Moutard, N. 1975, «Étude Phonologique sur les Dialectes Basques. II», *FLV* VII, 141-189.
O: *Doctrina Uscaraz*-en jatorrizko eskuizkribua, Nafarroako Artxibo Orokorra B-118.
Oik*Dot*: ik. Lakarra (1987b).
orok.: euskaraz orokor edo hedatuenak diren formak.
Part: ik. Azkue (1931).
Pos: ik. Mitxelena (1988 [1954]).
Riezu, J., 1958, «El Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *PV* XIX, 149-164.
Rijk, R. P. de, 1981, «Euskal morfologiaren zenbait gorabehera», in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo, 83-101.
Rodríguez-Ferrer, M., 1873, *Los vascongados. Su país. su lengua y el príncipe L. L. Bonaparte...*, Madrid.
Salaburu, P., 1986, «Baztango Euskalkiaz: Elizondoko Doktrina bat», *ASJU* XX-3, 817-844.
_____, 1987, «Baztango euskalkiaz: Elizondoko beste doktrina bat», *ASJU* XXI-2, 453-473.
Sarasola, I., 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* XVII, 69-212. Berrarg. K. Mitxelenaren *TAV*-ekin batera: *ASJU*-ren gehigarriak, 11, Donostia, 1990.
Satrustegi, J. M., «Testos salacencos del año 1780», in *Symbolae* II, 1023-1043.
_____, 1987, *Euskal testu zaharrak I*, Iruñea.
Ulz*Dot*: ik. Astete (1906).
Urgell, B., 1987, «*Esku-Liburu*-aren grafi aldaketak (1802-1821)», *ASJU* XXI-2, 357-387.
Urquijo, J., 1908/1910, «Cartas escritas por el Príncipe L.L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores», *RIEV* II, 215-221, 655-659 eta IV, 233-297.
Urz.: Urzainki. Bonaparteren testuetan Urzainkiko azpieuskalkiari dagokio, hots, Urzainkiko eta Erronkariko hizkerei orobat; *EI*-n ez dakit azpieuskalkiaz ala hizkeraz ari den.

Uzt.: Uztarroze. Orobat Bonaparteren testuetan Uztarrozeko azpieuskalkia (Uztarroze eta Izaba).
Verbe: ik. Bonaparte (1869).
Villalonga, J., 1953-57, «Introducción a un estudio sobre Luis Luciano Bonaparte y sus trabajos», *EJ* VII, 39-68.
Yrizar, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 lib., Donostia.
Zar: zaraitzuera.
Zar1780: ik. Satrustegi (1985).
Zar*Dot*: ik. Astete (1869), zaraitzuerazko bertsioa.
Zar*Dot*2: ik. Mitxelena (1982).
Zerio y Segura, F. de, 1961, «Cartas de D. Resurrección María de Azkue a Mariano Mendigacha», *Euskera* VI, 181-208.
Zuazo, K., 1988, "Bizkaieraren ezaugarriez gehiago", *ASJU* XXII-2, 367-377.